

Zu hemen zaude.

goiena

DONOSTIA ZINEMALDIAN, DISFRUTATZEN ETA LANEAN

Mireia Gabilondok eta Iban del Campok gaur hasiko den 71. Donostia Zinemaldiarekin gozatuko dute, baina lanean ere ibiliko dira: bergararra galetako zuzendaria izango da eta arrasatearrak 'Sorbeltza' film laburra aurkeztuko du / 58



Mireia Gabilondo bergararra eta Iban del Campo arrasatearra, Donostian, joan den zapatuan. HEIDI OTADUY

Irati Iciar oñatiarra izendatuko dute gaur Euskaltzaleen Topaguneko lehendakari / 3



OÑATIKO ETA ARETXABALETAKO JAIEN GEHIGARRIAK / 19 eta 37

Elorregiko bus geralekua laster gertu, komuna ere erabilgarri jarrita

Hiru hilabetez ibili dira lanean, 203.542 euroko aurrekontuarekin; egunotan komuna amaituko dute / 2



Elorregiko autobus geralekuaren markesina berria, ia erabat amaituta, joan den astean. XABIER URZELAI

SINADURAK

	ESTEPAN PLAZAOLA / 6
	AITZOL ILLARRAMENDI / 10
	PALOMA MARTINEZ PEREZ / 14
	AINHOA SEMPER GENUA / 53
	ANDER ETXEBERRIA / 64

puntuak

Txakurrendako zerbitzuak gero eta gehiago dira

Elkarrizketa Valen Moñux zuzendari eszenikoari

Progresiboen hilabetea

2x189€

mó betaurreko progresibo



batzuk eguzkitakoak izan daitezke



Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA



eskatu hitzordua



MULTIÓPTICAS



Elorregiko geraleku berria, joan zen astean ateratako argazkian. XABIER URZELAI

Elorregiko geralekua gertu, komuna izan ezik

Komuneko sarraila erabat berritutakoan, egun gutxi barru, gertu eta erabilgarri izango dira Elorregiko bus geraleku berriko zerbitzuak. Markesina, abuztuaren erdialderako jarrita zen; edukiontzia eta bizikletendako gunea ere badaude

Julen Murua Mesonero ARRASATE Elorregiko bus geralekua abuztuaz geroztik erabilgarri dago. Izan ere, ekainean hasitako lanen zatirik handiena abuztuan amaitu baitzuten. Dena den, lanak ez daude erabat amaituta. Komuna ez dago, oraingoz, erabilgarri. Asteotan aritu dira azken ukituak ematen, baina obratan ohikoak diren "kontu teknikoak" tarteko, ez dago oraindik erabiltzeko moduan. Datozen egunotan amaitu nahiko lituzkete lan guztiak. Geralekua bera amaituta dago eta hondakinak batzeko ontziak ere jarrita eta erabilgarri. Horien kudeaketa zehazten ari dira une honetan Arrasate, Bergara eta Oñatiko udalak, Debagoieneko Mankomunitatearekin batera, "kudeaketa modu iraunkor eta egonkorra zehazten".

Ekainaren 22an hasi zituzten Elorregiko autobus geralekua eraberritzeko lanak. Construcciones Aplibur S.L. enpresa da eraberritze lanetan ari dena –

hura izan baitzen lizitazioa aurkeztu zen enpresa bakarra-, eta 203.542,09 euroko aurrekontuarekin aritu dira lanean, BEZA barne. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin egindako hitzarmenean jaso bezala, diruaren %60 Aldundiak berak jarri du; gainontzeko %40 Arrasateko, Bergarako eta Oñatiko udalek jarri behar izan dute.

Lanekin guztiz amaitutakoan –Oñatiko Udalak hartu zuen beregain proiektuaren eta obrak egiteko prozesuaren ardura-, Elorregiko geraleku eraberrituak markesina berria, komuna, bizikletendako aparkalekua, informazio pantaila eta argiztapen fokuak izango ditu. Azpigitura berri guztiaren man-

EKAINEN HASI ZITUZTEN LANAK ETA DATORREN ASTERAKO ERABAT AMAITZEA ESPERO DUTE

tenua eta geraleku inguruko zerbitzuaren kudeaketa –hondakinaren bilketa eta komunaren garbiketa– da orain zehazten ari direna.

Alkateen salaketa

Bestalde, Debagoieneko garraio publikoaren egoera salatu dute asteen eskualdeko alkateek Gipuzkoako Batzar Nagusien atarian. Hainbat kexu sorrarazi ditu Avanza enpresak eskaintzen dituen zerbitzuak –erabiltzaileek ez ezik, langileek ere askotan eman dute horien berri-. Egoera horren aurrean "neurriak hartzeko" eskaria egin diote Debagoieneko alkateek –guztiak EH Bildukoak-, Maider Morras Arrasateko alkatearen bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiari.

Arrasateko alkateak esan du Aldundiak "keinu txiki batzuk" egin dituela egoerari konponbidea aurkitu nahian, baina "egiturazko arazoari aurre egingo dioten neurri ausartak" behar dituztela.



Hirukide elkarteko kideak aurkezpenean. GOIENA

Familia ugarien elkarteak aurkeztu dute Debagoienean

Hirukide elkarteak aurkezpena egin du Arrasaten; bertaratu diren familiei azaldu zaizkie zerbitzuak

Julen Murua Mesonero ARRASATE Arrasateko Kulturaren izan ziren, martitzenean, Hirukide elkartetik Arrate Etzezarreta eta Ibai Arberas. Elkarteak, eskaintzen dituzten zerbitzu ezberdinak eta kide ugariko familiek dituzten laguntzak aurkeztu zituzten.

Etzezarretak eta Arberasek adierazi zuten Hirukide dela kide ugariko 8.300 familiak baino gehiagok osatzen duten "gobernu kanpoko erakunde apolitiko eta akonfesionala" eta haien helburu nagusia dela "bizitza politiko, instituzional, sozial, mediatiko eta enpresariareko esparru guztietan kide ugariko familien eskubideen alde" egitea.

1.000 Debagoienan

Etzezarretak eta Arberasek aurkeztu zuten haien elkarteak eta familia ugariak dituzten laguntzak. Azaldu zuten "Debagoienean, ia mila familia ugari" daudela; zehazki 963 dira. Familia ugarien kopuru handiena duten herriak hurrengoak dira: Arrasate, 316 familia ugarirekin; Oñati, 237rekin; Bergara, 210rekin, eta Aretxabaleta, 106rekin. Kopuru txikiagoetan bada ere Debagoieneko beste herri batzuetan ere badaude kide ugariko familiak: Eskoriatzan (54 familia), Antzuolan (37 familia) eta Leintz Gatzagan (3 familia).

Elkartearen zerbitzuak

Hirukidek zerbitzu ezberdinak eskaintzen dizkie bertako kide diren familiei. Alde batetik,

"aholkularitza integrala" eskaintzen die, bakoitzari dagokion "laguntza, eskubide, abantaila edo baliabideen inguruan". Hitzaldiak ere antolatzen dituzte "gurasotasun positiboaren eta familientzat interesgarriak izan daitezkeen" gai buruzkoak. Horrez gain, aisialdiko jarduerak, zozketak edota beste familia batzuekin esperientziak partekatzeko irteerak antolatzen ditu elkarteak. Gainera, "edozein gurasoren heriotzagatik edo ezintasun iraunkor absolutuagatik doako bizi-asegurua" ere eskaintzen dute; Euskadi osoan zeharreko 1.200 erakunde edo dendatan baino gehiagotan "deskontu pribatuak" ere eskaintzen ditu elkarteak.

Laguntza publiko ezberdinak

Hirukidekoek azaldu zuten kide ugariko familiek eskuragarri dituztela "laguntza publiko ezberdinak". Laguntza horiez baliatzeko, baina, Kide Ugariko Familia Titulua indarrean edukitzea "nahitaezkoa" dela adierazi zuten. Hurrengo arloetan izango dituzte laguntzak familia horiek: hezkuntza mailan, etxebizitzan, zerga arloan, garraioan, aisialdian eta kulturaren edota enperian.

DEBAGOIENEAN KIDE UGARIKO IA 1.000 FAMILIA DAUDE; KOPURU HANDIENEN HERRIA ARRASATE DA

Irati Iciarrek hartuko du Amonarrizen lekukoa

Oñatin jaiotako Irati Iciarrek hartuko du Kike Amonarrizen lekukoa Euskaltzaleen Topagunean. "Itxaropentsu" eta "lan egiteko gogoz" hartuko du lehendakaritza Iciarrek, gaur, irailak 22, Ermuan egingo den ezohiko Batzar Orokorrean

Miren Arregi Amasorrain ARRASATE
Irati Iciarrek (Oñati, 1975) hartuko du Kike Amonarrizen (Tolosa, 1961) lekukoa Euskaltzaleen Topaguneko lehendakaritzan, gaur, irailak 22, Ermuan egingo den Batzar Orokorrean. Batzara 17:30ean egingo da, Izar Centre auditorioan eta oñatiarrak aitortu du "bertigo pixka batekin baina itxaropentsu eta lan egiteko gogoz" ekingo diola bide berrari. Iciarrek urte asko daramatza zuzendaritzan eta hori alde izango du etapa berrian. "Gainera, Topagunera nator, zuzendaritza batera, lan talde batera eta ez nago bakarrik", dio. Oñatin sortua bada ere, Gasteizen daramatza urte asko Irati Iciarrek eta datozen lau urteotan, balioa eman gura lieke Arabari eta Gasteizi. "Emakume ere banaiz eta ikuspegi hori txertatu gurako nuke", erantsi du.

Bizia eta konplexua

Emozio pilaketa handiarekin esango dio agur Amonarrizek lehendakaritzari. "Pena dut eta itxaropena ere bai. Iratik hartuko du arduraren eta itxaropen guztia dut berarengan". Lau urte "bizi eta konplexu" tokatu zaizkio Amonarrizi. Ezin ahaztu, pandemiak baldintzatutako urteak izan direla, "baina nabarmendu nahi nuke mugimenduak izan duen indarra eta kemena. Aurrerapauso sendoak eman dira, Euskaraldia bi aldiz egin dugu eta lortu genuen euskararen gaia ez ateratzea agenda soziopolitikotik. Iparraldera ere hedatu gara eta lortu dugu Ipar Euskal Herriko Topagunea ere sortzea", dio.

XXI. mendeko erronkak

Gaurko Batzar Orokorrean, argu aldatzeaz gain, Topaguneko aurkeztuko ditu *Batera Jauzi* dinamikaren emaitzak. Hain zuzen ere, irizpen hori oinarri hartuta landuko du Euskaltzaleen Topaguneko, azaroaren 18an



Kike Amonarriz eta Irati Iciar, Arrasaten, joan zen astean. MARKEL ARRAYAGO

IRATI ICIARREK ARABARI ETA GASTEIZI BALIOA EMAN GURA LIEKE DATOZEN URTEOTAN

Arrasaten egingo den Kongresuan aurkeztuko duen proposamena. Proposamen horretan jasoko da Topaguneko datozen urteotan landuko duen norabidea. Hala nola, zein den bere funtzioa, non dauden erronka nagusiak eta abar. Izan ere, "dena oso azkar da, ziurgabetasun handia dago eta erronkak aldatu egin dira", dio Irati Iciarrek. Hori horrela, *Batera Jauzi* dinamikara gonbidatu dituzte herritarrak. "Ikusten genuen euskararen auzia gizarte osoarena dela, eta horregatik euskararen mundutik kanpo dabilen jendea ere gonbidatu dugu".

Erabileraren afera, gako

Arrasaten egingo den Euskaltzaleen Topaguneko 3. Kongresuan, erabileraren gaia izango da erdigunean. "1989an egin zen neurketa bat eta orduan ia hamaika puntukoa zen erabilera. Azke-

nengoan, berriz, hamahiru eta erdikoa", dio Amonarrizek. "Konturatzaren gara ezagutza hazi dela, baina ez erabilera. Hor haustura bat dago", erantsi du Iciarrek. "Norbaitek proposamen bat egin behar du eta guk egingo diegu euskalgintzan, euskararen munduan zein euskaratik kanpo dauden gizarte eragile eta sektore guztiei".

Bilakaera ikaragarria

Euskarak eta euskalgintzak egingo dako bilakaeraz Amonarrizek dio "ikaragarria izan dela, baina mugatua". "Momentu interesgarria ere bada", erantsi du, "hizkuntzen gaia agenda soziopolitikoaren erdigunean" dagoelako. "Lehen aldia da hizkuntzen gaia hain gune zentrolean dagoena".

Iciarrek nabarmendu du, bestetik, Amonarrizengandik ikasi duela "arreta pertsonen aktibazioan jarri behar dela. Zer nola garrantzia duen Topagunearentzat bere bazkideak, elkarteak, pertsonak aktibatzeak". Eta mezua helarazi dio: "ez zara hain azkar libratuko gutaz. Zure telefonoa eta emaileko helbideak baditugu; bestela, Tolosan agertuko gara!".

Garaia Topagune Teknologikoa

Garaia Parke Teknologikoak networkinga, lankidetzaren eta nazioartekotzea bultzatzen jarraitzen du enpresen arteko topaketak sortuz.



GARAIA Parke Teknologikoak, Aviles-eko Parke Zientifiko Teknologikoarekin batera, enpresen arteko topaketa antolatu du urriaren 23an, 09:00 – 10:00 artean.

Ekitaldi hibridoak izango da, eta honako enpresa hauek aurkeztuko dira:

- **Edertek (PTGaraia):** Fagor Ederlanen zentro teknologikoa da, fundizio prozesuaren arloan espezializatua.
- **Ekitermik (PTGaraia):** Energiaren sektorerako bideratutako ingeniariak, enpresaren baliabide energetikoak kudeatu, kontrolatu, optimizatu eta mantentzeko.
- **Sormen (PTGaraia):** Industria-diseinuan eta produktu-garapenean espezializatutako estudioa.
- **Sialtrónica (PCTAviles):** Oinezko pasagune adimendunak, bide-seinale adimendunak eta Smart Led, hiri, errepide eta trenbidetako trafikorako.
- **Model Smart Desing (PCTAviles):** Ekipo eta software berritzaileen garapena eta banaketa.
- **Grupo Satec (PCTAviles):** Aholkularitza, soluzio eta zerbitzu teknologikoak.

URRIAREN 23AN, 09:00ETATIK 10:00ETARA.

TOPAGUNE IREKIA



IZENA EMAN HEMEN



Euskaltegietakozko izen-ematea, azken txanpan

Datozen egunetan amaituko da Debagoieneko Udala Euskaltegiak eta AEKn izena emateko epea; herritarrak matrikulatzera animatu dituzte eta gogorarazi dute udalek eta Eusko Jaurlaritzak diru-laguntzak ematen dituztela euskara ikasteagatik

Idoia Aranbarri Arzuaga DEBAGOIENA Arrasateko, Bergarako, Leintzeko –egoitzak, Aretxabaletan eta Eskoriatzan– eta Oñatiko Bedita Larrakoetxea Udala Euskaltegiak eta egoitza Arrasaten duen Debagoieneko AEK-k zabalik dituzte 2023-2024 ikasturterako izen-emateak eta 16 urtetik gorako herritarrak matrikulatu daitezke. Zentro guztiek eskaintzen dituzte A1etik C2 mailara bitarteko euskara ikastaroak aurrez aurre eta online autoikaskuntza edota jardun biko ikaskuntza modalitateak aukeratu daitezke, Oñatin salbu. Hala, etorkinei, gazteei, merkatariei edota enpresei zuzendutako ikastaroak eta bestelakoak ere eskaintzen dituzte, besteak beste, urtean zehar. Aipatzekoa da AEK-k badituela taldeak Antzuolan, Aramaion eta Elgetan.

Azken egunak izena emateko
Gaur izango da izena emateko azken eguna Arrasateko eta Oñatiko Udala Euskaltegiak. Bergaran, hilaren 27ra arte ahaliko da eta Debagoieneko AEK-n, berriz, hilaren 29ra arte. Leintzeko udala euskaltegiak DBHko gazteentzat eskaintzen duen komunikatzeko arazoak dituzten ikasleei zuzendutako ikastaroan izena emateko epea gaur amai-



Arrasateko Udala Euskaltegiako lau irakasle eguaztenezan Kulturolan. I.A.A.

Euskaltegien informazioa

Matrikulazioari edo diru-laguntzaeri buruz gehiago jakiteko, euskaltegiara joan, deitu edo mezua idatzi.

Udala Euskaltegiak

- **Arrasate** 943 79 70 77 / euskaltegi@arrasate.eus.
- **Bergara** 943 76 44 53 / euskaltegia@bergara.eus.
- **Leintz** 943 79 21 68 / idazkaritza@udaleuskaltegia.eus.
- **Oñati** 943 78 24 96 / euskaltegia@onati.eus.

Debagoieneko AEK Euskaltegia

- **Arrasate** 943 77 03 69 / arrasate@aek.eus.

tuko da; ohiko ikastaroetan hilaren 27ra arte eman daiteke izena. Bost zentroetako zuzendariak aurreratu dute matrikulazioak martxa onean doazela. Nabarmendu dute epea kanpo norbait apuntatzen bada, tokia baldin badago, hartuko dutela.

C1 ikastaroa, 20 euroren truke
Helduen Alfabetatze Berreuskalduntzerako Erakundeak (HABE) diru-laguntza berezia jarri du martxan aurtengo ikasturtean C1 mailan matrikulatzen diren 2005, 2006 eta 2007 jaiotakoentzat. Jaurlaritzak bere gain hartuko du matrikularen zati handi bat; hortaz, ikasleak 20 euroko matrikula ordainduta egin ahal izango du ikastaroa, betiere, gutxienez, %75eko asistentzia badu. Gutxienera berritaratze hori bete ezean, bete gabeko zatiarekin proportzionala den matrikularen diru kopurua ordaindu beharko du ikasleak.

Laguntzak udalek ere

Ibarreko udala guztiek ematen dituzte diru-laguntzak euskara ikasteagatik, baina udalerrri bakoitzak bere baldintzak eta ezagueriak ditu. Alabaina, laguntza horiei HABE ikasturte amaieran ematen duen diru-laguntza gehitu behar zaie, eta berau eskuratzeko ere baldintzak daude; hala nola, HABEren erregistroan inskribatutako euskaltegi edo euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatu batean matrikulatuta egon, dagozkion matrikula-prezioak euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatuei ordaindu eta maila gaitzuta edo egiaztatuta izan. Laguntzekin matrikula osoaren zenbatekoa jaso daiteke bueltan, baina sekula ez ordaindu dena baino gehiago.

Izaro Elorza, Eudelen Batzorde Eragileko kide

Aurreko agintaldian bezala, Gipuzkoako Lurralde Batzordeko kide izaten ere jarraituko du

I.A.A. OÑATI

Euskal Udalen Elkartearen (Eudel) 2023-2027ko lehen batzar orokorra egin zuten martitzenean Donostian eta batzorde berrirako ordezkariak aukeratu zituzten. Gipuzkoako Lurralde Batzordeko kide izan da Oñatiko alkate Izaro Elorza pasa den agintaldian, eta datozen urteetan kargu horretan jarraitzeaz gain, Eudelen Batzorde Eragileko kide izango da. Izendapena "arduraz eta ilusioz" hartu duela adierazi du: "Gipuzkoako herritarrek M28an EH Bilduren ereduaren alde egin zuten; parte-hartzean oinarritutako eredu baten alde egin zuten. Gure ardura eta lana izango da gure ideiak Eudelen barruan ere egikaritzen saiatzea; dauden gobernatze ereduak aldatzea, gauzak aldatzen joateko hautuarekin".

Batzarrean Batzorde Eragile berria hautatu zuten –15 kideko hautagaitza bakarra aurkeztu zen; EAJ, EH Bildu, PSE-EEko eta plataforma independentetako ordezkariak– eta Esther Apraiz Derioko alkate jeltzalea izango da presidente. Hiru lurraldeetako udaletako ordezkariak zuzendaritza batzordea osatzeko kideak ere hautatu zituzten –9 kidek osatua bakoitza–.

UNEDen 2023-2024 ikasturtean izena emateko epea zabalik

Urriaren 23ra arte eman daiteke izena UNEDen 2023-2024 ikasturtean. 30 gradu, 11 gradu konbinatu, 80 master, doktoregoak, 12 mikrogradu eta mikromaster bat eskaintzen ditu; baita berezko nahiz etengabeko prestakuntza ikastaroak, online hizkuntza-ikastaroak eta unibertsitatean sartzeko ikastaroak 25 eta 45 urtetik gorakoentzat ere.

Lankidetzaren dinamizazio bultzada, Mondragon Healthek

Lankidetzaren dinamizazio "bultzada berria" eman dio Mondragon Healthek osasun arloko zenbait kooperatibarekin, Mondragon Korporazioko beste zenbait erakunderekin eta Sustapen Zentroarekin batera. Hilaren 15ean Donostian egindako aurkezpenan aurreratu zuten "ekosistema propioa sortzeko apustu estrategikoa" egiten ari direla.

Soraluce kooperatiba, Hannoverreko EMO 2023 azokan

Bihar amaitzen den Hannoverreko (Alemania) EMO 2023 azokan da Bergarako Soraluce enpresa astelehenera. Makina-erremintak erakustez gain, *Performance Line*-ko azken makinak ezagutarazteko baliatu du azoka; baita Soraluce SAD60 mahai finkoaren gainean dagoen zutabe mugikorrek fresatzeko makina berria erakusteko ere.

Instalazioak berritu dituzte Zubillagako hiltegiak

Zubillagako hiltegiak zenbait berrikuntza egin dituzte udan. Zoru berria jarri dute eta urak nahiz materia organikoak eragindako kalteak hobeto jasaten dituen materiala erabili dute horretarako. Halaber, zatitze gela ere eraberritu dute: espazioa handitu eta destentsore sistema berritu dute, hezugabetzeko baliabideak ere aldatuta.

Arazoak garbigune ibiltaria gaizki erabiltzeagatik

Garbigune ibiltarian zaborra behar bezala bereizita eta modu garbi zein ordenatuan uzteko eskatu du Mankomunitateko Ingurumen Zerbitzuak gaizki erabiltzeagatik arazoak sortzen ari direlako: "Hondakinak guttiz nahastuta, gaizki bereizita nahiz oso modu zikinean lagata eta zenbait hondakin arriskutsu apurtuta agertzen ari dira".



DEBAGOIENENKO OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 32, behea / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

ARANDO IRIARTE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

DURANA HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

GARAI HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Iralabarri 15 / 943 53 42 63

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

DIETETIKA

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68
Bergara / Bidekurutzeta 10 - 943 76 97 03

KIROPRAKTIKA ZENTROA

BIZI KIROPRAKTIKA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN- DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ ZENTRO MEDIKOA

Arrasate / Euskal Herria plaza 3
943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk.
943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g
943 76 07 84

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11



ZABALIK

ESTEPAN PLAZAOLA

Katalanak bide-erakusle?

Uztaileko hauteskunde ondoen sortutako egoerak hizkuntza gutxituen gaia pil-pilean jarri du. Diputatuen Kongresuko mahaia eratzeko negoziazioen barruan, katalanen esizientziaren eraginez, Espainiako Gobernuak euskara, galiziera eta katalana Europako Batasuneko hizkuntza ofizialtzat hartzeko eskaria egin zuen, eta, horretaz gain, Diputatuen Kongresuko presidente berriak Kongresuan bertan ere estatuko hizkuntza koofizialak erabili ahalko zirela hitz eman zuen.

Idatzi honek argia ikusten duenerako jakingo dugu zer gertatu den, baina, emaitzak emaitza, nabarmentzekoa da politikari katalanen eta euskaldunen arteko alde itzela.

Lehenengo eta behin, planteamendu politikoaren aldetik; hau da, negoziazioaren lehen puntutzat hizkuntza bera jarri izana. Bizpahiru aste lehenago itxi ziren Nafarroan gobernu eratzeko negoziazioak, Euskalgintzaren Kontseiluaren arabera,

euskararen ikuspegitik "objektiboki atzerapausoa" ekarri zuena.

NABARMENTZETOKO DA POLITIKARI KATALANEN ETA EUSKALDUNEN ARTEKO ALDE ITZELA

Eta, bigarrenik, praxiaren aldetik. Egoera politiko berriak Puigdemont jarri du erdigunean. Youtubez eskaintako agerraldi

batean, berak eman zuen Bruselatik Juntsek negoziatioetarako jarriko dituen baldintzen berri. Katalanez eta ingelesez. Eta berarekin elkarrizketatzera joan zaizkio hainbat politikari; tartean, Andoni Ortuzar. Eta Twitterren eman du horren berri, katalanez; eta Ortuzarrek erantzun, gaztelaniaz. Eta norbaitek esango dit: "Katalana edozeinek ulertzen du; euskara ez". Ez Puigdemontek eta ez beste inork ez luke izango, Twitterreko itzultzailea erabilia, euskarazko mezu simple bat ulertzeko inolako zailtasunik. Eta, ziurrenik, Puigdemontek berak baloratu egingo zukeen erantzuna euskaraz jaso izana. Ortuzar aipatu dut, baina gainontzeko euskal politikariek ere berdintsu jokatzeko dute. Balioko al du oraingo egoerak euskara erdirago ekar dezaten? Hartuko ote dituzte katalanak bide-erakusle eta bide-lagun?

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Iratzargailua

ONINTZA ENBEITA

'BERRIA'-N ARGITARATUA

[HTTPS://LABUR.EUS/HLT4N](https://labur.eus/hlt4n)

Hilabete baino gehiago pasatu da munduak leihoaren beste aldetik begiratzeko didanetik.

Egun ez dago munduari erabat ihes egiteko modurik, baina pantailatik jakiten ditut gauza asko.

Astiroegi noa beste guztien abiaduran gauzak egin ahal izateko.

Pentsatzen nuena baino errazagoa ari zait egiten, ordea.

Neure buruak kezkatuta nauka.

Faltan botatzen ez ditudan gauza asko daude, eta aspertzearen plazera igartzen hasi naiz.

Ez dut aldiro gogaitu nahi, baina tarteka ez dit inporta probetxuzko gauzarik ez egiteak.

Iratzargailua itzalita izatea da gauzarik onena.

Batez ere, ia egunero esnatzen naizelako goizeko zortziak baino lehen.

Pentsatzen dut inoiz ez dudala beharko alarmerik garaiz ibiltzeko.

Badakit, ordea, lanera itzultzen naizenerako itzuliko zaidala logura.

Nolakoa gainera!

Han egongo naiz goizero begiak ireki ezinik betazal

bakoitzak 100 kilo izango balitu bezala.

Neure burua bost minutu gehiago lo egiteko engainatuko dut, eta hor joango naiz autobidean errepidea garbi egoteko erretratzen, ezingo dudalako minutu bat bakarria ere galdu.

Harrigarria da gure burua.

Ez dakit zein den behar ez denean piztu zaidan zentzumena, baina ahal izango banu egunero esnatuko nintzateke iratzargailuaren sustorik gabe.

Osasunarentzat ezin du ona izan eguna salto eginda hasteak.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzardea

Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa

arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.

Publikitate

Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIKITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07

berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 18.500 ale

Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagakako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

GUTUNAK

Eskerrik asko!**LEIRE GURIDI ALUSTIZA**

JUANITAREN FAMILIAREN IZENEAN
BERGARA

Ohar honen bidez, Arrasateko ospitaleko langileoi esker ona azaldu nahi dizuegu, gure ama, amama... irailaren 5ean zendu zen arte, bigarren solairuko, erizain, erizain laguntzaile, begirale eta zirujau. Zuengandik jaso duen arretagatik, bai gizatasun aldetik, bai profesionaltasunari dagokionez, eta baita ere senideokiko une oro izan duzun adeitasunagatik. Mila esker!

Presentismoa, bai**KEPA SEBAL LAZPIUR**

BERGARA

Presentista da etekin politikoa ateratzeko helburuarekin zenbait gertakari, kultura eta pertsonaia historikoren eginkizunak egungo eztabaida moralera ekarri nahi dituen.

Hispanoamerikako politikari demagogiko askok azken urteetan euren politika negargarrietatik arreta kentzeko pizten duten debate antzua da. Eta Hego Amerikak pairatzen duen pobrezia kausa orain dela lau mendeko ustiapenarenarekin lotzea lardaskeria politiko hutsa da.

Badabilta azken urteotan Morales, Petro, AMLO eta Maduro bezalako agintari populistek ustiatutako zilarra eta urrea aitzakiatzat hartuta

komisioak, kargu politikoak, manifestazioak eta deklarazio instituzionalak bultzatzen, egungo arazoak diren narkotrafikoa, drogen aurkako gerra, inflazioa, ustelkeria eta segurtasunik eza bezalako arazoetatik fokua kendu nahian; eurek sortu, areagotu edo konpondu ez dituzten arazoetatik, hain zuzen ere.

Inork imajinatzen al du Alemaniako, Espainiako edo Erresuma Batuko gobernubururen bat Erromatarren Imperioko ustiapen, esklabotza eta sarraskiak egun ditugun arazoen jatorriak izango balira bezala azaltzen?

Historiaren eta historiografiaren inguruan eztabaidatzearen oso aldekoa naizen arren, iritzi kontrajarriak dauden leku orotan ideologia sartzea ez zait batere onuragarria iruditzen. Hortaz, presentismoa alde batera lagatzea erabakitzen dugunean ekin ahalko diogula uste dut; bitartean, moralismo politikoa nagusituko da.

Txa, txa, txa... Txarapea**ENERITZ URRUTIA**

TXARAPEAKO JAI BATZORDEAREN
IZENEAN
ARETXABALETA

Txarapea, sekulako mendatea, aldapan gora, aldapan behera, izerdia eta nekea. Paregabeko jendea; kale itxura dauka, baina hobe auzo izatea!

Aurten lehendabiziko aldiz auzoko jaiak antolatu ditugu

eta talde-lanean kalea auzo egin dugu.

Ezin eskertu gabe utzi ibilbidean lagun izan ditugun Iber Loteria, UDA, Jon Harategia, GSR, Dorleta taberna, Expres taberna, Urbaltz taberna, Atxabaltako Paelleruak, Atxabaltako Gazte Mugimendua, Atxabaltako Etxerat, Zaloña Aurrekoa baserria, Mendibitzu baserria, Aretxabaletako Udala, muralistak, Lide jaietako pregoilaria, Iñaki San Migel diseinatzailea, Loratu, Adrian eta Gorka azpiegitura uztearren, Lekaixoka bertso eskola, dultzaineroak, trikitilariak, Txarabermuko partaideak, Assata eta Zirrara taldeak, AZ Gaubelak, Areder Arrandegia, Javi garraiolaria eta egun hartan aldapan gora aldapan behera ibili ziren auzotar guztiak.

Kalea auzo egiten jarrai dezagun. Txa, txa, txa... Txarapea, datorren urtean are hobe!

Euskararen defentsan

RICARDO GUIASADO-BALANZATEGUI
OÑATI

1697ko urriaren 29an, Santiago Balanzateguiren heriotza ikertzen hasi ziren Berezaon (Oñati). Santiago hilda agertu zen San Jorge ermitaren ondoan, egoera bitxian. Orduko alkate Miguel Ignacio de Picabearen aginduz, Juan Antonio de Garayk hainbat lekuko deklaratzera deitu zituen; besteak beste,

Santiagoren emaztea, Mariana de Ygartua eta haren 12 urteko semea, Santiago.

Ikerketa horren testua Oñatiko Udal Artxiboan dago, eta, garaiko guztiak bezala, gaztelaniaz dago.

Oñatiko nire arbasoengandik gehiago jakiteko jakin-minak eraman ninduen testu horretara: hiru dira protagonistak baina, ez bairik gabe, Santiago txikia izan zen deigarriena. Ez dut zalantzarik bere hizkuntza, ia eskusiboki, oñatiar euskara zela, eta nahiko bitxia izango zela berarentzat ikerlari baten aurrean gaztelaniaz idazten zutenaren aurrean deklaratzeko. Ezin izan zuen aitortpena sinatu. Lehenik, seguru asko, analfabetoa zelako, eta, bigarrenik, ezinezkoa zelako hura ulertzea.

Jende askok badaki 1918an Oñatin egin zen Eusko Ikaskuntzaren lehen Kongresuaren inaugurazioan Alfontso XIII.a erregeak hitzaldi bikaina eman zuela, "landu ezazue zuen milaka urteko hizkuntza agurgarria, zuen gurasoengandik jaso zenuten Gizateriaren altxorraren bitxi preziatua, eta zuen seme-alabei legatu behar diezue" esanez. Aitzitik, oso jende gutxi ezagutzen du kongresu hori prestatzeko testuetan, "literatur hizkuntza ofizial bat eta ortografia bateratzea euskara egungo beharretara egokituz" beharrezkoa dela aipamarratzeaz gain,

"euskararen ezagutzaren beharra kargu jakin batzuetan –apaizak, medikuak, notarioak, maisu-maistrak, eta abar– eta euskaraz hitz egiten ez den Euskal Herriko zonaldeak euskalduntzeaz" ere hitz egiten dela.

Aurreko udal hauteskunde kampanian, Oñatin izan ziren lehen aldiz hainbat pertsona, Oñati Gizateriaren Ondare izateko proposamena bultzatzen lagundu zigutenak. Bisitaren ostean, Javier Calvente Baezako alkate ohiak ulertu zuen euskara, inposizioa izatek urrun, Oñatiko hizkuntza naturala zela, eta hautagaitza aurkezteko ezinbesteko elementutzat jo zuen.

Euskararen errealitatearen *in situ* ezagutza hori –behar ez duelako errekonozimendurik ez duena– funtsezkoa da euskararen bultzadaren beharra ulertzeko. Baina euskararen politizazioa eta jabetze politikoa izugarriko akatsa da, eta ondorio kaltegarriak ditu eta izango ditu, gaztelaniarekin duen aurkakotasunak ere izango duen bezala. Gogoratu behar da Koldo Mitxelena "erdara ere hemengoa da" esan zuela.

Adostasun politiko zabala behar da, kontraesana dirudien arren, euskara despolitizatzeke, milaka urteko hizkuntza agurgarri hau, gure arbasoengandik jasotzen dugun Gizateriaren Altxorraren bitxi guztiz preziatua, belaunaldi berrietara osorik hel dadin.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Oñati Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA



Eguaztenean egin zuten Pertsona Nagusien Astearen aurkezpena, Kulturaten. E.A.B.

Aste "erakargarria eta askotarikoa" izango da

Arrasateko Nagusien Kontseiluak antolatuta, Pertsona Nagusien Astea egingo dute irailaren 25etik urriaren 1era. Pertsona Nagusien Nazioarteko Egunaren bueltako egitaraua izango da, laugarrenez egingo dutena, eta eskaintza zabala izango duena

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Pili Iriarte Arrasateko Nagusien Kontseiluko presidentea nabarmendu du "erakargarria eta askotarikoa" izango dela astea, arrasatear guztiaren partekatua gura dutena. "Gainera, programa osatzen duten eragile eta parte-hartzaile gehienak arrasatearrak dira eta horri ere ematen diogu balioa", gehitu du.

Aurkezpena, astelehenean

Irailaren 25ean egingo dute aurkezpen ekitaldia, Kulturaten, Jokin Etxebarriak aurkeztuta. 17:30ean hasiko dute eta, lehenik, Abaroa abesbatzaren emanaldia egingo da. Gero, Imanol Kerejetak *Acumular experiencia* hitzaldia egingo du eta, ostean, Arrasate Musikaleko beteranoen emanaldia izango da. Azkenik, kontseiluak prestatu duen bideo bat proiektatuko dute.

Arrasate Zientzia Elkartearen eskutik, bestalde, Arrasateko leku enblematikoak ezagutzeko ibilaldia egingo dute martitzenean, 10:00etan Biteri plazatik abiatuta. Arratsaldean, berriz, Iñaki Peña medikuak *La etica de los cuidados* hitzaldia egingo du Kulturateko areto nagusian, 17:00etan hasita.

Eguaztenean, ardo eta urdaiazpiko dastaketa egingo dute Bas-

tida akademiako Sartei tabernan, 12:30ean. Parte hartzeko, tiketa eskuratu beharko da, 10 euroren truke. 17:30ean, Kaittin Allendek bakarriketa saioa egingo du Juan Arzamendi Musika Etxean.

Eguen goizean, Sasoibidek antolatuta, lagunarteko bi ibilaldi egiteko aukera egongo da. "Bata erdigunean izango da eta bestea Salturri baserri inguruan. Arrasateko zaharretakoa omen da eta elementu arkitektoniko gotikoak ere baditu", dio Margari Gorrotxategi Sasoibideko kideak. Biak ala biak, 10:00etan Biteri plazatik abiatuko dituzte.

Bibliotekarekin lankidetzan

Udal Bibliotekaren eskutik, halaber, Javier Sanchez arrasatearrak *Alimentos ultraprocesados* liburua aurkeztuko du Kulturaten, eguenean, 17:30ean. "CSI-Ceko zientzialaria da bera eta, gaur egun, irakaslea da Sevillako Pablo de Olavide unibertsitatean", azaldu du Asun Agirriak, Udal Bibliotekako zuzen-

URRIAREN 1EAN, DOMEKA, IZANGO DA PERTSONA NAGUSIEN NAZIOARTEKO EGUNA; ASTEKO EGUN HANDIA

dariak. "Gaia interes handikoa dela uste dugu, ikusteko zenbat litxarrerria eta azukre kontsumitzen dugun eta horrek osasunean daukan eragina. Beraz, hitzaldi interesgarria eta entretenigarria izango da", gaineratu du. Hitzaldiaz gain, tailer bat ere egingo du Sanchezek.

Guatekea eta mariatxiak ere bai Egubakoitzean, Iturbideko egoiliarrekin paseoa egingo dute, 11:00etan hasita, Arizmendi Ikastolak eta Sasoibidek antolatuta. Egubakoitz arratsaldea girotzeko, bestalde, guatekea egingo da Biteri plazan, 18:30ean.

Zapatuan, ipar martxa egingo dute Arrasatek Elorregira arte, 10:00etan Biteri plazatik abiatuta eta arratsaldean, berriz, mariatxiez gozatzeko aukera egongo da, Duo Imperial taldearen eskutik, 19:00etan, Seber Altuben.

Egun nagusia: domeka

Pertsona Nagusien Nazioarteko Egunean, urriaren 1ean, manifestua irakurriko dute Herriko Plazan, 12:00etan. Era berean, Orioko *parrillero*-ek hegaluze pintxoak prestatuko dituzte eta Joselu Anaiaken dantzaldia ere egingo da. "Dantzan borobildu gura dugu astea, umore onean", azpimarratu du Iriartek.



E.A.B.

Eskolara oinez aste osoan

Europako Mugikortasun Iraunkorraren Astearen baitan, urtero moduan, Eskolara Oinez ekimena gauzatu dute aste osoan Arrasate Herri Eskolan, Udalako Ingurumen Eskolak sustatuta, mugikortasun eredia iraultzea helburu hartuta. 45 bat ikaslek eman dute izena eta bi taldetan banatuta joan dira oinez eskolara: batzuk erdigunetik eta beste batzuk, San Andres auzotik.

GORA ETA BEHERA



Juan Arzamendi Musika Etxeko beroa

Hainbat herritar kexatu dira auditorioan bero handia egiten duela-eta. Baskery taldeko musikariek aipatu zuten. Udalak dio aire girotuak matxura duela eta konponketak luze joko duela.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo [688 69 00 07](tel:688690007).

Emakume Txokoak eguenean abiatuko du udazkeneko egitaraua

Nik sinisten dizut irakurraldi feministako bigarren edizioaren bideoa proiektatuko dute lehenik, 18:30ean hasita. Ostean, Yaima Orozco kantautore kubatarrek kontzertua egingo du. "Bere belaunaldiko kantautore kubatar nabarmenetako bat da. Haren lana trobadore tradizioak elikatzen du, azpimarratuz generoaren alderdirik herrikoiena be-

reziki. Konposizioetan guajira, bolero eta habanera erritmoak darabiltza, baina tangoa, folklore latino-amerikarra, bossanova, eta rock eta jazz apur bat ere bai. La Trovuntivitis kantautoreen taldeko kidea da", diote Emakume Txokotik.

Modu horretan, emakumeen ahotsak protagonista izango dira irailaren 28an Emakume Txokoan. "Oholtza hartuko dute, eta nagusi izango dira emakumeon ahalduntzerako hitzak eta doinuak", azpimarratu dute.

Ekimen parlamentario bat "egia osoa jakiteko"

Euskal Herriko diputatu hautetsiei ekimen parlamentario bat sustatzeko dei egin die Intxorta 1937 Kultur Elkartek, 36ko gerran desagertutako pertsonen dokumentazioa Memoria Historikoaren Dokumentazio Zentrora eroan dezaten, "senideei bidaltzeko"

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Intxorta 1937 Kultur Elkartek egia eskatzen jarraitzen du 1936ko gerran gertatutakoari buruz. "87 urte igaro dira gure aita-jau-amandreak, pertsona zibilak zirenak, hil zituztenetik. Desagertuta jarraitzen dute. Ez dakigu egia osoa. Haien salatazaileek eta hiltzaileek ez zuten eskatu inoiz barkamenik. Eta Justiziak jarraitzen du beste albo batera begiratzen", diote.

Hala, Euskal Herriko diputatu hautetsiei ekimen parlamentarioa sustatzeko dei egin die, "dokumentazioa eroan dezaten Memoria Historikoaren Dokumentazio Zentrora eta leku horretatik dokumentazioaren kopia bat bidal diezaieten pertsona zibil desagertuen senideei".

"Erantzuna ez da nahikoa"

Bestalde, Espainiako Barne Ministerioak erantzun ofiziala eta dokumentatua eman dio, lehenengoz, Arrasatetik desagertutako pertsonen hiru bilobek egindako eskaerari (Ikus eskuinteko zatidura). Honako hau dio erantzunak: "Guardia Zibilak atxilotu zituen. (Arrasaten agintari zibil eta militar nagusiak ziren Jesus Gorosabel Mendia alkatea eta Rafael Latorre Roca teniente koronela). Gobernadore zibilaren (José María Arellano Igea) esku jarri zituzten, eta hark Ondarretako espetxera eroan zituen, egun batzuk geroago plazako epaile militarren (Ramiro Llamas del Toro komandantea) esku jartzeko".

Intxortakoentzat, ordea, erantzuna ez da nahikoa. "Ez digute esaten zer gertatu zitzaizen gero; baina badakigu inoiz ez zirela itzuli Arrasatera". Era berean, "gabezia demokratikoa" salatu dute. "87 urte igaro eta gero gure senideen dokumentazioa ez egotea artxibo zibiletan eta Guardia Zibilaren artxiboetan jarraitzea gabezia demokratiko hutsa da.



laz Arizmendiarrrieta plazan egindako lore eskaintza. GOIENA

Horrek ez ditu errespetatzen pertsona desagertuei buruzko nazioarteko eskubideak".

Lore eskaintza martitzenean

Urtero moduan, 1936ko gerran hildakoei lore eskaintza egingo

diote Arizmendiarrrieta plazako monolitoan, irailaren 26an, 18:30ean. Ondoren, 19:00etan, *Britainia Handian babestu ziren Gernikako haurrak* dokumentala proiektatuko dute Juan Arzamendi Musika Etxean.



Florentia Olazagoitia, Gregorio Sampedro eta Jose Antonio Urionabarrenetxea.

Lehenengo erantzun ofiziala

Espainiako Barne Ministerioak erantzun ofiziala eman dio, lehenengoz, Arrasatetik desagertutako pertsonen hiru bilobek egindako eskaerari: Gregorio Sampedro Azpiazu, Jose Antonio Urionabarrenetxea Isasmendi eta Florentia Olazagoitia Cegiaga.

Auzoko egitasmoan parte hartzeko dei egin diete herritarrei

Arrasateko Udalak eta Ekin Emakumeak Elkartek martxan dute Auzokoren ikasturte berria. Herritarrak, aniztasuna eta euskara oinarri dituen egitasmoa da Auzoko eta helburu nagusia da euskal hiztunen laguntzarekin, herrira iritsi berriek edota euskaratik urrun bizi direnek euskarara gerturatzeko lehen pausoak ematea. "Horretarako,

gure herriko hizkuntza aniztasuna ezagutarazi eta jatorri ezberdinetako herritarrak harremanetan jartzen ditu proiektuak", diote Ekinetik. Eguenetan elkartuko da taldea, ordu eta erdiz, hainbat ekintzaren bidez, euskarazko oinarrizko hitzak ikasi eta elkar ezagutzeko. Urriaren 19an hasiko dira elkartzen eta herritarrei dei egin diete parte hartzeko, "guztiok garelako beharrezkoak herriko komunikazio eta kohesio hizkuntza euskara izateko".

Datorren asteburuan ospatuko dituzte Garagartzako jaiak

Irailaren 29tik urriaren 1era ospatuko dituzte sanmigelak Garagartza auzoan eta, urtero moduan, ekintzaz beteriko egitaraua prestatu dute. Egubakoitzeko produktu izarra buzkantza izango da, ezinbestean, eta, afa-lostean, Buzkantza Rock jaialdiaren bederatzigarren edizioa egingo dute, 22:00etan hasita. Buzkantzaren biharamunari

aurre egiteko, dianarekin abiatuko dute zapatua, 11:00etan. Ostean askotariko ekintzek bete dute eguna: puzgarriak, kartak, artile mozketak erakustaldia, paella jana, jolasak Zabolaingo zaldi eta poniekin, DJ Goikoren musika emanaldia, lamiaren etorrera eta abar. Halaber, domekan ere beste hainbat gauza egongo dira San Migel jaiak borobiltzeko: umeentzako jolasak eta buruhandiak, meza nagusia, euskal dantzak eta luntxa (Ikus *Goiena.eus*).

Dantzan ikasi nahi?

PLAZAKO DANTZA TRADIZIONALA

MUGI GORPUTZA - MUGI BURUA
MUGI ANIMOA - MUGI OSASUNA

URRIA - MAIATZA astelehenetan
Hasiera: urriak 2
Oinarrizko maila eta dantza-txokoa

IZENA EMATEA
• Portaloi elkarte: 623 16 59 16 / portaloielkatea@gmail.com

Antolatzailea: Portaloi elkarte
Laguntzaileak: Arrasateko Udal (Departamentu de Ekonomia)

Itxura berriarekin hasi du ikasturtea gaztelekuak

Duela urtebete ireki zuten gazteleku berria, tren geltoki zaharrean, eta apurka-apurka ari da itxuraldatzen; joan den asteburuan abiatu zuten 2023-2024 ikasturtea eta 12 eta 17 urte arteko arrasatearrei deialdi berezia egin diete Txatxilipurdiko hezitzaileek

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Espazioa nerabeendako den heinean, haien berbak eta nahiak kontutan hartzen dituzte hezitzaileek, bai espazioaren antolaketari dagokionez, baita egiten dituzten ekintzei dagokienez ere. Hala, batetik, mural bat egin dute. "Hasieran, paretak guztiak zuri zeuden. Zuritasun horrek hoztasuna transmititu dezake agian eta, beraz, mural bat egin genuen", azaldu du Leire Aranzabalek, gaztetxoko zerbizuko koordinatzaileak. Gaineratu duenez, gainontzeko paretak apaintzen ere hasiko dira laster, datozen erabiltzaileen arabera, aldatzen baitoaz. "Dagoeneko baditugu ideia batzuk beste mural batzuk egiteko ere".



Gazteleku berria atontzen dihardute. Mural bat ere egin dute. TXATXILIPURDI

Erabiltzaile berriak gura dituzte Kokapena berria denez, gazteak erakarri eta zerbitzua berriro aktibatzen aritu dira orain arte, Aranzabalek dioenez. "Halaber, espazioa atontzen ari gara oraindik: behean, agertokia muntatu dugu; koltxoak jarri eta goxo egoteko espazioak egokitu ditugu; gela mugitua jarri dugu; goian, murala egin dugu eta sormenerako espazio bat egokitu dugu, baita mahai-jolasetan aritzeko txokoa ere. Azkenik, sukalde txiki bat ere egin dugu".

12 eta 17 urte arteko gazteei zuzendutako zerbitzua da eta joan den asteburuan ireki zituen ateak. "Iazko erabiltzaileak etorri ziren, baina erronka da erabiltzaile berriak erakartzea. Hori dela eta, arrasatear gazteei deialdi berezia egin diete: "Gerturatu zaitezte eta ezagutu gaztelekua. Amesteko eta sortzeko espazio bat da, zuen nahiak egikaritzeko bidelagun izango gaituzue".

Egubakoitzetan, 18:00etatik 21:00etara eskaintzen du zerbitzua; zapatu eta domeketan, 17:00etatik 21:00etara.

Astean zehar, gaztetxokoak Astean zehar, Musakolako, San Andreseko eta Erguingo gaztetxokoek ematen diete zerbitzua 12 eta 17 urte arteko nerabeei, martitzenetik egubakoitzera, 17:00etatik 20:00etara. Horiek ere, gaztelekua moduan, espazio hezitzaileak dira. "Helburu nagusietako bat da erabiltzaileak aske sentitzea eta espazio seguru batzuk sortzea", azaldu du Aranzabalek. Hala, hezitzaileek gaiak proposatzen dituzten arren, erabiltzaileen beharretara egokitzen dute eskaintza.



NIRE USTEZ

AITZOL ILLARRAMENDI

Sokrates eta euskara

Antzinako Greziako filosofo honek zioenez, gizon ezjakinak ezin zuen zuzen jokatu, ongia ezagutzen ez zuelako. *Areté* edo bertutea jakintzarekin lotuta zegoen eta irakats zitekeen zerbait zen. Zekienak era zuzen batean jokatuko zuen, ezinbestean.

Hainbat urtetan euskaltzale batzuk ere hala uste izan dugu eta hezkuntzan ipini dugu geure fede eta indarra. Urtetako debeku eta zapalkuntzaren ondoren, egun eskolak euskara ikasteko leku aproposak dira eta hara bidali ditugu haurrak, D eredura, ikasi eta euskaraz egingo dutelakoan, ezinbestean.

Denborak, baina, bestela erakutsi digu. Eskolak eta ezagutzak ez dira nahikoa izaten ari euskarak eguneroko bizitzan lekua bereganatu dezan. Kaleak, parkeak... euskara jakin baina erabiltzen ez dutenez bete ditugu. Zer behar da orain, eskola eta ikastoletan ikasitakoa, praktikan jar dezaten? Ez al genuke, behintzat, eredu izaten saiatu behar?

Ezer ez zekiela, besterik ez omen zekien Sokratesek. Guk ere askoz gehiago jakin ez arren, hobe zerbait asmatu, bestela euskarak jai du eta!



GOIENA

Bidea berreskuratzeko eskaera

Mandoain-Tokialai bide publikoa konpondu eta erabilgarri jartzea eskatu dute hainbat herritarrek. "Foru Aldundiak eta Arrasateko Udalak Olandixoko tunela egin zutenean, tunelaren hegoalde parte moztuta utzi zuten eta berdin jarraitzen du. Ondo dago azpiegitura berriak egitea, baina Kode Zibilak esaten du bide publikoak mantendu behar direla", nabarmendu dute.

OHARRAK

1957an jaiotako bazkaria urriaren 21ean

Parte hartzeko interesa daukatenek 75 euroko ordainketa egin beharko dute, urriaren 19a baino lehen, Laboral Kutxako ES58 3035 0047 10 0471085571 kontuan. Azalpenean, izen eta abizenak jarri beharko dira.

1964an jaiotako bazkaria azaroaren 18an

Gesalibar auzoko Zabolain sagardotegian bazkalduko dute. 70 euroko ordainketa egin beharko da, azaroaren 3a baino lehen, Kutxabankeko 2095 5055 50 9113880736 kontuan.

Etxetxikiak kaleko horma konpontzen

Lanak hilabete bukaeran bukatzea aurreikusten dute.

Ate irekien jardunaldiak ludoteketan

Okendo, Santamaña eta Usaetxeko ludotekak astelehenetik egubakoitzera eskaintzen diete zerbitzua 3 eta 11 urte artekoak, 17:00etatik 20:00etara. Hilaren 29ra arte, zerbitzua doan probatzeko aukera egongo da eta urriaren 2an irekiko dute izen-ematea. Urte osoko prezioa 30 eurokoa da eta hiruhileko batekoa, 10 eurokoa.



Haurrak, Okendoko ludotekako ate irekien jardunaldian, eguaztenean. E.A.B.

Euskal Kopako finalera sailkatzea dute jokoan

SASKIBALOIA Mondragon Unibertsitateko neskek Easoren kontra jokatuko dute domekan (18:00, Iturripe) Euskal Kopako kanporaketa partidua. Joan den asteko garaipenak hauspotuta, arrasatearrek Lauko Finalera sailkatu nahi dute

Xabier Urtzelai Atxa ARRASATE
Bigarren astez jarraian MUko nazional mailako neskek etxean jokatuko dute domekan. Joan den astean Iñaki Ogararen neskek Lointek Gernika kanpoan utzi zuten (63-33), eta orain Easo talde donostiarra dute begiz jota. "Ez da kontrario batere erraza izango, horiek IDKrekin hitzarmena dute, eta modu sinplean esanda, euren bigarren taldea da. Oso talde sendoa da, baina Euskal Kopan ilusioarekin gabiltza, eta txapelketa honetan aurrera egin nahi dugu, urriaren 12an jokatuko duten Lauko Finaleran egon nahi dugu. Gainera,

asteburuko kanporaketa puntu diferentzia handienarekin gaitzen duenak aukera izango du Lauko Finala bere etxean antolatzeko".

Senior mailan beste talde bat
Aurtengo denboraldira begira berritasunetako bat da Ointxe!-k bigarren talde bat izango duela emakumezkoen senior mailan. "Uste dugu hutsune garrantzitsua beteko dugula talde horrekin. Kontua da maila nazionala oso zorrotza dela, esfortzua eskatzen du jokalariairentzat, astean lau entrenamendu egiten ditugulako, partiduak jokatuz urrun

joaten garelako, egia da kategoria gogorra dela... Eta, gertatzen zaiguna da, jokalaria batzuk unibertsitateko joaten direnean ezin diotela eutsi exijentzia maila horri, erre egiten dira, normala den moduan. Hori horrela, senior mailako bigarren taldeak aukera emango die saskibaloian jarraitzeko". Izan ere, bigarren talde horretan zorrotzasun maila ez da horren handia izango. "Entrenamenduak astean hiru egun egingo ditugu, partiduak ere lurralde barruan jokatuko ditugu... Bigarren talde hori ere serio ibiliko da, baina bai, maila nazionalekoarekin alderatuta beste erritmo bat izango du".

Horrekin batera, Arrik azpimarratu du junior mailako jokalariairekin maila nazionalera zuzen joan beharrean tarteko kategoriatan izango dutela zailtzeko. "Konturatu ginen 12 jokalaria inguruko taldea geneukala eta, hori horrela, bigarren taldearen aldeko apustua egin dugu".

Lehenengo taldea, kanporatuta
Gizonezkoen MU, berriz, Getxok kanporatu zuen domekan Euskal Kopatik, eta asteburuan lagunarteko batekin jarraituko dute denboraldi-aurrea prestatzen. "Egia da arlo fisikoan oraindik taldea ez dagoela %100,



Barakaldoko taldearen kontrako partiduko irudia, iazko denboraldian. GOIENA

ART harrobiko taldeek Elorriorekin egin dute hitzarmena

Arrasateko Rugby Taldeko 16 eta 18 urtez azpikoek Elorriorekin partekatuko dute taldea aurtengo denboraldian, eta joan den zapatuan jokatu zituzten lagunarteko lehenengo partiduak. Biek hala biek Gernika izan zuten kontrario, Mojategin. Taldekide berriak elkarren artean hobeto ezagutzeko baliagarria izan zen lagunartekoa. 16 urtez

azpikoek amore eman behar izan zuten, gernikarrak gehiago izan ziren-eta (5-43). Errebatxa, berriz, 18 urtez azpiko taldeak hartu zuen, horiek jaun eta jabe izan ziren berdegunean (24-7).

16 eta 18 urtez azpikoek bezala, senior mailako emakumezkoen taldeak ere taldea partekatuko du aurtengoan. Iazko esperientzia positiboaren ostean, Erik Cuevasen eta Asier Delgadoren nesken bidelagunak berriro ere Eibarko neskek izango dira. Hobetzen jarraitzea da helburua.

Walking football-eko hirugarren denboraldia abian

Realeko fundazioko ekimen honen helburua da Gipuzkoako 55 urtetik gorako pertsonen artean bizimodu aktibo eta osasungarria sustatzea, adinera egokitutako futbolaren bidez. Mojategiko entrenamendu saioak eguaztinetan egingo dituzte (11:00-12:30). Informazio gehiago: 943 46 28 33 edo fundazioa@fundazioa.realsociedad.eus.

Atsekabea Ivanen heriotzagatik

Martitzena egun tristea izan zen Ointxe! familian, 2014 eta 2017 urte artean talde nagusiko jokalaria izan zen Ivan Saez de Cortazar gasteiztarra auto istripuan hil zelako Amurrión. 32 urteko gasteiztarra Durangoko Tabirako taldean zebilen jokatzen gaur egun. Iñaki Ogara *Arri-k* ez zuen Ointxe!-n harekin bat egin, Josu Larreategi zen MUko orduko entrenatzailea, baina aspaldiko lagunak ziren *Arri* eta Saez de Cortazar, biak gasteiztarrek izanda bai Arabako federazioan eta baita Araberrin ere bat egin zutelako. "Iaz Iturripen euren kontra jokatu genuen EBA mailan eta aipatu zidan haur txiki batekin saskibaloia uzteko asmotan zebilela. Oso tipo berezia zen Ivan, erraza zen hura maitatzea, sekulako kolpea hartu dugu denok".

Baskoniako harrobiko jokalaria izan zenak hiru urte egin zituen Arrasaten, eta taldekide izan zituen, besteak beste, Balanzategi, Arejolaleiba anaiak, Barrena, Kintana, Lorenzo, Atxa anaiak, Zeziaga, Barberena, Aranzabal, Barbero, Ugarteburu eta Isasa.

Bada, Arrasateko kluba aste barruan Saez de Cortazarren aldeko dolu mezueta batu da. "Ointxe! familiarendako dolu eguna da. Gure jokalaria eta lagun Ivan Saez de Cortazar maiteak utzi egin gaitu. Arrasto handia utzi zuen taldekideen, entrenatzaileen eta gure familia osoaren artean. Zure gantxoak beti egongo dira gure artean".



Ivan Saez de Cortazar. GOIENA

eta hainbat jokalaria ere lesionatuta daudela, tartean Aitor Carrera eta Miguel Zamora. Ez du aitzakia moduan balio, baina partidu txarra izan zen, beste barik. Pentsa, hirukoetan

41 jaurtiketa egin zituzten eta 3 bakarrik asmatu, eta ez jaurtiketa txarrak izan zirelako, baina... Horrek frustrazioa sortu zuen jokalariairengan".

Baina partiduak izan zituen beste gauza positibo batzuk ere, besteak beste, jokalaria gazteen aldeko apustua egin zuela Julen Berrocal entrenatzaileak. "Pentsa, kadete mailako jokalaria den Oier Indak minutuak izan zituen, eta hori positiboa da".

MU-KO NESKEK EASOREN KONTRA JOKATUKO DUTE DOMEKAN ITURRIPEAN, 18:00ETAN

Isidor Caballero Tor des Geants-eko helmugan, 131 ordu geroago

Irailaren 10etik 17ra bitartean egin dute, Italiako Aosta bailaran, ultra distantziako Tor des Geants izeneko mendi lasterketa. Eta, Arrasateko Isidor Caballerok lasterketa amaitzea lortu du (330 kilometro eta 24.000 metrotako desnibel positiboa) 131 orduko lana egin eta gero. Caballerok iaz Montblanc-eko ultra egin zuen.



TOR DES GEANTS



Iskanbilaren disko berria grabatu duten Jonny, Gotzon, Jabo, Iban eta Lapo. ISKANBILA

Argitaratu bako abestiez iskanbila osatuko dute

Arrasateko Iskanbila punk oi! musika taldearen itzulera ez da kontzertu batzuetara mugatu, irailean estudioan sartu dira-eta. Duela 25 urte grabatu gabe geratu ziren abestiak erreperatu nahi izan dituzte *Bizimodu baten historia* lanean

Xabier Urzelai Atxa ARRASATE

Iskanbila taldearen itzulera osterarene oholtzara igo eta kontzertu apur batzuk emateko baino gehiagorako izan da. Irailean bi asteburutan disko berria grabatzen egon izanak erakusten du hori. *Bizimodu baten historia* izeneko lana Durangoko azokarako gertu izan nahi dute, Xabi Lasagabaster *Lapo*-k aitortu moduan: "Plataforma digitaletan zintzilikatuko dugu diskoa, eta CD apur batzuk aterako baditugu ere asmoa da biniloak ateratzea, gaur egun arrakasta handiagoa dute".

Bederatzi abestiko diskoa

Arrasatearrak gustura geratu dira bederatzi abestiz osatutako lana grabatuta, eta batek baino gehiagok arnasa hartuko zuen, aspalde egin nahi zuten proiektua zelako. Hain zuzen, duela 25 urte *Jai... ta hil* diskoa grabatu zutenean kanpoan geratu ziren abestiekin osatu dute diskoa. "Disko hau grabatzea izan

da Iskanbila itzuli izanaren motibo nagusia. Urtero ibiltzen ginen kontu berberari bueltak ematen, pena zela abesti haiek grabatu ez izana eta berandu baino lehen grabatu behar ginituela, behingoagatik jasota geratu behar zirela", dio *Lapo*-k.

Hala, lehenengo kontzertu batzuk ematea erabaki zuten, gaur egun disko bat grabatzeko dirua aurreratu behar delako. "Gauzak aldatu egin dira urte hauetan, lehen diskoa grabatzeagatik ez zenuen ordaintzen, diskoetxearekin egindako tratua zegoen tartean, baina gaur egun ez dago halakorik. Hala, diru apur bat batzeko kontzertu batzuk eman genituen uda aurretik, eta irailerako eta urriarako

'BIZIMODU BATEN HISTORIA' LANA ARGITARATUKO DU ISKANBILAK URRI AMAIERARAKO

ere hasi zaigu emanaldiekin agenda betetzen".

Estudioan, gustura

Arrasatekoak gustura ibili dira estudioan. "Oraindik ez dugu emaitza ikusi, orain nahasketak eta halakoak egitea falta da, baina emaitzarekin gustura geratu gara. Oso eroso egon gara, Iruñeko Sounds of Sirens estudioko lagunekin grabatu dugu, eta ederto hartu gaituzte", dio *Lapo*-k. Lanak, berriz, Tae Records-en zigilua izango du. Bada, *Lapo*-k dio segituan antzematen dela Iskanbilaren lan bat dela. "Igartzen da gitarra gehiago nabarmentzen dela, *Pistolo* -Jon Lasagabaster- dagoela atzean; aberatsagoa da zentzu horretan".

Ltrei dagokienez, sarritan arriskutsua izaten da duela 25 urte idatzitako abestiak grabatzea, "Baina ez dira zaharkituta geratu. Gure artean ere egin dugu horretaz berba, zorionez edo zoritxarrez, ematen du gaur egun idatzitakoak direla".

"Badut euskara eta gaztelania nahasteagatik barne borroka"

ANIXE ABESLARIA

Hiriko Soinuak lehiaketako finalean izango da bihar

X.U. ARRASATE

Anixe Urribarren (Arrasate, 1996) Barakaldoko Hiriko Soinuak lehiaketako finalera sailkatu da, Berdintasun Sariak atalean. 20 minutuko emanaldia egingo du bihar, Oihan Urribarren anaia -Fane- eta DJ Urbek -Ur Bruña- lagunduta.

Nondik nora iritsi zara Hiriko Soinuak-eko finalera?

Amak esan zidan Gaztean lehiaketaren berri ematen ari zirela. Aurretik grabatutako bi abesti eskatzen zituzten, eta nireak aurkeztea erabaki nuen. Ezustekoa izan da Berdintasun sariaren atalean finalera iristea, jende asko aurkeztu delako.

Noiztik abeslari?

Gogoan dut 18 urte ingururekin zerbaitetan hasi nintzela. Audacity deskargatu, *trasteatzen* hasi, bideoak modu anonimozan Youtubera igo... Pandemia ostean, baina, serioago hasi nintzen honekin guztiarekin. Anaia ikusten nuen Etxepe proiektuan esku hartzen eta ni ere animatu egin nintzen. Soinu txartel bat erosi, autotuneak ematen zituen aukerak ikusi... Inoiz ez dut kantuko eskolarik jaso eta nire kabuz hasi nintzen...

Eta bi kantu grabatu dituzu dagoeneko.

Azkena abuztuan grabatu nuen. Denso-k esan zidan estudioa joateko eta zerotik hasiko gine-la zerbait sortzen, eta hor hasi ginen *O de Tualet* abestiko oinarriarekin lanean. Anaia ere animatu zen grabaketan esku



Anixe, emanaldi batean. PEIO ZAMALLOA

hartzen eta hori da lehiaketara bidali duguna. Pozik geratu naiz emaitzarekin.

Urban edo kaleko musika, afrobeat-a eta reggaeton-a fusionatzen dituzu. Eta abestietan euskara eta erdara nahasten dituzu. Hori geroago eta ohikoagoa da zuen musika estiloan.

O de Tualet abestian modu organikoan atera zait horrela, kontziente izan barik. Ez pentsa, niri ere ematen dit zer pentsatua, gaztetatik euskaraz egin behar dugula esan digutelako, baina niri bi hizkuntzak nahastea natural ateratzen zait. Norbaiti kritikagarria iruditzen bazaio, bada onartuko ditugu kritikak.

Ze asmo biharko?

Ondo pasatzera noa, ikastera, eta taula gainean esperientzia hartzen jarraitzera, hasiberria naizelako. Gainera, besteen emanaldiak ikustea ere beti izaten da inspirazio iturri.

Dantza tradizionalen ikastaroan eman daiteke izena jada

Dantzari ikasi nahi duten herritarrei zuzenduta, zabalik dago Plazako dantza tradizionalen ikastaroko izenematea.

Mugi gorputza, mugi burua, mugi animoa, mugi osasuna lelopean, Portalioia elkarteak urriaren 2an hasiko dituzte oinarriko mailako eskolak, eta horrekin batera, dantza txokoa ere zabalduko dute. Aurten,

hastapeneko edo oinarriko mailan ondoko dantzak irakatsiko dizkie ikastaroan parte hartuko dutenei: Jauziak, Axuri beltza, Zuberoako bralea, Kontradantzak eta Baztango eta Lantzeko zortzikoa.

Dantza ikastaroak astelehenean emango dituzte, sei hilabetez -urritik maiatza bitartean-. Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko deitu 623 16 59 16 telefono zenbakira, edo idatzi mezua portaloielkartea@gmail.com helbidera.

Kontzientzia hartu eta mobilizatzea helburu

Jaurlaritzak antolatzen duen Asteklima ekimenarekin bat egin du Aramaioko Udalak. Hiru ekitaldi antolatu dituzte; horietako bat gaur izango da. Hernaniko alkateak 'Hernani burujabe' proiektua aurkeztuko du udaletxeko pleno aretoan, 18:00etan

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Klima eta Energiaren astea egingo da EAEn irailaren 22tik urriaren 1era bitartean, *Asteklima* izenarekin; bada, Aramaioko Udalak ere bat egin du ekimenarekin eta hainbat ekintza antolatu ditu hurrengo egunetarako. Jaurlaritzako Ekonomia Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailak bultzatutako ekimenak herritarrek beharrezko trantsizio energetikoaren eta klimatikoaren aurrean kontzientziatzea eta mobilizatzea du helburu.

Hernaniko proiektua

"Gizarteak bizi duen energia eta klima krisiaren aurrean herritarrek kontzientzia hartzea nahi dugu", dio Gorbeialdeko Kuadrillako Ingurumen teknikari den Jon Toñak. Hala, 2019az geroztik Jaurlaritzak antolatzen duen ekimenarekin bat egin du Udalak. "Hiru ekintza antolatu ditugu herri mailan: hitzaldia, bizikleta tailerra eta antzerkia", gehitu du Toñak.

Gaur izango da lehenengo ekitaldia, 18:00etan, udaletxeko osoko bilkuren aretoan. *Hernani burujabe* proiektua aurkeztuko du Hernaniko alkate Xabier Lertxundik. "Herri mailan egindako dinamika aurkeztuko du: gaur egungo eredu sozioekonomikoari alternatibak bilatzeko egindako ahalegina", dio Toñak. Jendartea, zaintza, ingurumena, tokiko merkataritza... aztertu dituzte Hernanin eta ahalegin horren fruitua azalduko du. Proiektuaren xedea komunitatearen ongizatea lortzea izan da. Asmoa izango da solasaldia egi-tea hitzaldira joango diren herritarrekin: "Bidean izan dituzten zailtasunak azaldu eta han landutakoa Aramaioko errealtatera nola ekar daitezkeen aztertuko dute". Bizikleta tailerra eta antzerkia datorren astean izango dira.



Aramaioko Nardeaga kalea martitzen arratsaldean. A.E.G.

'Gorbeialdean behin' lehiaketa

Gorbeialdeko Kuadrillak sare sozialen bidezko online lehiaketa antolatu du. Irailaren 25etik 30era bitartean izango da. Parte hartzeko @gorbeialdea jarraitu behar da Instagram, Facebook, X (lehen, Twitter) edo Whatsapp sare sozialetan. Aipatutako egunetan, egunero, galdetegi bat partekatuko dute sare sozialen bidez; galdetegiak bi galdera izango ditu, klima eta energiari buruzkoa bat eta Gorbeialdeari buruzkoa bestea. Bada, galderak erantzun besterik ez da egin behar lehiaketan parte hartzeko. Egunero sariak zozkatuko dira: 30 euroko bonua parte-hartzaileen artean eta 60 euroko bonua ondo erantzun dutenen artean. Bonu horiek Gorbeialdeko komertzioetan erabiltzeko izango dira.

IV. Asteklima

Klimaren eta Energiaren Astea.

Jarduerak

- **Irailaren 28an** Bizikleta tailerra egingo dute Bizente Goikoetxea plazan, 17:30ean. Gasteizko Vibike komertzio teknikariak arduratuko dira tailerraz. Bizikleten oinarrizko mantentze lanak eta bigarren eskuko azoka egingo dute –bizikleta egoera onean salerosten dela bermatuko da–. Nork bere bizikleta eramateko aukera egongo da tailerra egiteko.
- **Irailaren 29an** *Organic* antzerkia, eskolan izango da eskolako ikasleendako, 14:00etan. Modu dibertigarri batean, natura zaintzearen beharra erakutsiko diete ikasleei.

Dena prest dute domekan Sagardo Eguna ospatzeko

12:30ean izango da Txotx irekiera; Aramaioko etxeetan egindako sagardoa dastatzeko aukera egongo da

A.E.G. ARAMAIO

Tradizio handia duen ospakizuna da Aramaion Sagardo Eguna. Urteetan Txirritolak antolatu izan du; eta, azkeneko urteetan Udalak berreskuratu du horren ardura. Bada, domekan, irailaren 24an egingo dute 2023ko Sagardo Eguna. Aramaioko barrietan eta etxeetan egindako sagardoa dastatzeko aukera egongo da. Edalontzia erosi besterik ez da egin behar; edalontziarekin edozein sagardo dastatzeko aukera egongo da. Horrez gain, plazan bertan zukua egingo

du ere egongo da. Jatekoa ere salduko dute: Lagun Artean dantza taldekoek taloak egingo dituzte.

Eguna 12:30ean hasiko dute Aramagelu fanfarreak egingo duen kalejirarekin. Ordu berean Txotx irekiera egingo dute herriko plazan. Ondoren Lagun Artean dantza taldeko gaztetxoek Sagar dantza egingo dute.

Aramaioko Sagarzaien Elkar-teak –ASE– zabalik du Mendioxolako zentroa: txandak 644 93 46 03 zenbakian eska daitezke.

Kantu tailerra eta euskara ikastaroa, erretiratuen eskutik

Ikasturte berriko ikastaroak prest dituzte Alaiak erretiratuen elkartean. Alaiak kantuan tailerra irailaren 29an hasiko dute: 10:00etatik 11:30era izango da, eta 29 saio egingo dituzte guztira, ekainera bitartean. Taldean parte hartu nahi duenak erretiratuen elkartean eman dezake izena, edo irailaren 29an musika lokalera joan izena ematera.

Gure euskara hobetzen ikastaroa, aldiz, urriaren hasiko dute. Astelehenean izango da, 10:00etatik 12:00etara.

Hil amaieran bestelako ekintza bat ere izango dute erretiratuek: irailaren 30ean elkarteko bazkideen eguna ospatuko dute. Bazkaria egingo dute frontoian.

Sastiña aurrealdea girotuko dute gaur, 19:00etan hasita

Irailako barikuetako musika jaialdiak jarraipena izango du gaur. Hiru talde igoko dira Sastiña agertokira: Orrues, Initari eta Itxaropena. Emanaldia 19:00etan izango da Sastiña ermitaren aurrealdean. Irailako barikuetako jaialdia datorren asteko barikuan amaituko da, Acid Soul taldeak egingo duen kontzertuarekin.

Antzerkia ikasteko aurrematrikulazioa egiteko aukera dago

Debagoieneko antzerki plataformaren eskutik antzerkia ikasteko aukera egongo da Aramaion. Dagoeneko zabaldu dute izen-emate epea, *Dap.eus* atarian. Hiru taldetan banatuko dituzte parte-hartzaileak: haurrak, gazteak eta nagusiak. Ikastaroa eguzten edo eguen arratsaldeetan izango da, zehazteke dute eguna. Haurren kategorian 8 urtetik gorakoak daude, gazteak 12 urtetik gorakoak dira eta helduak 16 urtetik gorakoak. Guztiek izango dute ordu eta laurdeneko klasea. Gainera, ate irekietara joateko aukera egongo da: haurrak, irailaren 28an, 18:15ean; eta, helduak eta gazteak irailaren 28an, 19:30ean.

'Ura Bere Bidean Korala' ekimena izango da bihar

Ura Bere Bidean ekimenaren barruan kontzertu korala egingo dute bihar Buesa Arenan; han izango da Aramaioko Pargorri abesbatza. Kontzertua 19:00etan hasiko da eta Arabako eta Bizkaiko hainbat abesbatzek kantatuko dute. Euskal abesti arrakastatsuen bertsioak abestuko dituzte. Sarrerak *baskonia.koobin.com* atarian, salgai.

Astoaren aitzakian lagunarteko bazkaria

Bost astakumeren okela gertu dute bihar, zapatua, egingo den bazkarirako; laugarrenez antolatu dute eta 200 lagun elkartuko dira Herriko Plazan jarritako mahaien bueltan. Jai giroa izango da nagusi, egun guztian, herriko kaleetan

Mirari Altube ARETXABALETA

Igor Oruesagasti *Elosu* bergararra da asto-janaren arima eta sustatzaileak, haren lagunak. 2018an egin zuten lehen bazkaria astoaren okela dastatzeko gogoz, eta ordutik haziz joan da kontua, ahoz aho zabalduta –2020an ez zuten egin pandemiagatik–: "Bigarrenean 55 bat lagun elkartu ginen Muru Alden; hirugarrenean, 80 inguru, Uratz Alden, eta iaz, Mitarte kalea ia bete egin genuen 140 bat lagunek". Laugarrenerako, 200 herritarrek erosi du txartela eta Herriko Plazan elkartuko dira lehenengoz, kopurua eta aterperako aukera kontuan hartuta: "Ez dakigu zein giro tokatuko zaigun, eta badaezpada, ondo datorkigu aterpea".

Hogei lagun lanean

Bost astakume prestatuko dituzte. Okela atzo eroan zuten Uratz Alde elkartera, Zubillagako hiltegiaren zatitu eta gero. "Handik banatuko diegu elkarre bakoitzeko sukaldariei, gisatua presta dezaten. Eta gainerakoa, hozkailuan gordeko dugu, parrillan jartzeko", dio Oruesagastik. Hogei bat lagunek jardungo du lanean, eta bihar, beste hainbat gerturatuko direla laguntzera adierazi du:

"Ez gara izaten kuadrilla berekoak, ezta elkarre batekoak ere; jende ezberdina elkartzen gaitu astoak".

Hiru eratarata prestatuta

Astakumearen okela oso xamurra dela eman du aditzera: "Zaporeari dagokionez behorren eta txahalaren artekoa da; ez da behorrena bezain gozoa.

Hori bai, probatzen duenak errepikatu gura izaten du".

Hiru eratarata prestatuko dute okela: batetik, gisatua egingo dute herriko hainbat elkartek; bestetik, parrillan erreko dituzte saiheskiak, xerrak eta txuletak; eta aurtengo berrikuntza da okela pikatuarekin prestatutako hanburgesak. "Gisatua da herritarrek gus-



Igor Oruesagasti hainbat astorekin, Bega baserri inguruan. TXOMIN MADINA

Elosun hazitakoak

Elosu auzoko (Begara) Bega baserrian hazitakoak dira bost astakumeak. Zelaian izan dituzte oraintsu arte, eta azken hilabeteetan, barruan egon dira pentsua eta lastoa janez: "Haragiak zapore hobea izan dezan da hori", azaldu du Oruesagastik.



Hainbat herritar bazkaltzen Mitarte kalean, iaz. MIRARI ALTUBE

turen jaten dutena; oso estimatua izaten da", dio eta gaineratu du: "Azpizuna gorde egiten dugu, antolakuntza lanetan jardun dugunok au-

rrerago jateko. Eta hori bai dela zoragarria!".

Gisatua herriko eta inguruko zortzi elkartek prestatuko dute; hona hemen horiek: Muru Alde, Uratz Alde, Urbaltz, Batzokia, Eguzki-Alde, Hiba Gain, Mendiola eta Untzilla. Iaz legez, bazkaltzen hasi aurretik, gisaturik onena hautatuko du epaimahai batek, eta saria jasoko du hori prestatutako sukaldariak.

Jai giroa egun guztian

Trikitilariek girotuko dute goiz parte eta bazkalostea, eta iluntzean, Izenbarekuak txaranga arabarraren doinu dantzagarriek beteko dituzte kaleak.

Eguna borobiltzeko bola-txapelketa jokatu dute bolatokian Aretxabaleta kirol elkartekoek gidatuta, eta txirlo gehien botatuko bostek saria eskuratuko dute. Bolatokia txapelketa baino orduete lehenago irekiko dute eta izena ematerakoan 10 euro ordaindu beharko dira.

Asto-janak hurrengo asteburuan ospatuko diren San Migel jaiei emango die ongietorria.

Antolatutako egitaraua

Zapaturako, irailaren 23rako, antolatutako ekitaldiak.

- **13:00** Txikiteoa, Insausti eta Larrañaga trikitilariak.
- **14:30** Elkarrean arteko gisatu lehiaketaren sari banaketa ekitaldia.
- **15:00** Bazkaria, Herriko Plazan. Bazkalostea girotzeko, trikitilariak.
- **19:00** Kalejira Izenbarekuak txarangarekin.
- **22:30** Bola-txapelketa, bolatokian.



NIRE USTEZ

PALOMA MARTINEZ PEREZ

Xaboi ponpak

Aniztasun kulturala; bogan dauden bi hitz, politik geratzen direnak paperean eta are gehiago gure ahotan, xaboi ponpak bezain koloretsuak eta gardenak. Zoritxarrez, aniztasun kultural hori gorpuzten dutenei aurpegian puskatzen zaizkie ponpa horiek. Horren adibide garbia, hezkuntza. Eskola guztietan aniztasuna kudeatzeko harrera protokoloak daude, noski. Dena dela, ume

eta gazte etorri berri askori oso zaila egiten zaie egokitzapena, eta harrera protokolo polit horiek motz gelditzen zaizkie. Gainera, idatzita dagoena gauza bat da, eta beste bat, pertsonok nola eramaten dugun hori gure egunerokoan; irakasleek ikastetxeetan eta zuk eta biok kaleetan. Izan ere, denok dakigu elkarbizitzarako elkar ezagutzeko, agurtzea, enpatia...

ezinbestekoak direla; dena dela, askotan kostatzen zaigu etorri berriari begietara begiratzea, gu bezain pertsona dela onartzea. Zer esanik ez hutsik dagoen etxea alokatzea, soldata duin bat ematea... Hala eta guztiz ere, zein politik eta jatorrak diren etorkinak beraien herrialdeetan, ezta? Oporretan joaten garenean hor bizi direnak "ze xalauak diren".

Azaroko greba feminista antolatzeko bilera dago gaur

Zaintza sistema publiko eta komunitario baten alde lelopean Euskal Herriko mugimendu feministak azaroaren 30erako deitutako greba prestatzeko bigarren asanblada irekia –ez mistoa– egingo dute gaur, egubakoitza; 18:00etan izango da, udaletxe zaharrean. Informazioa partekatuko dute eta hurrengo pausuak zehaztu.

Kuarteleko sortzaileen lana diskoan batuta

Herriko hamazortzi talderen abestiak eta dantza bat jaso dituzte 'Kuartela' diskoan eta sanmigeletan jarriko dute salgai kamisetarekin batera; izen bereko eraikinean egiten den lana erakutsi gura izan dute horrekin

Mirari Altube ARETXABAETA

Kuartela diskoa argia ikusteko gertu dago. Izen bereko eraikinean elkartzen diren hemeretzi musika eta dantza taldek presatu dute eta hamazortzi abesti eta dantza bat –Youtuben ikus daitekeena– jaso dituzte hor. Sanmigeletan jarriko dute salgai, kamisetarekin batera.

Herriari erakustea helburu

Kuartela elkarteko zuzendaritza batzordeko kide dira Peio Uribebarria, Iker Martinez de Agirre eta Josu Irure eta diskoaren helburua kuartel barruan egiten dena erakustea izan dela diote: "Herriarengana hurbiltzeko tresna aproposa izan zitekeela pentsatu genuen; herriak ikus dezan zeintzuk elkartzen garen bertan eta zer egiten dugun eraikin honen barruan. Era berean, erakundeei ere erakutsi gura diegu ez gaudela lau nota jotzen eta garagardoak edaten; badagoela sorkuntza eta mugimendua. Horrela kontura daitezen eraikinaren aldeko apustua egin behar dela". 2022an egindako asanbladan diskoaren ideiarekin aurrera egitea erabaki zuten eta parte hartzeko gonbidapena egin zieten talde guztiei.

Askotariko estiloak

Gaur egun 25 talde inguru –100 lagun baino gehiago– elkartzen dira kuartelean eta diskoan hemeretzi hartu dute parte: "Gaiteroetatik hasi eta heavy astunerainoko doinuak jaso dira, askotariko estiloak: rock-and-rolla, rantxerak, teknoa... Horrek erakusten du hemen barruan dagoen dibertsitatea eta dugun gaitasuna". Abesti asko kuartelean bertan grabatu dituzte, Asel Errasti aretxabaletarrak duen estudioan: "Norberak aurretik grabatutako kantua aurkez zitekeen diskorako edo bestela bertan grabatu; eta hamar bat



Uribebarria, Martinez de Agirre eta Irure diskoarekin eta kamisetekin. M. ALTUBE

Taldeak eta kantuak

- **Bixentak** *Imbecil man.*
- **Eten** *Zalantzetan.*
- **Iluminatizz** *Zeren bila.*
- **Joe Pieman** *Path of life.*
- **Iñaki Sagasta** *Malkoaren melodia.*
- **Jasan** *Piztiarena.*
- **Criminal Remains** *Iraganeko mamuak.*
- **Zerendepya** *Mugak.*
- **Dear Flakutxo** *Rock king man.*
- **Jaiki** *Herrixan erosi.*
- **Los Del Garaje** *Nubes grises.*
- **Oihu!** *Berreskura ezin.*
- **Screamers and Sinners** *Dancing, fighting, loving.*
- **Nhil** *Itzal izan arte.*
- **Trigger** *Bathirubatbi.*
- **Orei Orei.**
- **Txerrikumeak** *Bide berrien bila.*
- **Wood Strings** *Azkenaldi honetan.*
- **Atxabaltako gaiteruak** *Itzurun.*

grabatu dira hemen. Horregatik, eskerrak eman beharrean gaudelako Asel Errastiri ordu asko sartu dituelako". Diskoaren diseinua ere bertako kideek egin dute Ainhoa Sanchezek eta Beñat Abasolok, hain zuzen ere. "Ahal den guztia geuk egin gura izan dugu; nahastu, masterizatu eta fabrikatu bakarrik egin da kanpoan, horretarako baliabiderik ez dugulako", adierazi dute.

Salgai sanmigeletan

Sanmigeletan jarriko dute salgai: Kaparrak taldearen kontzertuan, kantu-afarian eta azokan izango dira. Diskoa eta kamiseta 20 eurotan salduko dute; diskoa bakarrik 10 eurotan eta kamiseta 15 eurotan. Zapatuko azokan, gainera, Kuartela elkarteko hainbat talderen materiala ere izango dute salgai.

Urrian, oster, Kuartela herrira zabaltzeko ekimenarekin jarraituko dute eta kontzertuak eskainiko dituzte hilaren 14an, 21ean eta 28an, herriko hainbat gunetan. "Hilaren 14an bazkaria egingo dugu eta txartelak domeka honetan jarriko ditugu salgai. 28an, oster, diskoaren aurkezpena izango da".



UDA

Nerea Lete, onena Bizkaian

Bizkaiko Hiru Txirilo Bola-joko Txapelketa bukatu da eta UDAko Atxorrotx taldea –Nerea Lete, Jose Luis Gorosabel, Isana Gorosabel eta Eñaut Kortabarria– bigarren sailkatu da. Letek, gainera, emakumeen txapelketa irabazi du eta sailkapen orokorrean seigarren postuan geratu da. 65 urtetik gorakoen artean, oster, Jose Luis Gorosabel hirugarrena izan da.

Udal eraikinen garbiketa lanen esleipena onartuta

Ikasturte berriko lehen osoko bilkura egin zuen udalbatzak joan den eguaztenean eta Udal eraikinen garbiketa zerbitzuaren esleipena beste urtebetz luzatzea erabaki zuen. Udaletxea, Arkupe, eskola eta kaleko komunaren ardura ISS enpresak du, baita kiroldegiarena ere. Futbol zelaiaren instalakuntzak garbitzen, oster, Hemen Garbiketak enpresak jarraituko du.

Bestetik, bigarren hiruhilabete aurrekontuaren exekuzio balantzea onartu zuten. EH Bilkuko zinegotzi Ion Albizuk adierazi zuen urtea bukatu aurretik egingo dutela balorazio orokor bat zehazteko zein inbertsio bete diren eta zeintzuk ez.

Gure Zirkua hamaika emanaldi eskainiko ditu urrian

Hiru urteren ostean Gure Zirkua Debagoienara itzuliko da, Aretxabaletara hain zuzen ere; Mondragon Unibertsitateko campusaren alboan dagoen gunean jarriko dute karpa. Urriaren 13a eta 28a bitartean hamaika emanaldi eskainiko dituzte iragarri dute; honako egunetan izango dira horiek: 13, 14, 15, 20, 21, 22, 27 eta 28. Sarrerak atzotik daude salgai eta www.gurezirkua.eus webgunean eros daitezke.

Eskoriatzan, Elgetan eta Arrasaten egondakoak dira aurretik zirkua ibiltariaren arima den Iker Galartza eta haren taldekideak, eta herri guztietan harriera ezin beroagoa egin zieten.

Hainbat ikastaro antolatu ditu Gu Haziak Gara elkarteak

Ikastaro sorta eskainiko du, irailaren 25ean hasita: patroigintza, astelehenetan (18:00); joste-konponketak, martitzenetan (18:00); kakorraz-lanak, eguaztentean (17:00); joste-lanak, eguaztentean (17:00); eta zapatuetan, jostintzara hastapenak (16:00) eta joste-proiektua (18:00). Interesatuak elkartera jo dezakete: 681 65 59 39 eta guhaziakgara@gmail.com.

Mobiliario
ARENZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAETA

Urtea bukatzerako skate parke berria erabilgarri

Egun batzuk pasa dira Aingeruguardako biribilgunearen aldameneko eremua hesitu zutenetik, skate parke berriaren obrak egiteko. Hondeamakinak hasiak dira lurzorua zulatzen, eta, aurreikuspenen arabera, abenduaren erdialderako bukatuko dituzte lanak

Hasier Larrea ESKORIATZA

Arlabanera edo Gatzagara joateko biribilgunearen alboan, bidegorriari itsatsitako berdegunean, 600 metro koadroko azaleradun eremua egokituko du Udalak, patinete-zaleek aisialdirako leku irisgarri eta segurua izan dezaten: "Modalitate hau gero eta indar handiagoa hartzen ari denez, Eskoriatza aisialdirako aukera berria eskainiko dugu. Kokapena bidegorriaren alboan egonda, segurtasuna eta irisgarritasuna bermatuta egongo dira", adierazi dute Udaletik.

Berez, aurreko agintalditik datorren proiektua da skate parkearena. 2023ko aurrekontuetan jaso zen egitasmoa, 2022ko abenduko osoko bilkuran onartu eta gero. Helburua "tren geltoki zaharreko skate parkea lekuz aldatu eta erabiltzaileei eremu handiagoa" eskaintzea izan zen.

Lanak irailaren 12an hasi zituzten, eta abenduaren erdialderako bukatuta egotea aurreikusiten da. 213.434,95 euroko aurrekontuarekin, ZUT Skateparks S.L. enpresa da exekuzioaren arduraduna. Zehaztapen teknikoetan sartuta, skate parkea *street* elementuz osatuta egongo da, eta plataformen arteko transizio kurbak izango ditu se-



Hondeamakinak Aingeruguarda biribilgunearen aldameneko eremuan. H.L.

2005EAN ETA 2008AN JAIOTAKOEN OMENEZKO SEI ZUHAITZ MOZTU BEHARKO DITUZTE

mi-bowl irekia osatuz. Gainazalak amaiera erdi-leundua ere izango du.

Jaioberrien zuhaitzak

Eremu horretan 2005 eta 2008. urtean jaiotako haurren zuhai-

tzak daude landatuta. Udaletik azaldu dute gehienak mantendu egingo direla, baina sei zuhaitz moztu beharko dituztela: "Lekuz aldatzea baloratu zen, baina ez da bideragarria, ez delako sasoi egokia esku hartze horiek egiteko".

Afera horri erantzun bat emateko, Udalak hitz eman du, hurrengo urtarrilean haur jaioberrien omenezko zuhaitz landaketa egiten denean, ekitaldira 2005 eta 2008an jaiotako enbakiak ere gonbidatuko dituela, "modu sinbolikoan bada ere".

Helburu guztiak bete ditu aurtengo Errekan Gora jaialdiak

Atxorrotx Kultur Elkarteak "oso ondo" baloratu ditu joan den asteko zazpi kontzertuak, "jendetza batu zelako"

H.L. ESKORIATZA

Eskoriatza, euskal kultur ekimenen erdigunean jarri zuen joan den astean, hamabosgarren aldiz, Errekan Gora jaialdiak. "Zuzeneko zazpi emanaldiek adin guztietako publikoaren arreta erakarri zuten, eta hori gura genuen", adierazi du Iñaki Kortazar antolatzaileak, eta gaineratu "herritar asko" hurbildu zaizkiela zorionak ematera, "pozik" geratu zirenaren seinale.

Izan ere, "jende asko" egon zen Kokeinen ostiraleko irekiera kontzertuan; zapatu eguerdian, Irati Etxebarrietaren kontzertua

"sorpresa polita" izan zen; Pasadenarekin ere "giro ederrak" jarraitu zuen, eta "zeresanik ez" arratsaldean Broken Brothers Brass Band taldeak egindako kalejiran eta Xiberoots-en gaueko emanaldian. Domekan, bai Arrasate Musikalen Big Bandek eta bai Nevadahk "askotariko musikazaleen interesa" piztu zuten, gainera.

Era berean, antolatzaileak esker oneko agertu dira soinu teknikariek, asteburuan lanean ibili ziren Atxorrotxeko bazkideekin, Udalarekin eta udal brigadako kideekin.



Domeka arratsaldean, Nevadah taldeko musikariak oholtzan. I. KORTAZAR

130 lagun izango dira jubilatuen omenezko bazkarian

Bihar, zapatua, egingo dute Udalak eta Olazar elkarteak urtero antolatzen duten jubilatuen omenezko bazkaria. 12:00etan batuko dira Herriko Plazan, salda beroa hartzeko.

Ondoren udal pilotalekuan egingo dute otordua. Izen-ematea bi astez egon da irekita eta guztira 130 lagun batuko dira deialdira. Bazkaltzeko iberikoak, piper-beteak, itsaski-krema, bakailaoa eta txahal masailak jango dituzte; postreerako, berriz, Idiazabal gazta, txokolatzeko browniea eta goxua izango dute aukeran.

Behin tripa bapo beteta, dantzaldia egingo dute digestioari bide emanaz.

Gaztelekuak deituta, saskibaloitza torneo gaur eta bihar

Eskoriatzako Gaztelekuak ekin-tzaz betetako ikasturteari hasiera eman zion joan den asteburuan, 12 eta 16 urte bitarteko neska-mutil guztiei kalitatezko aisialdia eskaintzeko asmoz. Asteburu honetarako, esaterako, 3x3 saskibaloitza txapelketa antolatuko du. Parte hartu nahi dutenek hiru pertsonaz osatutako taldea aurkeztu behar dute Gaztelekuaren egoitzan, udal pilotalekuan, gaur, ostirala, 17:00etan.

Izen-ematearen ostean, 18:00etan, hasiko dute torneo, eta bihar emango diote jarraipena, ordu berean.

Datorren astebururako ere badute plana, talo tailerren murgilduko baitira.

Dorletako urmaela, eginda

Udaberria eta uda artean zonalde bat egokitu dute San Juan kale eta Dorleta auzoaren gainaldean, "aisialdi osasuntsua aire librean gozatzeko". Material birziklatuz egindako tarima ipini dute, yoga eta erlaxazioa moduko inpaktu fisiko txikiko ariketak praktikatzeko. Gunea ur-jauzitxo batekin eta inguruarekin integratutako urmael txiki batekin osatu dute.



Bi haur urmaeleko zubitxoan eserita, hankak bustitzen. H.L.

Hileko azken eguztenetan buztingintza probatzera

Buztin Ate elkarteko kideek Zubiatero labearen atea zabalduko dituzte buztingintza probatu gura duten herritarrendako, 18:00etatik 20:00etara. Bestalde, umeendako eta helduendako ikastaroetan 38 herritarrek dihardute

Mireia Bikuña Madrid ESKORIATZA Eskoriatza buztingileen herria izan dela jakinekoa da. Buztingintzarako zaletasuna handitzen joan da eta horren lekuko da Buztin Ate elkarteak antolatzen dituen ikastaroak lepo bete izana. Umeendako eta helduendako taldeak osatu dira: helduenak bi eta umeenak bat. Guztira, 38 lagunek pasako dute ikasturtea buztingintza lantzen, eguztenetan. Helduen taldeetan ez dago lekurik libre, baina umeen taldean bai: beste ume batek eman dezake izena. Hortaz, interesatuek Zubiatero bertan edo *buzti.ate.elkartea@gmail* helbidean eman dezakete izena. Umeen taldea eguztenetan biltzen da 16:45etik 17:45era arte.

Bada, ikastaroan parte hartzeko aukera galdu dutenek edo buztingintza gertutik ezagutu gura dutenek, hil bakoitzeko azken eguztenean izango dute aukera. Ate irekiak egingo dituzte Zubiatero, 18:00etatik 20:00etara. "Buztingintza esku artean sentitzeko eta eskuetara ohitzea nola lan egin ikasteko eta hasierako teknikak ikusteko aukera egongo da saio horietan. Beraz, interesa duten herritar guztiak gonbidatzen ditugu. Etor daitezela", esan dute Buztin Ate elkarteko kideek.

Oinarrizko teknikak Zubiatero labeko ikastaroak buztingintza profesional batek eman ditu: Meatzeta Euskal Zeramiak enpresako Alvaro Graciak. Hasieran buztingintzaren oinarrizko teknikak lantzen dituzte. Bereziki, buztingintza

IKASTAROETAN 38 PERTSONAK DIHARDUTE; UMEEN TALDEAN LEKU BAT DAGO LIBRE



Hainbat herritar, familiendako buztingintza ikastaro batean. GOIENA

kin nola moldatu lantzen dute. Eta, lehen gauza, buztingintza txurroak egitea izaten da. Ostean, Garciak gidatuta, lehen pieza egiten dute.

Piezak ikusteko

Buztingintza ikastaroan parte hartzen dutenek zer egin aukeratzeko orduan, besteek egindako piezak dituzte ikusgai. "Museoaren barruan beste museo txikiago bat daukagu. Hor ikusten da nolako lanak egiten ditugun", esan du taldeko kide Olatz Pagaldayk.

Bertsolariak, musika eta bazkaria, Elorretako jaietan

Biharko, zapatua, egun osoko egitarau prestatu dute, adin guztietako herritarrendako

M.B.M. ESKORIATZA

Asteburuan Elorreta auzoari dagokio jaiak ospatzea. Bolibarreko bidean dagoen gunean egun osoko egitaraua prestatu dute biharko. Hasi eta buka, musika doinuekin egingo dute.

Baina, oso bestelako estiloarekin. Txistulariak izango dira kalejira egingo dutenak, 09:00etan. Ostean, auzoan dagoen errotara bisita gidatua egingo dute. Eguerdi partean, umeendako ekintzak eta ardo-dastatzea egongo dira,

eta bazkaldu ostean, bertso saio ederraz gozatzeko aukera egongo da. Oihana eta Haizea Arana ahizpek Aner Peritz izango dute bidelagun oholtza gainean.

Hanburesak afaltzeko

Bertso doinuek bukatuta, Kaittin Allendek bakarriketa saioa egingo du. Keu Agirretxea barkarlaria izango da afal aurreko unea girotuko duena, 19:00etatik aurrera. Hanburesak afaldu ostean, dantzaldia egongo da, DJ Txillardegiren eskutik.

LEINTZ GATZAGA | 17



Ehiztari bat basoan, eskopeta eskutan. GOIENA

Udalak enkantera atara ditu libre zeuden ehiza-postuak

Guztira, hamar postu dira, eta interesatuek hilaren 21era arte egin beharko dute alokairu eskaintza

Mireia Bikuña LEINTZ GATZAGA

Udalak enkantera atara ditu libre zeuden ehiza-postuak. Deialdia kaleratu berri dute: interesatuek irailaren 21era arte dute beraien eskaintzak aurkezteko epea, udal bulegoan. Guztira, hamar ehiza-postu daude aukeran: Dominaga gunean eta Pagoederren launa postu, eta Landan bi. Ehiza-postu bakoitzak alokairu prezio bat dauka, eta horren arabera eskaintza egin beharko dute.

Pertsona berak eskaintza bat baino gehiago egin dezake ehiza-postuengatik.

Betebehar batzuk

Birigarroak eta usoak dira ehi-zatu daitezkeenak postu horietan. Beti ere, Ehiza Federazioak zehazten dituen egunetan. Era berean, postu bakoitzean bi ehiztari egon daitezke gehienez, eta erabiltzaileek ehiza lekua txukun eta garbi mantentzeko betebeharrak izango dute. Postuaren inguruan su egiteko baimena eskatu beharko diote basozainari.

Guztira, 50 ehiza-postu daude herri lurretan: Pagoederren 26, Retrankan hamahiru (sei bakarrik erabilgarri), Dominagan zazpi eta Landan lau.



GOIENA

Errepidean trabatuta

24 metroko luzera zuen kamioi bat mugitu ezinik egon zen herri sarreran, astelehen ilunkaran, GPS-ari jarraika. Zirkulazioan oztopoak eragiteaz gain, errepide alboko paretara bat pitzatu zuen. 17:30etik 21:00etara egon zen errepidean trabatuta, garabia heldu arte. Gorpila konpondu ostean, Arrasaterako bidea hartu zuen.

Etorkizuneko hilerria marrazten hasteko unea

Herritarrek nahiko luketen hilerriaren inguruan hausnartzeko asmoz, gogoeta parte hartzailea abiatu dute Hil Arte Bizi egitasmoak, Antzuolako Udalak, Antzuolako Herri Eskolak eta Euskal Herriko Unibertsitateak. Urriaren 2an eta 11n izango dira saioak

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarria ANTZUOLA

Heriotza "tabua" dela azaldu du Nere Erkiaga Hil Arte Bizi egitasmoa kideak, herritar oro "kamustu" egiten duela, baina funtsezkotzat jotzen du horri aurre egin eta ariketa kolektibo baten bidez, herriko bizitzari "osotasunez" begiratzea. "Herritar bezala heriotzaren aurrean ahalduntzea lortu nahi da".

Horretarako, gogoeta parte-hartzaile bat egitea da Erkiagaren proposamena, baina ez da bakarrik izango hausnartaren bidean, lagun izango baititu Antzuolako Udala, Herri Eskola eta Euskal Herriko Unibertsitateko Parte Hartuz ikerketa taldea. Eta baita herritarrek ere, eurengana heltzea baita lehen nahietako bat. "Pilar Etxaniz eta Maria Eugenia Irazabalek talde eragilean hartzen dute parte, euren borondatez. Herriaren ezagutza osoa dutenak dira, eta horri esker, errazagoa da horrelako gai bat Antzuolan lantzea". Hala, bi saio egingo dituzte herritarrekin gaia landu asmoz.

Urriaren egingo dira saioak

Urriaren 2an eta 11n –gastelaniako itzulpena egongo da egun honetan– egingo dira lehen



Hilerriaren inguruan gogoetatzeko prozesuaren aurkezpena, maiatzaren 11n. A.R.K.

IRAILAREN 28A DA IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA; AZAROAN BESTE SAIO BAT ERE EGINGO DA

saioak, eta interesatuek batean edo bestean parte hartzeko aukera izango dute; azaroan, berriz, beste bat egitea da asmoa. 18:00etatik 20:00etara egingo da, Orlanen, eta parte hartu nahi izan ezker, 644 126 091 telefono

zenbakira deitu daiteke; hilaren 28a da izena emateko azken eguna. "Irekiak dira, eta modu eroso eta errazean parte hartzaile guztien iritziak jasotzeko moduan egingo da".

Herritarrek, beraz, nolako hilerria nahiko luketen gogotatuko dute askotariko ereduak hizpide izanda, eta etorkizunekoak nolakoa izan beharko lukeen irudikatuko dute egingo dituzten bi saioetan. Martxoan aurkeztuko dira emaitzak, eta Udalak jasoko du ondutako txostena.

Hitzaldia eta memoria tailerra, Landatxoperen ekintzetako bi

Mari Romero Fernandezek irailaren 27an emango du hitzaldia; memoria tailerra, berriz, urriaren hasiko da

A.R.K. ANTZUOLA

Martxan da ikasturtea Landatxope elkartearen. Poza de la Sal (Espainia) herrira egin zuten atzo irteera, baina ez da egunotako ekintza bakarra izan.

Mari Romero Fernandez idazleak hitzaldia emango du hilaren 27an, Orlanen, 18:00etan. Quintana de la Serena (Espainia) herrikoa da jaiotzez, baina Legazpin (Gipuzkoa) bizi da. Liburu sorta bat idatzia du, eta laugarrena aurkeztu berri du. *Etxetorre Goikoa. Donde no existe el olvido* da nobelaren izena,

eta helburutzat du eginiko lana entzuleekin partekatzea. Bukatzeko merienda ere egingo dute.

Memoria tailerra

Memoria tailerra ere antolatuko du Landatxopek. Irailaren 25 eta 26an eman ahalko da izena, 17:00etatik 18:00etara, eta guztira hamar saio egingo dituzte, urriaren 4tik abenduaren 20ra, astean behin, 09:30etik 11:00etara. Elkartean eman daiteke izena; bestela, gizarte zerbitzuetan edo 687 83 12 13 telefono zenbakira deituta.

Udal gimnasioko ikastaroetan izena emateko aukera dago

Urriaren 2an hasiko dute ikasturtea, baina ate irekiak egingo dituzte datorren astean ekintzak probatzeko

A.R.K. ANTZUOLA

Antzuolako Udalak eta E-goitek kirol zerbitzuak antolatuta, hainbat ikastaro egiteko aukera izango da udal gimnasioan. Urriaren 2an hasiko da ikasturtea, eta ekainaren 30era arte izango da eskaintza martxan.

12 eta 16 urte arteko gazteei dagokienez, hiru aukera izango dituzte: spinning, eguztenetan; *zumba* eta *crossfit*, berriz, egubakoitzetan.

16 urtetik gorakoek, aldiz, aukera gehiago dituzte: pilates, hipopresiboak, *body tono*, fun-

tzionala, spinning eta *zumba*. 60 urtetik gorakoei zuzendutako gimnasia ere izango da.

Zabalik da izen ematea

Ikastaroetan parte hartzeko bazkide izan behar da gimnasioan. Hamabost eurokoa da kuota hilean, baina saioetan parte hartzeko, gehiago ordaindu behar da: bi saio egiteko, 28 euro; saio bakarra, aldiz, hamalau euro.

Informazio gehiago, ordea, udalean eskuratu daiteke; esaterako, ordutegiak. Hor da inprimakia ere.

Eskolako ikasleekin eginiko urratsak

Hurrengo egunetan egingo dituzte gogoetako lehen urratsak, baina Antzuolako Herri Eskolan dagoeneko hasiak dira gaia lantzen. 1980ko hamarkadan eman zituzten lehen pausoak, heriotza lantzea halaberrezkoa zela ohartu baitziren irakasleak; eta tartean ziren Pilar Etxaniz eta Maria Eugenia Irazabal talde eragileko kideak.

Ezjakintasunetik hasi ziren lanean, estrategiak lotzen eta materiala biltzen, etor zitezkeen heriotza kasuei erantzuteko asmoz. Protokolo bat ere idatzi zuten, eta espazioak ere sortzen hasi ziren hiltzen zirenei eskaintzeko.

Hilerriaren nolakotasuna

Hilerriaren proiektuari dagokionez, iazko ikasturtean

hasi zuten lanketa, orduan 4 urte zituzten haurrekin, heriotza bizitzaren parte ere badela ondorioztatuta. Bizitzaren sorrerarik abiatu, eta haurdunaldia landu zuten; era horretan, jakin zuten badirela jaiotzen ez diren edo hilik jaiotzen diren umeak ere. Eta, tartean, Antzuolako hilerria egin zuten irteera bat. Hori gogoan izanik, etorkizuneko irudikatu zuten, nolakoa nahiko luketen irudikatuta.

Ilunabar literarioa egingo dute domekan Aitz Garbi tabernan

Bergarako Idazle Eskolako ikasleak gidari izanik, ilunabar literarioa egingo dute Aitz Garbi tabernan etzi, irailaren 24an, 18:30etik aurrera. Poema irakurketa musikatua izango da, eta Iosu Isaias *Isuo* arduratuko da musika jartzeaz. Horrez gain, oraindik ikusgai dago Sandra Meleroren argazki erakusketa, urriaren 10era arte.

Bertso eskolan izena emateko azkenengo eguna da gaur

Bertsolaritzan sakontzeko eta hitzekin jolas egiteko asmoz, abian da Antzuolako bertso eskola, eta gaur da izena emateko azkenengo eguna. Lehen Hezkuntzako laugarren mailako herritarrei zuzenduta dago, eta astelehenean egingo da, 18:00etatik aurrera. Jon Mata da irakaslea, eta udaletxean edo liburutegian eman daiteke izena.

OÑATIKO JAIAK 2023



Dantza, musika eta algara ez dira faltako

Haurren eta nagusien danborradak • Auzolinpiadak lehen aldiz • Umeendako jolas parkea
Huntza, ETS, Tapia Eta Leturia Band..., eta askoz ere gehiago • Konpartsa txikiaren aurkezpena • 27 sagardogile Herri Egunean



AITOR AGIRIANO



Egurra eraldatuz,
gure inguruaren ongizatea eraldatzen dugu

www.lana.eu



EGITARAUA

EGUBAKOITZA 22

22:30 BERTSO JAIALDIA, Zubikoa kiroldegian. Bertsolariak: Oihana Iguaran, Sustrai Colina, Aitor Bizkarra, Urko Arregi, Amaia Agirre eta Unai Iturriaga. Gai jartzailea: Txinparta Bertso Eskola. Sarrerak: Txokolateixan eta www.oñati.eus webgunean, 10 euro. 12 urtetik beherakoek doan.

ZAPATUA 23

HAUR ETA GAZTETXOEN EGUNA

Egun osoan zehar, GAZTEENTZAKO EKINTZAK. Gaztelekuko erabiltzaileek antolatuta.

11:00 AUZOLINPIADAK, Olakuan hasita. Antolatzailea: Txosna Batzordea.

11:00 ATSOLORRA: Urtean zehar jaiotako haurrei ongietorria, udaltxeko batzar areto nagusian, Musika Eskolako musikaz girotua.

11:30 ERRALDOEN KONPARTSAK irteera Kanpantxotik. Antolatzailea: Kanpantxo Kultura Elkartea. Parte-hartzaileak: Oñatiko konpartsa, Sebastian erraldoia, Atzeko Kaleko konpartsa, eta kanpoko konpartsa gonbidatua; dultzaina-jolek lagunduta.

12:00 KONPARTSA TXIKIAREN AURKEZPENA, plazan. Ondoren, konpartsa guztien KALEJIRA.

14:00 Herriko Pilota Txapelketako BAZKARIA, Nekazarien Elkartean. Antolatzailea: Herriko Pilota Txapelketa.

15:00 BAZKARI HERRIKOIA. Antolatzailea: Txosna Batzordea.

17:00 HERRIKO PILOTA TXAPELKETAKO FINALAK, plazako pilotalekuan. Ostean, pilotari ohien partida: Mikel Goñi II-Urruzola eta Urmeneta-Pascual bikoteak. Antolatzailea: Herriko Pilota Txapelketa.

18:00 HAURREN DANBORRADA, Musika Bandak lagunduta. Irteera: Bidaurretako Santa Klara Monastegia. Eguraldi txarra eginez gero, irailaren 24an egingo da. Ondoren, buruhandiak plaza inguruan musikaz girotua. Irteera: Santa Ana Antzokia.

18:30 POTEOA musikaz girotua. Antolatzailea: Txosna Batzordea.

22:00 Tatta, Mutiko eta Denso; Huntza, Xutik eta Kalipotxo taldeen KONTZERTUAK, txosnagunean.



Huntza taldea txosnagunean izango da zapatuan. ANDER CARMONA

DOMEKA 24

Egun osoan, barrakak euro bat bidaia bakoitzeko.

Goizean zehar, Aire Libreko 19. MARGO LEHIAKETA.

14:30 MARGO LEHIAKETA: Sari banaketa kultur etxean.

10:30 NAZIOARTEKO 63. ARTZAIN TXAKURREN TREBETASUN LEHIAKETA, Santa Lutzian.

15:30 HERRIKO BOLAJOKO TXAPELKETA, San Martinen. Antolatzailea: Kurtzebiltz K.K.E.

17:00-19:00 Barraketako soinu-ekipoak eta sirenak bi orduz itzaliko dira, aniztasun funtzionala duten haur eta gaztetxoentzat.

ASTELEHENA 25

Aire Libreko 19. margo-lehiaketako partaideen eta margo-ikastaroetako ikasleen lanen ERAKUSKETA, kultur etxeko erakusketa-gelan. Orduetgia: astelehenetik barikura arte,

18:00-20:00. Urriaren 8ra arte. Itxita: Irailaren 29tik urriaren 2ra arte.

EGUENA 28

SAN MIGEL AOZARAZA EGUNA

Argazki erakusketa OÑATI BEGI BISTAN, plazako arkupeetan. Jaien amaieran lan guztiak zozketatuko dira. Urriaren 3ra arte.

18:00 EIDABE taldearen *Gora bihotzak* ikuskizuna, herriko plazan.

19:00 MEZA NAGUSIA, Parrokiako koruak abestuta.

19:00 TXOSNAGUNEAREN IREKIERA.

19:30 DULTZAINA-JOLEAK, txosnagunean.

19:30 ETXERA BIDEA GERTU, kalejira. Irteera: Etxaluzeko parkea. Antolatzailea: Sare Oñati.

20:00 TXANTXIKUAREN JAITSIERA, jaietxerako emateko.

20:15 ANDONI OLLOKIEGI musikaria eta abeslaria, txosnagunean.

20:15 GAUARGI taldea, plazan.

22:30 DANBORRADA NAGUSIA. Ondoren, GAUARGI taldea, plazan.

00:00 KARAOKEA, txosnagunean. Jarraian, DJ Kepix.

00:30 TESTING-a, txosnagunean, Ailaket elkartearekin.

EGUBAKOITZA 29

08:00 GAUPASEROEN ARGAZKIA, txosnagunean.

11:00 Herri mailako PLATER TIROKETA, Txopekua tiro zelaian (armak edukitzeko baimena eta Ehiza federazioaren lizentzia eskatuko da). Izen-ematea: 11:00-17:00. Sarrera: 20 euro.

11:30 BERAKATZ-ZOPA LEHIAKETA, plazan. Eguerdiko aldera, sari banaketa.

12:00-14:00 HAUR PARKEA, Etxaluzeko parkean. Eguraldi txarra eginez gero, Zubikoa kiroldegian.



**Gora
sanmigelak!**

Mekanizazio zerbitzu integralak

Zubillaga 13 - 20560 Oñati - tel.: 943 78 19 11 / www.mekalki.es / e-mail: comercial@mekalki.es

12:00 MEZA NAGUSIA, Parrokiako koruak abestuta

12:00 KALEJIRA herriko kaleetan, Musika Banda eta Aita Madina Txistulari Taldearekin.

13:00 MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA, plazan.

Egitaraua:

- *A. San Miguel*. Arr: A. Ibarondo.
- *In the Shadow of Napoleon*. B. Appertmont.
- *Chanson de amour*. Johan de Meij.
- *Fix You*. Arr: D.Jones.
- *The Lion King*. Arr: J.Higgins.
- *West side story*. Leonard Berstein, Arr: N.Iwai.

Zuzendaria: Aitor Biain.

17:00-20:00 HAUR PARKEA, Etxaluzeko parkean. Eguraldi txarra eginez gero, Zubikoa kiroldegian.

19:00 NHIL taldearen kontzertua, Atzeko Kalen.

19:00 RUKULA eta SUA musika taldeen kontzertua txosnagunean.

23:00 EN TOL SARMIENTO (ETS) taldearen kontzertua, herriko plazan.

ZAPATUA 30

HERRI EGUNA

09:00 Aita Madina Txistulari Taldearen goiz-eresia. Ondoren, herriko kaleetan zehar ibiliko dira.



Urriaren 2a, Errosarixoko Bixamona, herritarrek mozzorrotzeko eguna. GOIENA

10:30 AZOKA, unibertsitate inguruan: behiak, ardiak, ahariak, bildotsak, astoak, behorrak, zaldiak, euskal txerriak, oiloak...; gazta, fruitu eta barazkiak; lore eta landareak; artisauak; taloak eta otartekoak...

11:00 KALEJIRA, herriko kaleetan. Musika Eskolako triki-pandero eta soinu-juelen taldea, txistulariak eta Tolosako gaiteroak.

12:00 35. SAGARDO-DASTAKETA, plazan. Euskal Herriko 27 sagardo dastatzeko aukera.

13:15 Lehiaketetako SARI-BANAKETA.

13:15 HERRI BAZKARIA, Zubikoa kiroldegian. Bazkari txartelak salgai: Izarraitz, Arrano, Eltzia taberna eta Batzokia.

15:00 BAZKARIA, Antixena gaztetxean. Antolatzailea: Txosna Batzordea.

17:00 GAZTETXOekin HERRI KIROLAK, plazan. Ondoren, PROFESIOALEN ERAKUSTALDIA. Eguraldi txarra eginez gero, Zubikoa kiroldegian.

18:00 ELEKTROTARANGA gaztetxetik txosnagunera. Jarraian, argazkia *Joseba eta Gotzon etxera* lelopean.

18:30 ELUSTONDO ANAI-ARREBAK trikitilariekin erromeria, Atzeko Kalen.

19:00 MEZA. Ondoren, parrokiaren *F. ESNALEN SALBEA*. Parrokiako koruak eta Oñati abesbatzak abestuta.

20:00 OINUTSIK taldearekin erromeria, plazan.

21:00 Lehen Lerroa, Añube, Bad Sound eta Lizartxo taldeen KONTZERTUAK txosnagunean. Jarraian, DJ Azken Azeituna.

DOMEKA 1

ERROSARIXO EGUNA

09:00 Aita Madina Txistulari Taldearen GOIZ-ERESIA.

11:00 Jotak, RIBERA CANTA taldearekin, San Martin egoitzan.

12:00 MEZA NAGUSIA, Parrokiako koruak abestuta.

12:00-14:00 HAUR PARKEA, Etxaluzeko parkean. Eguraldi txarra eginez gero, Zubikoa kiroldegian.

13:00 Jotak, RIBERA CANTA taldearekin, Lazarragako lorategian.

17:00 39. SAN MIGEL PILOTA TXAPELKETAKO FINALA. Emakume, gazte eta promesa mailako pilotariak, Zubikoa pilotalekuan. Antolatzailea: Aloña Mendiko Kirol Elkarteko Pilota saila.

17:00-19:00 Barraketako soinu-ekipoak eta sirenak bi orduz itzaliko dira, aniztasun funtzionala duten haur eta gaztetxoentzat.

17:00 Haurrendako PAPIROFEXIA TAILERRA, txosnagunean.

17:00-19:00 Barraketako soinu-ekipoak eta sirenak bi orduz itzaliko dira, aniztasun funtzionala duten haur eta gaztetxoentzat

17:00-19:00 ARKU TIROKETA ERAKUSTALDIA (arkua probatu nahi duen edonorentzat irekia), San Martin zuhaiztian. Antolatzailea: Txantxiku Arkulariak.

17:00-20:00 HAUR PARKEA, Etxaluzeko parkean. Eguraldi txarra eginez gero, Zubikoa kiroldegian.

19:00 WILLSON AND WILLSONETIS, Fito & Fitipaldis taldeari tributoa, Atzeko Kalen.

19:00 eta **21:00** TAPIA ETA LETURIA BAND taldearen kontzertua, txosnagunean.

20:30 BALKOITIK BALKOIRAKO bertso saioa, Iker Zubeldia eta Aitor Mendiluze bertsolariekin, Kale Zaharrean.

23:00 SOROTAN BELE GOGOAN. Sorotan Bele eta Oñatiko Musika Bandaren kontzertua, plazan.

ASTELEHENA 2

ERROSARIXO BIXAMON EGUNA

10:00-12:00 SOKAMUTURRA, plazan. Arno ganadutegiko zezenak.

15:00 BAZKARIA, txosnagunean. Bazkal ostean, jolasak.

17:30-19:30 SOKAMUTURRA, plazan, Kale Barrian eta Atzeko Kalen. Arno ganadutegiko zezenak.

18:00 ROCKALEAN taldearekin, kalejira

18:00 DIBERTSIOAK, txosnagunean.

20:00 PURO RELAJO plazan.

ALTUNA
profesional

Ondo pasau jaixak eta zaindu!

ALTUNA.ES

Instagram, YouTube, Twitter, LinkedIn, Facebook icons.

Bihartik festan murgilduta

Txantxiaren jaitsierarekin egingo du eztanda festak, ofizialki, hilaren 28an. Aurten, ordea, egutegiak baldintzatuta, jaietako egitarauaren hasiera astebete aurreratu dute

Iñigo Barrena Kortabarría OÑATI Egutegiak baldintzatuta, aurten Oñatiko jaiak inoizko segidarik handiena izango dute, tartean ia deskantsatzeko astirik gabe. Honek egitarauaren ere eragina izan du, baina Udaletik, argi utzi nahi izan dute jaien ikuspuntua ez dela aldatu, eta, horregatik bi asteburutan banatuko dituztela jaietako egitarauko ekintzak. Hori dela eta, gaur bertan oñatiarrak jaiak begira motorrak berotzen hasteko aukera izango dute, egitarauko lehen ekitaldiarekin, bertso

saioarekin hain zuzen. Dena den, bihar ekitaldiak jositako dator zapatua.

2023ko jaietako egitarauak, guztira 60 ekintzatik gora jasotzen ditu eta Iñaki Olalde Kulturako batzordeburuak aitortu duenez, egitarauaren erdia "herriko eragileen eskutik" izango da, eta, gainontzekoa, Udalaren eskutik. Era berean, Olalde berak eta baita Izaro Elorza alkateak "eskerrak" eman nahi izan dizkiete jaien egitaraua osatzen lagundu duten herriko eragile ezberdinei. Bide batez,

Txosnagunearentzat ere esker oneko hitzak izan dituzte "egiten duten lanagatik". Aurrekontuari dagokionez, 234.000 eurokoa izango da eta bertako partidaren nagusiak Udalaren kontratazioetara bideratutakoak izan direla azaldu dute.

Eraso sexistarik gabeko jaiak

Orain arte bezala, aurten ere herriko jaiak eraso sexistarik gabekoak izatea nahi dute, eta, horretarako Emagin Elkarteko kideen eskutik informazio eta arreta guinea jarriko dute jaietan



Pasa den astean egin zuten jaien aurkezpena. TXOMIN MADINA

zehar, eta, Txaketua taberna eta Aker taberna bitartean egongo da kokatuta. Egunero egongo da zabalik eta arratsaldeko 20:00etatik 00:00etara informazio gune moduan funtzionatuko du. Gaueko 00:00etatik, goizeko 08:00ak arte, berriz, arreta guinea izango da gertatu daitekeenari erantzuna emateko. Herri egunean, aldiz, eguerdiko 13:00etan jada irekita egongo da. Gainera, telefono bat ere jarri dute martxan beharra dagoenean erabiltzeko: 688 60 20 89. Udalak 2023 urtean, herriko mugimendu

feminista eta bestelako eragileekin abian jarritako zerbitzua da jaietan ere martxan egongo dena; San Migel Txikiko, Errekaldeko eta Atzeko Kaleko jaietan erabilgarri egon da zerbitzua.

Egitaraua baldintzatuta

Aurtengo egutegia ikusita, egitaraua ere baldintzatuta dago. Bi asteburutan egiten ziren ekintzak orain arte, baina, aurten, puzzlea osatzerako garaian, ekitaldi batzuk egunez mugitu behar izan dira eta beste batzuk, aldiz, kanpoan gelditu. Besteak



ARKITEKTURA

Baserriak
Fatxadak
Igoailuak
Teilatuak
Diru laguntzak
ITE



Ondo pasa jaixak!

tel: 943 09 47 66 * email: amaia@aiarkitektura.com
Bidebarrieta 13. A lokala. Oñati



M^a Angeles Mendizabal

H **AHO SENDAGILEA**

Inplanteak

Leire Errasti

Odontologia-Ortodontzia

Arantzazuko Ama 2C-behea • 20560 Oñati • Tel.: 943 71 60 71 • mendikorta@outlook.com



Emagik aurreko urtean jarritako informazio eta arreta gunea. OIHANA ELORZA

beste, gaurko bertso saioa, adibidez, astebete aurreratu dute, eta, azken urteetan ohikoa izan den piroteknia ez du jasotzen aurtengo egitarauak. Aldaketa esanguratsuenetarikoa, berriz, sokamuturrean egongo da, bi egunetan izan ohi delako; aurtengo ordea, Errosarixo Bixamon egunean soilik egingo dute, goizez zein arratsaldez.

Trafiko mozketak jaietan

Datorren egunean sartuko dira oñatiarrak ofizialki jaietan eta horrek eragina izango du herri-

guneko trafikoan. Irailaren 28an arratsaldeko 16:00etatik hasi eta urriaren 3ko goizeko 07:00ak arte postetxe ondoko biribilgurutik, Aker taberna pareraino doan bidea itxita egongo da autoentzat. Bestalde, Errosarixo Bixamon egunean sokamuturraren eraginez, goizean, plaza eta udaletxe atzeko kalea itxita egongo dira. Arratsaldean, berriz, sokamuturraren ibilbidea handiagoa izango da eta plazatik Kale Barriraino luzatuko dute. Sokamuturraren orduan, itxita egongo da bide hori.

Goiena ere jaietan murgilduta

Goiena Telebistak jarraipen zabala egingo die aurtengo Oñatiko San Migel eta Errosarixo Bixamon jaiak.

'Txantxikuaren jaitsiera'

Irailak 28, 19:30. Zuzeneko emankizuna, txosnagunean ondokitik.

'Hemen Debagoiena'

Irailak 29, 18:00; 20:00 eta 22:00. Jaietan jarraipena *Hemen Debagoiena* saioan.

'Errosarixo Bixamon Eguna'

Urriak 2, 13:30. Zuzeneko saioa, Kale Zaharretik.

Jaietako saio berezia

Urriak 4, 19:00; 21:00 eta 23:00. Sani Migel eta Errosarixo Bixamon jaietan inguruko saioa.




Txantxikuaren jaitsiera txosnagunean, iaz. OIHANA ELORZA

Txosnagunean ere, gozatzeko prest

Oñatiko Txosna Batzordea ere buru-belarri aritu da lanean jaietan ahalik eta egitarau osatuena eta zabalena eskaintzeko. Kontzertu, jolas, bazkari edo bestelako ekitaldi osatu dute aurtengo menua ere. Oneka Anduaga eta Eneritz Osinaga batzordeko kideek azpimarratu dutenez, "parte-hartzailea, belaunaldi ezberdinak batuko dituen, feminista eta herritik herriarendako egindakoa" da egitaraua. Jaiak hasteko gutxi falta bada ere, badira lotu beharreko azken detaileak; horietako bat Herri Eguneko txosnako azken txanda. Hori dela-eta, laguntzeko gertu daudenei dei egin diete txosnagunera gerturatzeko. Era berean "guztiok ondo pasatzeko" jaiak direla azpimarratu dute Anduagak eta Osinagak, eta, jaiak errespetuz gozatzeko ez dakienarentzat tokirik ez dela izango ere argi utzi nahi izan dute.

• 00:0
Xxxx



ONDO PASA JAIETAN!

San Migel jaiak 2023



Iazko haurren danborrada. AITOR AGIRIANO

Danbor doinuak jaiei hasiera emateko

Danborrada jaietako klasikoetako bat. Bihar, zapatua, arratsaldeko 18:00etan hasita egingo dute haurren danborrada, haur eta gaztetxoek eguna aprobetxatuz. Nagusia, aldiz, hilaren 28ko gauean (22:30) izango da, beti bezala

Iñigo Barrena Kortabarria OÑATI

Danbor soinuekin emango zaio hasiera aurten jaietako egitarauari. Etxeko txikienak makilak eskuetan hartu eta danborra astinduz girotuko dituzten herriko kaleak, bihar arratsaldeko 18:00etatik aurrera. Aurten 175 gaztetxo irtengo dira haurren danborradan, LH3 eta LH4 mailakoak izango dira protagonistak. Ibilbidean ez da aldaketarik izango eta iaz egin bezala, aurten ere, Bidaurretan emango zaio hasiera.

Berritasun txiki batzuk izango ditu, ordea, haurren danborradak, konpartsa guztiak mistoak izango baitira, Kantineren konpartsa izan ezik. Talde guztiak neska eta mutilen osatutakoak izango dira; kantinerena, aldiz, soilik neskek osatuko dute. Bigarren berritasuna da, duela urte batzuk zegoen ohitura bat ere berreskuratuko dutela. Danborradaren atzean, karrozaren atzetik, txorimaloak irtengo dira haurrei eskua emanez ibilbide guztian zehar. Haur eta gazte ugari batzen ditu danborradak eta beste bizitasun bat emateko asmotan, antolakuntzatik gon-

bidapena luzatu dute haurrek mozorrotuta eramateko danborradara, aurreko urteetan egin izan duten bezala.

Nagusiena, eguen gauean

Jaietako egitarauari hasiera bihar emango zaion arren, jaiak ofizialki eguenean hasiko dira txantxikuaren jaitsierarekin. Urtero bezala, festa giroak ez-tanda egin ostean emango zaio paso nagusien danborradari. Iaz hasiera ordua ordu-erdi aurretazko erabakia hartu zen, eta, aurten ere, 22:30ean ekingo zaio danborradari Eltzia kulturgunetik. Era berean, ibilbidean ez da aldaketarik egongo.

Partaide kopurua igo egin da aurten, horren adibide da barrila jotzen neska gehiago arituko direla. Kintoei dagokienez, 118 lagun izango dira baserriar jantziekin saltoka eta dantzan. Berritasun bezala, kantu berri bat joko dute aurten, *Pedro Mari* izenekoa. Pedro Mari Igartuaren omenez egin zuten abestia, eta, iaz haurren danborradan entzuteko aukera egon bazen ere, nagusienean lehen aldiz joko dute aurten.



Tel.: 943 71 80 52

LIZKER

AHOLKULARIAK

Hidalgo
ABOKATUAK ETA
AHOLKULARIAK

Aholkularitza fiskala

Lan aholkularitza

Kontabilitatea

Zerga aitorpena

Ondo ibili jaietan!

Errementari plaza 2-3 behea • OÑATI



Amets Berezaio



SALMENTA
(berriak eta bigarren eskukoak)

**KONPONKETA
MEKANIKOAK**

TXAPA ETA PINTURA

Berezaio auzoa - Oñati - 943 71 80 85 / 943 78 25 92
Lizarragako hiribidea - Antzuola - 943 78 70 77

Badator konpartsa txikiaren egun handia

Biharko konpartsen egunaren barruan, konpartsa txikiaren aurkezpena eta bi erraldoi berriak aurkeztuko dituzte eguerdian (12:00). Xabier Mendizabal eta Joanes Diez izan dira, Korpuseko dantzariak irudikatuko dituzten pertsonaia berriak egin dituztenak

Iñigo Barrena Kortabarria OÑATI
Oñatiko erraldioen konpartsak familia handitzen jarraitzen du. Iaz, jada ezagunak ziren erraldoiei, Xabier Mendizabalek egindako Sebastian erraldoia batu zitzaion, eta, aurtun, konpartsa txikiaren barruan, bi erraldoi aurkeztuko dituzte, bihar egingo duten konpartsen egunean. Maiatzean ekin zioten prozesuari, herriko gaztetxoenei zer-nolako erraldoiak gurako lituzketen galdetuz. Behin erabakia hartutakoan, Xabier Mendizabalekin eta Joanes Diezekin jarri ziren harremanetan, erraldoi ertain berri hauek jaietarako prest izateko. Umeek eurek



Bi erraldoi berriak, erabiliko dituzten haurrak eta Xabier Mendizabal. IÑIGO BARRENA

eramateko moduko erraldoiak egitea eta konpartsa horren atzean egongo den taldea sortzea da ideia, eta, hasteko, bi egin dituzte; Udalaren asmoa, ordea, guztira lau egitea da.

Dantzariak, bikote berria

Momentuz bi erraldoi berri egin dituzte eta gaztetxoekin egindako prozesu parte-hartzailean, ideia guztien gainetik gailendu zen, lehen bi erraldoiak, herriko famatuak diren Korpusetako dantzariak izatea. Oñatiko herria ederki irudikatzen dituzten bi pertsonaia dira hauek. Behin amaituta, irudia ederra da, baina denboraren aurka aritu dira Joanes Diez eta Xabier Mendizabal, erraldoiak biharko prest izateko. Era berean, pozik daude erraldioen familia handitzen doalako eta gaztetxoenen artean erraldoiekiko afizioa ere geroz eta handiagoa delako. Gainera, estreinaldirako entseguak egin dituzten azken egun hauetan, pisua kontrolatzeko, mugimenduak ere ikasteko eta kalejiran zehar ere behar bezala dantza egiteko; bihar dena ondo irteteko asmotan.

Aurkezpena, bihar

Aurkezpen ekitaldia bihar egingo dute konpartsen egunaren barruan. Kanpantxo Kultura Elkarteak antolatuta, urtero bezala, herriko kaleak erraldoi eta txorimaloekin beteko dira, goizean hasi eta iluntzera bitartean. Aurtun, Oñatiko erraldoiez gain, Barañaindik etorritakoak izango dira bisitari. Hasiera batean, berritasuna kanpotik etorritakoak izango badira ere, bihar konpartsa txikiako bi erraldioen aurkezpenak bereganatuko ditu herritarren begirada guztiak. Kalejira goizeko 11:30ean Kanpantxon hasiko dute eta konpartsa guztiak batera plaza gerturatzen joango dira dulzainero eta txistularien eskutik. Une bereziena, ordea, eguerdiko 12:00etan plazan izango da, orduan aurkeztuko dituztelako familiako azken kideak. "Aurkezpenari indarra eman nahi izan diogu, zerbait ezberdina egin nahi genuen aurkezpenarako" dio Mikel Urrutiak, Kanpantxo Kultura Elkarteko kideak. Behin aurkezpena eginda kalejirarekin jarraituko dute guztiak batera.



OÑATIKO JAIKAK 2023

Goza ditzagun
jaiak libre.

Ondo pasa!

Antzezlanana eta jolas parkea haurrendako

Zapatuan egingo da haurren danborrada, baina horrez gain euren zuzendutako antzezlanana eta ohiko jolas parkea ere badatoz San Migel eta Errosarixo jaien egitarauan. Mezu didaktikoarekin dator 'Gora Bihotzak!' ikuskizuna

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Haurrei zuzendutako ekintzak ere badatoz jaietako egitarauan. Horien artean, adibidez, Eidabe taldeak ekarriko duen *Gora bihotzak!* ikuskizuna. Hilaren 28an eskainiko dute, txantxi-kuaren jaitsieraren aurretik, 18:00etan, Foruen plazan.

Umeendako eta familiendako

Eidabe proiektuaren barruan sartu zituzten ekimen kulturalak Euskal Herriko elkarte ezberdinetako kideek. Ume zein gazte antzerkian eta animazioan espezializatu dira eta gazteen uni-bertsora moldatzen dute euren sormena, "mugarik gabeko iru-



Eidabe proiektuko hiru kide *Gora bihotzak!* ikuskizunean. EIDABE

dimena". Umeei eta familiei zuzendutako antzerkigintza landu dute eta "kezka hezitzaile eta sozialak" hartzen dituzte ardatz euren antzezlanetan.

Oñatira *Gora bihotzak!* antzezlanarekin datoz, "haurren eta gazteen garapen integralari lagunduko dion orientazio didaktikoarekin, beste lanetan bezala".

Jolas parkea eta barrakak

Urtero bezala, bestalde, haurrendako jolas parkea ere muntatuko dute aurten. Irailaren 29an eta urriaren 1ean izango da hori, goizean eta arratsaldean. Etxaluzeko parkean jarriko dituzte puzgarriak eta bestelako jolasak eguraldi onarekin, eta kiroldegian, txarra-ekin.

Horrez gain, barrakak ere ekarri dituzte. Domekan, esaterako, euro bat izango da bidaiari bakoitzaren prezioa egun osoan. Arratsaldean, soinu ekipoak eta sirenak itzali egingo dituzte bi orduz, 17:00etatik 19:00etara, aniztasun funtzionala duten haur eta gaztetxoendako. Gauza bera egingo dute, ordu berdinean, Errosarixo egunean.

Gazteendako, ginkana eta bazkaria

Bihar, zapatua, ospatuko dute gazteek euren eguna eta hainbat ekintza antolatuko dituzte gaztelekuko erabiltzaileek egun osoarako. Goizean zehar, esaterako, hiru proba gaingitu beharreko ginkana egingo dute: Olaiturrin jarriko dituzten puzgarrietako ariketak eta argazki lehiaketa izango dira probetako bi.

14:30ean gaztelekuan bazkalduko dute eta 15:45ean hasiko dituzte arratsaldeko jolasak, tartean, kahot lehiaketa eta herri kirolak.

Herri Egunean ere gaztetxoaren arteko herri kirolak egongo dira eta jaietako musika emanaldiek ere gozatu ahal izango dute.



Gualbi

aholkularitza

Gora sanmigelak!

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOAKULARITZA

ABOKATUAK

KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!





Euskadi etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48
onati@gualbiasores.com • www.gualbiasores.com

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Udalak V. berakatz zopa lehiaketa antolatu du. Irailaren 29an egingo da, 11:30ean, Foruen plazan. Irailaren 26ra arte egongo da zabalik lehiaketan izena emateko epea.

Joan den urteko garaipena berres- teko asmoz eman duzu izena aurtengo lehiaketan ere?

Ikusi egin behar zer gertatzen den. Beti ez da berdin ateratzen berakatz zopa.

Ze sekretu zuen iazkoak, bada?

Sekretu handirik ez, egia esan. Juan Mari Urteagak eta biok egin genuen.

Osagaiak aipatzen hasita, pistola- rekin edo ogi sikuarekin?

Pistolarekin, duda barik. Guk ez dugu ogi sikurik erabiltzen.

Saldarekin edo urarekin bustitzen duzu gero ogia?

Saldarekin. Behar den bezalako saldarekin, gainera. Hau da, porruarekin eta betiko osagaiekin eginda, ez dendan brik ontzietan eginda saltzen duten horietakoa.

Arrautzak, piperrak... zer gehiago erabiltzen duzu?

Hirugiharra erabili genuen guk, eta baita arrautzak ere. Horiek,

"Berakatz zopa ona denborarekin egiten da"

ANJEL BILLAR HERRITARRA

Joan den urteko berakatz zopa lehiaketa irabazi zuen Billarrek, Juan Mari Urteagarekin batera. Aurtengo lehiaketarako ere eman du izena

baina, gainera osorik bota eta bistan utzi beharrean, irabiatuta bota genituen, eta salda- zopatik ogiarekin nahastu.

Gatza ere puntuan izango zuen.

Antza denez, bai. Gehiegi edukitzea edo gutxiegi botatzea antzemango dute epaileek, ziur. **Zorrotzak izaten dira epaimahaikideak? Moko finekoak?**

Pixka bat bai, bat baino gehiago probatu behar izaten dute eta bata bestearekin konparatu, eta hori ez da erraza izango asko daudenean, moko zorrotzu beharko dute hasieratik.

Lurrezko ontzia bera, berakatz zopak behar duen beste osagai bat gehiago da?

Juan Mari Urteaga eta Anjel Billar joan den urteko lehiaketan parte hartzen. GOIENA

Ez dakit benetan beharrezkoa den edo ez. Ohiturari kasu eginez gero, lurrezko ontzian prestatzen da berakatz zopa, bai, eta geuk ere horrelaxe egiten dugu. **Eta, su altuan edo baxuan prestatu behar da?**

Berakatz zopak ere bere denbora behar du, eta hartu egin behar. Denbora gutxian egiten den berakatz zopa nekez izango da ona. Su baxuaren gainean ontzia jarri eta denbora hartu behar da, eta ez su altua jarri denbora gutxiagoan egiteko.

Jan, noiz jaten da? Bazkaltzeko edo afaltzeko?

Gehienetan afaltzeko, esango nuke. Baina lehiaketa eguerdian izaten da eta behin epaileek euren lana eginda, han pilatzen den herritarren artean jaten ditugu denak, eta ondo sartzen da ordu horretan ere.

Joan den urteko txapelketatik hona, zenbat aldiz prestatu duzu?

Lehen gehiagotan jaten nuen, egia esan. Bizpahiru aldiz prestatu dut, errezeta-eta gogoratze-ko izan bada ere. Ez da nahiko entrenamendu izango agian, baina tira, ikusiko dugu aurtengo nolakoa ateratzen den.

Ondo pasa
jaiak!

4S
Ingeleseko Akademia
Listening Speaking Reading Writing

Maite Aiausti • Ane Arabaolaza

esperientzia • ezagutza • freskotasuna

Arantzazuko Ama, 3 behea • 943 53 36 57-685 986 003 • 4sgoiena@gmail.com

www.jabierrotaiberus

Julen Murua Mesonero OÑATI

Auzoetako jai batzordeak elkarren artean lehiatuko dira lehen-dabizikoz Oñatiko jaietan. Bihar, zapatuan, batzorde ezberdinetako kideak Olarako kantxan elkartuko dira, eta 11:00etatik aurrera, egun osoko egitarau batez gozatzeko aukera izango dute. Antolakuntzako kideek auzoetako batzordekideak animatu dituzte haien "kamiseta, zapi eta bestelakoak ekartzera"; horretaz gain, pertsonaia bereziren bat duten batzordeei ere hura ekartzeko gonbita egin die.

"Txosnako batzordean izandako ideia zaparrada batetik" sortu zen Auzolinpiadak antolatze-ko ideia. Gainera antolakuntzak adierazi du, "auzo batzuetan antolakuntzan laguntzeko jendea batzea behar dutela ikusita, kide berriak ezagutu, batzordeetara batu eta egunaz gozatzeko helburuarekin" ere antolatu dutela ekimen hau.

Ia auzo guztiek izango dute ordezkaritza Auzolinpiadetan eta hori da ekimenak izan duen arrakastaren erakuslea; hala ere, antolakuntzak espero ez zuen zerbaite izan da: "Ez genuen

Auzolinpiadak izango dira jaietan aurrenekoz

Txosna batzordearen egitarauak dakarren berrikuntzetako bat dira auzoen arteko olinpiadak. Herriko auzoetako jai batzorde ezberdinak batuko dira bertan eta egun osoan zehar ekintza ezberdinez gozatzeko aukera izango dute parte-hartzaileek



lazo jaietako txosnaguneko bazkari bat. GOIENA

espero horrenbeste jendek parte hartzea. Gainera, jendea oso gogotsu dago; batzuek bideoa ere egin dute".

Auzoetan zehar arituko dira

Eguna Olarako kantxan hasiko badute ere, ekintzak herriko auzoetan zehar egiteko asmoa dute antolakuntzako kideek: "Auzo guztietatik igarotzeko aukera izango ez dugun arren, ahalik eta gehienetan izateko ibilbidea antolatu dugu".

Ez dute nahi izan ekintzen inguruan gauza handirik aurreratzea antolakuntzako kideek, hala ere, adierazi dute "betiko jolasak izan direnak eta Olinpiar

Jokoetan jokatu izan diren kirolekin harremana duten jokoak" izango direla, eta saiatu direla "auzoetako gai ezberdinekin lotzen" joko ezberdin horiek.

Bazkaria eta gerokoak

Eguerdian bazkaria izango da txosnagunean eta bi aukera izango dira eskuragarri: beganoa eta arrunta. Jatekoaz gain txosnetako kamiseta bat ere jasoko dute bertaratuko direnek.

Bazkariaren ostean poteo girotuaren ordua izango da. Bertan, auzoetako batzordeek Oñatiko kaleak girotzeko aukera izango dute oholta eramangarri baten gainean DJ lanak eginez. Horretarako, batzorde bakoitzak ordu erdi inguru iraungo duen abesti zerrenda bat prestatu beharko du.

Gauean, kontzertuak

Arratsaldeko poteoarekin amaitu ostean, 22:00etan hasiko dira kontzertuak txosnagunean. Antolakuntzako kideek lau kontzertu iragarri dituzte txosnaguneko egitarauan: Tatta, Mutiko eta Denso; Huntza, Xutik eta Kalipotxo izango dira.



egaralur

Construcciones | Eraikuntza Lanak

50 años-urte
1967 | 2017

- Eraikuntza lanak
- Industria-nabeen eraikuntza
- Obra Zibila - Urbanizazioak
- Industrialde eta etxebizitzaren promozioa
- Etxebizitzaren eraikuntza

Bidebarrieta 17, behea • 20560 OÑATI
Tel.: 943 78 07 15 • Faxa 943 78 08 62 • www.egaralur.net

Ando pasau jaietan!

Jaione San Miguel Ugarte

MAPFRE
OÑATI

Portu Kale 5 • Tel.: 943 78 12 65
www.mapfre.es

Pilota partiduak nagusi dira kirol egitarauan

Zubikoako pilotalekuan eta Foruen Enparantzako pilotalekuan jokatuko dira San Migel Txapelketako eta Herriko Pilota Txapelketako finalak; azken honetako finalen ostean, Mikel Goñik jokatuko du Iñigo Erle oñatiarrarekin batera pilotari ohien arteko partidua

Julen Murua Mesonero OÑATI

Hitzordu garrantzitsuak izango dituzte pilotazaleek 2023ko Oñatiko jaietan, Herriko Pilota Txapelketako gazte mailako eta 23 urtez azpiko mailako finalak eta San Migel Txapelketako emakumezkoen eta gizonezkoen finalak –ostean, pilotari ohiak jokatuko baitira bihar eta urriaren 1ean, hurrenez hurren.

Erle aukera bakarra

San Migel Txapelketako finalean Debagoieneko ordezkari izateko aukera bakarra Erlerena izango da. Ander Etxaniz beragararak, Gabirondorekin bikotea osatuz, 22 eta 15 galdu zuen



lazko San Migel Txapelketako finaleko argazki bat. GOIENA

Gainerako kirol ekitaldiak

Irailaren 24an, domekan, Herriko Bola-joko Txapelketa antolatuko dute Kurtzebaltz elkarteko kideek San Martineko ermitaren alboan; 15:30ean hasiko da txapelketa. San Migel egunean, hilaren 29an, herri mailako Plater Tiroketa Txapelketa izango da, Txopetuk tiro-zelaian, Pago Uso elkartearen eskutik. Parte hartzeko ezinbestekoa izango da armak edukitzeko baimena eta ehiza federazioaren lizentzia izatea. Izen-emate epea irekita egongo da txapelketan zehar –11:00etatik 17:00etara– eta hogeituro ordaindu beharko ditu parte hartu nahi duenak. Amaitzeko, Errosarixoko Egunean, urriaren 1ean, Arku Tiroketa erakustaldia egongo da, San Martin zuhaitzian, arratsaldeko 17:00etan hasi eta 19:00etara bitartean Txantxiku Arkulariak taldeak antolatuta.

martitzenean finalerdietako partida Oskoz-Oliden bikotearen aurka. Iñigo Erle oñatiarrak Igoa aurrelaria izango du bikote, eta Altuna-Landa bikotearen aurkako partiduan bilatuko dute finalerako txartela.

Mikel Goñik jokatuko du

Herriko Txapelketako finalen aurretik bazkaria egongo da Nekazarien Elkartean eta, ostean, partiduak jokatuko dira. Emakumezkoen finala Aran-Jone eta June-Ohiane bikoteek jokatuko

dute; gizonezkoen finala, berriz, Biain-Barrena eta Amilleta-Eneko bikoteen artekoa izango da. Txapelketako garaikurrak nortzuk eramango dituzten erabaki ostean, pilotari ohien arteko partidua jokatuko da. Hasiera baten, Goñi II-Urruzola eta Urmeneta-Pascual bikoteek jokatuko behar zuten partidua, baina, azken honen ordeztan Iñigo Erle oñatiarrak jokatuko du Goñi II-rekin, antolatzaileei "herritar batek jokatzea ideia oso ona" iruditu baitzaie.

70
URTEURRENA

Ondo pasau Jaixak!

AUTLAN EMD

Herri Eguna ohiko osagaiez beteta dator

Jaietako egun kuttuna izaten da oñatiarrendako Herri Eguna. Ohiturari eutsiz, ganadu azoka, gazta lehiaketa, talo postua, artisau azoka, sagardo dastaketa... izango dira. Horiek guztiek ondo irteteko, herriko hainbat eragile ibiltzen dira antolatzaile lanetan

Arantzazu Ezkibel Galdos OÑATI

Irailaren 30ean, San Migel Bixamona egunean izango da aurten Herri Eguna. Egun handia izaten da oñatiarrendako; horregatik, antolakuntza lanean diharduten talde ezberdinak buru belarri dabilta. Nekazarien Elkartea, esaterako, Unibertsitate aurrean egiten den ganadu azokaz arduratzen da, besteak beste. "Diputazioa gero eta traba gehiago jartzen ari da, burokrazia larregi eskatzen dute. Azken finean azoka herriko bat da, eta horrelako exijentziekin lortuko dutena da azokak bertan behera gertzea", azaldu du Nekazarien



lazko sagardo dastaketa ekitaldian, mutil kuadrilla. GOIENA

Elkarteko lehendakaria den Aintzane Agirrek.

Oztopoak oztopo, ganadu ferriarekin aurrera egingo dute. Behiak, zaldiak, pottokak, txerriak, astoak, ahuntzak, aharriak... egongo dira ikusgai. Hegazi gripea dela-eta, oilorik ez da izango. Gainera, gazta lehiaketa ere egingo dute: herriko baserritar eta artzainen gaztak dastatuko dituzte epaimahaia osatuko duten zortzi lagunek.

Fruitu eta barazki erakusketa eta salmenta ere egongo da: Ortuabala eta Elkarzabal elkarteak egongo dira. Lehiaketako sari banaketa 13:15ean izango da.

Ohiturari eutsiz, unibertsitateko klaustroan artisau erakusketa jarriko dute.

Talo postua

Ezker Abertzaleak antolatuta taloak eta ogitartekoak salduko dituzte Irunberri plazan muntatzen den Herri Tabernan. 80 bat lagun ibiliko dira lanean eta taloan edo baserriko opilean hirugiharra eta txorixo errea salduko dute. 220 kilo arto irin, 80 kilo hirugihar eta 1.500 txo-

riko erosi dituzte. Txartel trukearekin egiten dute lan postuan: talo betea 4,5 eurotan salduko dute eta talo hutsa 3 eurotan. Ardoa edo sagardoa ateratzen dute taloarekin edo ogitartekoarekin batera; freskagarriak 2 eurotan saltzen dituzte.

Sagardo dastaketa

Herriko plaza sagardo postuz beteko da eguerdirako. 35. sagardo dastaketa egingo dute: 27 sagardotegik parte hartuko dute, Gipuzkoakoak gehienak, baina baita Arabakoak ere. Edalontzia edo kopa erosi, horixe besterik ez da egin behar sagardoa dastatu ahal izateko.

Herri bazkaria

Zubikoa kiroldegian egingo dute Herri bazkaria, 14:30ean. Bazkariko txartelak salgai daude Izarraitzen, Arranon, Eltzia tabernan eta Batzokian. Txosna batzordeak antolatuta, aldiz, Antixenan egingo dute bazkaria, 15:00etan.

17:00etan, herriko gaztetxoan herri kirol erakustaldia, plazan. Ondoren, profesionalen erakustaldia –euriarekin, Zubikoan–.



itusionorako hamaiika arrazoi



Iazko Errosarixo Bixamon eguneko irudia. GOIENA

Mozorroto eta azkenera arte gozatzeko prest

Urriaren 2an, astelehena, Errosarixo Bixamon Eguna ospatuko da. Mozorroak soinean jantzi eta jaietara amaiera emateko modu polita izango dute oñatiarrek. Sokamuturra egongo da, goiz eta arratsalde, plazan eta kaleetan

Arantzazu Ezkibel Galdos OÑATI

Jaietako azken eguna izan arren herritarrak gogotsu eta indartsu iristen dira Errosarixo Bixamon egunera. Kuadrillan mozorroa gertatu eta jaietara iristen dira kalera. Badaude kuadrilla batzuk mozorro originalak prestatzen dituztenak; urtean zehar gertatu den ekitaldi esanguratsu edo anekdotaren baten inguruan mozorrotzen direnak, umorea lagun. Bada, herritar guztien ahotan izaten dira kuadrilla horiek. Beste kuadrilla

batzuk, aldiz, azken momentuan etxeko ganbaran dutena hartu edo azken orduko erosketa egin da irtetzen dira kalera. Bai batzuek eta baita besteek ere helburu bera izaten dute: ondo pasatzea.

15:00etan bazkaria txosnagunean eta ondoren jolasak.

Sokamuturra

Aurtengo jaietan astelehenean bakarrik egongo da sokamuturra: Arno ganadutegiko zezenak 10:00etatik 12:00etara, eta 17:30etik 19:30era izango dira.

Dibertsioak txosnagunean

Zazpi taldek eman dute izena Errosarixo Bixamon eguneko txosnagunean egiten den Dibertsioak kontzertuetarako. "Lagun artean sortutako taldeak dira; aitzakia ona da normalean jotzen ez duzun jendearekin aritzeko; edo, jeneralean jotzen ez duzun instrumentua hartzeko", azaldu du antolatzaile lanetan dabilen Jon Etxarrik. Azken finean, ondo pasatzea da ekimenaren helburua.

Aurtengo ekitaldian punk-rock musika izango da nagusi; gainera, talde klasikoekin doinuak ere entzungo dira. 19:00etan hasiko da ekitaldia: lehenengo, hiru taldek joko dute eta, afalostean, beste lauren txanda izango da. Helburu nagusia da musikaz gozatea eta txosnagunean giro paregabea jartzea. Kontzertuak 02:30ak arte luzatuko dira, gutxi gorabehera.

abokatua

Javier Pérez
Abokatua

Tel./Faxa: 943 716 766
Mugikorra: 657 796 926
E-posta: jperez@icagi.net

Gora saunmigelak!

Foruen Enparantza 5-6, 20560 Oñati (Gipuzkoa)

COINBROKER
OÑATI ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

**ASEGURU AHOLKULARITZA
ESPEZIALIZATUA**

Gertuko zerbitzua momentu zailetan

Ondo pasa jaiak!!

688 774 531 - WHATSAPP 943 089 006
OINATI@COINBROKER.EUS WWW.COINBROKER.EUS
ARANTZAZUKO AMA KALEA 9, BEHEA. 20560 OÑATI

Formatu berritzaileak, klasikoen eskutik

Umeen eta nagusien danborradetan musika jartzeaz gain, bi kontzertu eskainiko ditu Oñatiko Musika Bandak jaietan. Bata, San Migel egunean eta, bigarrena, Errosarixo egunean; egun horretan, Sorotan Beleko lau kiderekin batera egingo dute kontzertua

Miren Arregi Amasorrain OÑATI

San Migel eta Errosarixo jaietako protagonista ezinbestekoa da Oñatiko Musika Banda. Jaien bueltan lau emanaldi egiten dituzte urtero. Lehenengo biak, danborradak: umeena eta baita nagusia. Horiez gain, beste bi kontzertu berezi. Aurten ere, ohiturari eutsiko diote, San Migel Egunean eta Errosarixo Egunean emanaldiak eskainiz.

San Migel Egunean, irailaren 29an, herriko plazan egingo du kontzertua, 13:00etan. "Iaz plazako eszenatoki gainean egin genuen kontzertua lehenengoz eta aurten ere, halaxe egingo dugu", dio Aitor Biain Bidarte



Oñatiko Musika Banda, iaz, San Migel egunean. GOIENA

zuzendariak. Urtean zehar landutako erreperatorioaren lagin bat aurkeztuko dute eta hasi, egunak eskatzen duen moduan, *San Migel* ereserkiarekin egingo dute. Ondoren, filmetako soinu bandetako piezak eta pop musika ere joko dituzte. *The Lion King*, *West Side Story*, *In The Shadow of Napoleon*, *Chanson de amour* eta gehiago. Kontzertuaren aurretik, kalejira egingo da herriko kaleetan barrena eta hori ere berezia izango da, Aita Madina Txistulari Taldearekin batera egingo dutelako.

Sorotan Bele gogoan

Errosarixo Egunean kontzertua, formatu berezian eskainiko du Biainek zuzentzen duen Oñatiko Bandak. *Sorotan Bele gogoan* kontzertua eskainiko baitute, 23:00etan. "Duela pare bat urtetik dihardugu beste eragile batzuekin proiektuak garatzen eta hor kokatzen dugu proiektu hau. Zarauzko konposatzaile Xabier Zabalak hainbat proiektu ditu bandarako eta horien artean zegoen *Sorotan Bele gogoan* kontzertua. Iruditu zitzaigun proposamen interesgarria izan zite-

keela jaien bueltan egiteko", dio Biainek. Banda ikusi ohi dugun formatutik aldentzen da proposamena, gauzez eta erromeria estilora egingo delako. Oñatiko Bandak lagun izango ditu Sorotan Beleko lau kide: Gorka Sarriegi, Urbil Artola, Ritxi Salaberria eta Aitor Etxaniz. Bi taldeen arteko sinergiak batzuek oso emaitza musikal interesgarria ekarriko duela dio Biainek. "Oso moldaketa politak egin ditu Xabier Zabalak".

Erreperitorioari dagokionez, batez ere, Sorotan Beleren lehenengo diskoko abestiak eskainiko dituzte. *Marinelaren zain*, *Arratsalde honetan*, *Sing Sing-ati-ko folk&rolla* eta gehiago. "Zeinek ez du ezagutzen Sorotan Bele. 1990eko hamarkada bizi izan dugunok ezagutu dugu eta gaur egun ere badira irratian, zein erromerietan entzuten diren piezak". Eta, hain justu, horiek dira kontzertuan eskainiko diren abestiak. Ordu eta 20 minutu inguruko kontzertua izango da, bideoak ere erabiliko dira lehenengo Sorotan Beleren garaia gogoratzeko, azken finean, "tributu erako bat izango da".



- Gasa
- Berogailuak
- Pellet eta egurrezko estufak
- Eguzki plakak
- Energia berritzaileak
- Isolamendu ekologikoak: zelulosa, kortexo proiektatua eta xafla termikoak.
- Galderen aldizkako azterketak.

- Sukaldeak
- Bainurako behar duzuen guztia

Finantzatzeko aukera onak!

943 71 82 49 - 943 75 16 46
Sagar Erreka 2, behea (Soraluze)
fogasleriturgintza@gmail.com

Ondo
pasa
jaiak!



Gera sawmigelak!

www.eguzkialdeenbalajeak.com

☎ 943 78 06 54 (Oñati)

Miren Arregi Amasorrain OÑATI

Sorotan Bele gogoan delako kontzertua egingo dute Errosarixo Egunean Oñatiko Musika Bandak eta Sorotan Bele taldeko kide izan ziren lau musikaririk –Gorka Sarriegik, Urbil Artolak, Ritxi Salaberriak eta Aitor Etxanizek–. Ez da taldearen itzulera bat, baina taldearen lehenengo disko arrakastatsuko abestiak eskainiko dituzte.

Zer da kontzertuan ikusi eta entzun ahalko dena?

Xabier Zabala musikari zarauztarraren ideia bat izan zen. Sorotan Beleko lehendabiziko diskoko abestiak moldatu zituen herriko bandentzat eta niri deitu zidan ea kolaboratzera animatuko nintzatekeen galdetuz. Eta nik, noski, baietz esan nuen. Hau ez da taldearen itzulera, ez da Sorotan Bele taula gainean egongo dena, baizik eta Sorotan Beleko batzuk egongo gara.

Urte asko daramazu taula gainera igo barik?

Urte asko eman ditut mundu honetatik kanpo. Proiektu honen aurretik deitu ninduten txistularien banda batekin edo bestekin kolaboratzeko, baina honako hau

"Benetan hunkitzen gara, oso berezia da"

GORKA SARRIEGI SOROTAN BELE TALDEKO ABESLARIA

Sorotan Bele taldeko lau kidek kontzertua egingo dute Errosarixo Egunean Oñatin, Oñatiko Musika Bandarekin batera. Herriko plazan izango dira, 23:00etan

beste gauza bat da, kontzertu luzeagoa. Lehenengo diskoko erreperitorio guztia joko dugu, eta gehiago ere bai, kontzertua luzatzeko. Urteetan egon naiz gitarra jo gabe eta ezer egin gabe eta orain gitarra gabe igotzen naiz, hain zuzen ere, horregatik.

Ze sentsazio dituzu?

Ardura eta urduritasun handia. Beti egin behar izan dut borroka nire buruarekin urduritasunen aurka. Nire izaera horrelakoa da. Lehen kosta egiten zitzaidan eta orain ere bai. Gainera, ni ez nintzen abeslaria izan behar Sorotan Bele. Beste abeslari bat aurkitzea zen asmoa eta nik gitarra jotzea, baina, olatuak harrapatu gintuen.



Gorka Sarriegi. ANE MENDIZABAL

Musikalki proposamen interesgarria iruditzen zaizu bandarekin aurkeztuko duzuenara?

Oso polita. Oso ondo uztartzen dira taldea eta banda. Guretzako oso sorpresa polita izan da, Xabier Zabalaren moldaketak oso ederrak dira.

Abesti ezagunak entzungo dira: Arratsalde honetan, Marinelaren zain, Zortzi orduko ekaitza... Gaur egun ere arrakasta duten abestiak.

Erabat sinesgaitza egiten zaigu oraindik ere. Gainera emanaldietan ikusten ari gara eta datorren jendea propio datorrela kontzertura eta ez bertatik pasatu delako. Jendearen jarrera ere harrigarria izaten ari da. Benetan hunkitzen gara emanaldietan, oso bereziak izaten ari dira. Ikusten dugu jendea guztiz entregatuta, adin guztietako jendea abesten, sekulakoa da.

Uste dut musika bandetan ere gogotsu daudela zuekin aritzeko.

Hori nabaritu dugu orain arte egin ditugun kontzertuetan. Ez da euredako ohiko erreperitorioa eta eskertzen dute aldaketa. Oso polita da hori jakitea eta jendea hurbiltzen bada ba, fenomeno, horretarako egiten dugu.

zapore jatetxea

m Mondragon Unibertsitatea

Ibarra zelaia, 2
Tel: 671 407 658
zapore.enpresagintza@mondragon.edu

Gosariak • Eguneko menuak
Menu bereziak • Askariak
Eramateko janaria
Artisau gozogintza

ONDO PASA JAIXAK!

f i

TXANTXIKU
ELEKTRIZITATEA
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Kale barria 20, Errekalde 8 • OÑATI
Tel.: 943 78 01 54
Julen Uribeetxeberria - 699 34 89 47
txantxiku@telefonica.net

Gora sammigelak!



Arabar Errioxako En Tol Sarmiento taldea. GOIENA



Alfonso Cabrales, 'Fito'. WIKIPEDIA



Gauargi taldea. GAUARGI



Mutiko, Tatta eta Denso. AIRAKA

Musika doinurik ez da faltako

Udalak zein txosna batzordeak musika eskaintza zabala prestatu dute aurtengo San Migel eta Errosarixo jaietarako. Herriko plaza, Atzeko kale eta txosnagunea izango dira agertokiak; taldeak, berriz, herritarren gustu ezberdinetara egokitzeko modukoak

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Herriko jai nagusiak ospatzeko antolatutako ekintzen artean ez da musikarik falta. Eskaintza zabala da. Asteburu honetan bertan izango dira lehendabiziko emanaldiak. Doan izango dira kontzertu denak.

ANDONI OLLOKIEGI

Txosnagunea / Irailak 28 / 19:30

Txantxikuren jaitsiera aurreko minutuei jarriko die zuzeneko musika Andoni Ollokiegi gitarra lagun duela. Rock zalea, bitan banatuta eskainiko du kontzertua, Txantxikuaren jai-

tsieraren ostean, musika eskaintzen jarraituko du toki berean.

GAUARGI

Plaza / Irailak 28 / 20:15

Gauargi musika taldea 2012. urtean hasi zen erromeriak egiten

eta ezkontzak eta bestelako ospakizunak musikaz girotzen. Erromeriak zein disko-festak ere egiten dituzte egun, erreperitorio zabala eskainiz. Iluntzean hasiko du emanaldia eta nagusien danborradaren ostean jarraituko, plazan. Amaia Txintxurreta oñatiarra eta Asier Castro egongo dira oholtza gainean.

HUNTZA

Txosnagunea / Irailak 23 / 22:00

Otsailean bukatuko du bere ibilbidea Huntza taldeak. 2014an du proiektuak sorlekua, unibertsitateko ikasleen baitan, Bilboko kaleetan, eta Miribillan egingo duen zuzenekoarekin agurtuko da, taldea osatzen duten sei musikariak gipuzkoarrak badira ere. "Azkena izango balitz bezala" ari da egiten emanaldiak, eta indar horrekin etorriko da taldea Oñatira ere, panderoa eta

trikitia, besteak beste, gogoz astintzera.

MUTIKO, TATTA & DENSO

Txosnagunea / Irailak 23 / 22:00

Jaietako lehen asteburuan, Huntza taldearekin barera, bakar-kako ibilbidea duten hiru gaztez osatutako taldea, baina ikuskitzun bikaina egiteko elkartzen dena. Denso produkzioan eta Tatta eta Mutiko ahotsetan. Besteak beste, *Ale Sardui*, *Sativa*, *Frio* eta beste abesti batzuk dituzte euren lan esanguratsuenen artean.

NHIL

Atzeko Kale / Irailak 29 / 19:00

Aretxabaletarrak, eskoriatzarrak eta arrasatearrak dira Nhil taldea osatzen duten kideak eta Oñatiko jaien barruan joko dute. *Bizi bagina* da taldearen bigarren lana, iaz kaleratutakoa.

ZURICH AUTOK eskaintzen dizu:

BALORAZIO PACKA:

Autoaren lehen hiru urteetan, berriaren % 100eko balioa mantenduko da lapurreta, kalte eta sute kasuetan, baita laugarren urtetik aurrera baloraziorako portzentaje bereziak ere

BABES PACKA:

Gidabaimena galduz gero, demigorrezko ikastaroaren diru-itzulketak 500 euro izango da, gehienez.

ASISTENTZIA PACKA

Istripua edo lapurreta izanez gero, ordezkotako autoa 14 egunean erabiliko da, gehienez ere.

FLEXIFRANKIZIA

Sistema berri horrekin, frankizia urtean % 10 murriztuko da automatikoki, ezbeharrik izaten ez bada.

GAINERA...

Zure seguruarekin familia osoarendako zerbitzu ugari izango dituzu.



ZURICH

M^o del Mar Urrutia Negueruela

Motxon kalea 5 behea
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 30 09
Faxa: 943 78 31 36
Polts.: 620 77 66 20

RUKULA ETA SUA**Txosnagunea / Irailak 29 / 19:00**

Pop-rock musika estiloko talde bizkaitarra da Sua, Jatabekoa, 2018an hasi zena musika sortzen. Usurbilgo Rukula talde instrumentalak, berriz, zaharragoa da; bigarren lana kalean zuten ordurako, 2015ean hasi zuen bere ibilbidea M-ak musika taldearen kanten bertsiok eginez.

EN TOL SARMIENTO**Plaza / Irailak 29 / 23:00**

Kontzertuak jendez lepo betetzen dituen En Tol Sarmientok plazan joko du San Migel egunean. *Gurutzat* izeneko biraren barruan makina bat emanaldi ari da egiten. Gaur, esaterako, hilak 22, Logroñon joko du eta Oñatikoa izango da hurrengo kontzertua. Handia da Oñatiko plaza, baina txiki ere gera daiteke taldeak erakartzen dituen jarraitzaile kopurua ikusita.

ELUSTONDO ANAI-ARREBAK**Atzeko Kale / Irailak 30 / 18:30**

Udanako mendatea jaitsi eta Oñatin izango dira, Herri Egunean, Legazpiko Elustondo anai-arreba trikitilariak.

BAD SOUND**Txosnagunea / Irailak 30 / 21:00**

Euskal Herriko reggae panoramaren klasiko baten emanaldia ere egongo da aurtengo jai nagusietan. Herri Egunean, oñatiarren eta jaietara hurbiltzen direnen gorputzak eta kontzien-



Ribera Canta seikotea. RIBERA CANTA

tziak dantzan jarriko ditu Iruneko hirukoteak.

LEHEN LERROA**Txosnagunea / Irailak 30 / 21:00**

Oñatiko taldeak ere badaude zuzeneko emanaldien kontzertuen zerrendan. Hilaren 30ean, esaterako, Lehen Lerroak joko du, nola ez, Añuberekin batera. Gainera, azken aldian jairik jai dabilen Lizartxo herriko taldeak ere dantzan jarriko ditu txosnagunean daudenak. Gaueko laugarren taldea izango da; DJ Azeitunaren aurretik joko du.

RIBERA CANTA**Lazarraga lorategia / Urriak 1 / 13:00**

Nafarroako jotak eskaintzen duen talderen bat ere urtero etortzen da jaietara, eta aurten ere bai. Kasu honetan 1989an Tuteran sortutako taldea dator, hamazazpi urte daramatzate



Nhil taldea. GOIENA

eurena den musika herririk herri eskaintzen.

WILLSON AND WILLSONETIS**Atzeko Kale / Urriak 1 / 19:00**

Adolfo Cabralesen jarraitzaileak, tabernan *Fito*-ren kantak jotzeko eskatu zien behin lagun batek, eta hor sortu zen Fito & Fitipaldis taldeari tributua egiten dion *cover* talde hau.

TAPIA ETA LETURIA BAND**Txosnagunea / Urriak 1 / 19:00**

Euren lehenengo kantutegiari buelta eman eta errepasatzeko gogoia sartu zaie Tapia eta Leturia trikitilariari eta berriz bueltatu dira herriko plazetara. 2007an egin zuten lehengo etaparen azken emanaldia jendarean eta bigarren etapa bati ekin diote orain. Bitarte horretan, baina, ez dira geldi egon. Tapiak hainbat proiektu egin

ditu eta Leturia Korrontzi taldearekin ibili da azkenaldian.

PURO RELAJO**Plaza, / Urriak 2 / 20:00**

Gelditu barik dabil Puro Relajo talde nafarra. Euskal Herriko zein hemendik kanpoko hainbat herritan jo dute dagoeneko eta oraindik luzea da iragarrita dituzten emanaldien zerrenda. Tartean dago Oñatikoa, jaietara amaiera emango dien kontzertua, Errosarixo Bixamon egunean.

Beste emanaldi batzuk ere bai

Zuzeneko kontzertuetan ez ezik, bestela ere entzungo da musika herriko kaleetan jai egunean. Jose de Azpiazu musika eskolako triki-pandero eta

soinujoleen taldea, txistulariak eta Tolosako gaiteroak, adibidez, kalerik kale ibiliko dira Herri Egunean, giroa alaitzen. Aita Madina txistulari taldeko musikariak ere goiz eresiak egingo dituzte Herri Egunean zein Errosarixo egunean. Bestalde, ohikoak bihurtu diren musika hitzorduak ere ez dira faltako, Musika Bandak San Migel egunean egingo duen elkarteko taldeek Errosarixo Bixamon egunean txosna gunean eskaintzen duten *Dibertsioak* saioa, esaterako.

Musika gabeko jairik zaila da imajinatzea eta San Migel eta Errosarixo jaietan ere ez da isilunerik egongo.

Xabier Berasaluze *Leturia* eta Joseba Tapia trikitilariak. ANTONIO MORENO

Oñado pasa jaiak!

Aker • Amets • Etxe Aundi
Garoa • Helmuga • Izarraitz
Mauxka • Soraluze
Txopekua • Urtiagain

PIZTU GOIENA TELEBISTA JAIETAN



TXANTXIKUAREN JAITSIERA, ZUZENEAN

OÑATIKO SAN MIGEL JAIAK

IRAILAREN 28AN, EGUENEAN, 19:30EAN
GOIENA TELEBISTAN ETA 'GOIENA.EUS' ATARIAN

ZUZENKOA



DANBORRADA ETA SAN MIGEL EGUNEKO EKITALDIAK

GOIENA TELEBISTA, 'HEMEN DEBAGOIENA' SAIOA

IRAILAREN 29AN, EGUBAKOITZEAN, 18:00/20:00 ETA 22:00



ERROSARIXO BIXAMONA, ZUZENEAN

OÑATIKO SAN MIGEL JAIAK

URRIAREN 2AN, ASTELEHENEAN, 13:30EAN
GOIENA TELEBISTAN ETA 'GOIENA.EUS' ATARIAN

ZUZENKOA



JAIEN ERREPASO ZABALA

GOIENA TELEBISTA, 'JAIK' SAIOA

URRIAREN 4AN, EGUAZTENEAN, 19:30/21:30 ETA 23:30



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!



goiena

Zu hemen zaude.

ARETXABALETAKO SANMIGELAK 2023



Beinke-Loramendi dantzak 30 urte

Hiru feria, bi kaletan

Hodei Ezpeleta 'Bihurri' aizkolariari elkarrizketa

Kaparra taldearen lehen emanaldia sanmigeletan

Urteko azokarik jendetsuenaren zain

AITOR AGIRIANO



UNAI ITURRIOTZ

Ondo pasau sanmigelak!

- Abokatua
- Bitartekaria
- Aholkulari juridikoa



Errekabarren 18, behea
20550 ARETXABAETA



943.080796



943.080796



696378909



unai@iturriotz.eus



www.iturriotz.eus

EGUBAKOITZA 29

18:00-20:00 TRATU ONEN ALDEKO EKINTZA: *Photocall*-a, txapak eta telazko poltsak, Kurtzebarri eskolako kantxan.

18:30 EMAKUMEEN PILOTA PARTIDAK Iturrigorri frontoian.

19:00 Oronozko ERRALDOI KONPARTSA, Aretxabaletako gaiteroekin batera.

20:00 KONTZERTUA Kaparrak taldearekin, udaletxe zaharrean, gazte mugimenduak antolatuta.

21:00 KANTU AFARIA, Sei Pistols & Trabuko bat taldearekin.

22:00 DJ MIKELTXI Errekabarren atzeko plaza txikian.

ZAPATUA 30

10:00-14:00 Artisautzaren eta Nekazaritza Ekologikoaren XXVIII. FERIA, Durana kalean, eta Bertako Ganadua IX. FERIA, Arlutz kantxan.

10:00 DIANA, Aretxabaletako txistulariekin.

JAIETAKO EGITARAUA



Zapatuan, artisautza eta nekazaritza azoka; irudian, iazko azoka. GOIENA

11:00 TALOEN TXOSNA, Loramendi elkarteak antolatuta.

11:30 Leizarra Musika Eskolako TRIKILARIAK, kaleetan zehar.

12:30 Lekaixoka bertso taldeak antolaututa, BERTSO SAIOA, Durana Kalean. Oihana Iguaran eta Unai Agirre.

12:45 TXALAPARTA Durana kalean.

13:00 ZUBIETAKO JOALDUNAK kaleetan zehar.

14:30 ELKARTASUN BAZKARIA Iturrigorri frontoian.

17:00 AD LIBITUM txaranga, kaleetan zehar.

17:00 HAURRENDAKO BOLO TXAPELKETA bolatokian.

17:00 SKATE FESTA skate parkean.

18:30 XAKE ERAKUSTALDIA Herriko plazan, Arlutz xake elkarteak antolatuta.

19:00 Beinke Loramendi eta Larrain dantza, DANTZA EMANALDIAK, Herriko plazan.

20:00 BURRUNBAZALE txaranga, gazte mugimenduak antolatuta.

20:00-00:30 LISKER taldea Herriko plazan.

22:00 PINTXADA TEMATIKOA, udaletxe zaharrean, gazte mugimenduak antolatuta.

22:30 BOLO TXAPELKETA bolatokian.

DOMEKA 1

10:00 DOKE TXAPELKETA, Basotxo elkartearen eskutik, Basotxo aurrean.

11:00 DIANA Aretxabaletako gaiteroekin.

13:00 HERRI KIROLAK Herriko plazan.

16:00 MUS TXAPELKETA Orly tabernak antolatuta.

18:30 MIRUA taldearen emanaldia, Herriko plazan. Aretxabaleta Abesbatzaren kontzertuaren ordez.






Gona sanmigelak!

INPLANTOLOGIAKO
ESPEZIALISTAK 3D
TEKNOLOGIA BERRIENAREKIN

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN
ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

DURANA KALEA 22 • ARETXABAETA • TEL.: 943 79 93 55



**Mondragon
Unibertsitatea**

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea

943 71 41 57

harrera.huhezi@mondragon.edu

www.mondragon.edu

Ondo pasatu
Sanmigelak!

Eskoriatzako campusa

Dorleta auzoa, z/g
20540 Eskoriatza

Aretxabaletako campusa

Otalora 31
20555 Aretxabaleta

Bilbao AS Fabrik campusa

Olagorta Kalea, 26
48014 Bilbao

Badatoz euskal jaiaren bueltako festak

Urtero antolatzen diren ekitaldiek ez dute hutsik egingo eta aurten ere protagonista izango dira kantu-afaria, artisauen eta nekazaritza ekologikoaren feriak, ganadu erakusketa, herri bazkaria, euskal dantzak eta herri kirolak, besteak beste

Mirari Altube ARETXABALETA

San Migel jaiak ate-joka dira, eta herritarrek zein eragileak gertu daude horiei ekiteko. Aretxabaletako Udalarekin batera, hainbat elkartek hartuko dute parte aurten ere; horien artean daude gaiteroak eta txistulariak, Atxabaltako gazte mugimendua, Basotxo, Leizarra musika eskola, Lekaixoka bertso elkarteak, Loramendi dantza taldea, Loramendi elkarteak, Aretxabaleta Abesbatza –emanaldia azaroaren 26ra atzeratu beharrean izan dira–, eta Orly taberna. Guztien artean urteroko egitarauri eutsi diote, 32.000 euroren bueltako aurrekontuarekin.



Udal ordezkariak eta San Migel jaietan parte hartuko duten hainbat eragile. M. ALTUBE

Kantu afarirako izen-ematea

Egubakoitzean, irailaren 29an, egingo den kantu-afariak gero eta herritar gehiago batzen du; oraingoan ere norberak eroango du jatekoa eta Sei Pistols&Trabuko Bat taldeak girotu. Parte hartzeko, alde zuzenetik eman beharko da izena, Arkupen; astelehenean, hilaren 25ean, zabalduko dute epea (09:00) eta euro bat ordaindu beharko da, trukean kantu liburua eskuratuz. Euriaren erruz Iturri gorri pilotalekuan egiten bada 500 lagunendako egongo da lekua, eta Herriko Plazan izango balitz, 600endako.

Gune Morea

Indarkeria matxistarik gabeko jaiak aldarrikatu ditu Berdintasun zinegotzi Ainhoa Sanchezek: "Gune Morea egongo da zapatuan, Herriko Plaza barrenean, 19:00etatik 22:00etara". Horrez gain, halako kasuak salatuzko telefono-zenbaki bat ere izango da eskura, bi egunetan, 20:00etatik 08:00etara bitartean; hona hemen hori: 678 06 17 00.

Bestetik, Andramaixetan legez, behar bereziak dituzten umeei

keinu egin gura izan diete. Hala, ez da musikaririk jarriko barraketan, 17:00etatik 19:00etara bitartean.

Hiru feria, bi kaletan

Durana eta Mitarte kalea postuekin beteko dira irailaren 30ean. Biolurren eskutik datorren Nekazaritza Ekologikoaren 28. feriarekin baitan egongo dira hamazortzi postu; gehienak izango dira ingurukoak, baina Falcesko berakatzak, Zamudioko arrain kontserbak eta Itsasuko piperrak ere izango dira. Bestetik, 35 artisau elkarteko dira eskaintzeko besteak beste, bitxiak, kandela eta xaboi naturalak, lore lehorrak eta buztinezko ontziak; hain zuzen, buztina lantzeko tailerra egongo da Herriko Plazan. Ikastetxeek, Kurtzebarri eskolak eta Arizmendi ikastolak, ere jarriko dituzte postuak.

Ganaduak bere tokia izango du Arlutz osteko kantuan. Bost ganaduzalek ekarriko dituzte animaliak, besteak beste, behi piriniotarrak eta terreña behiak, pottokak, euskal mendi behorrak, ahuntz azpigorriak, sasi-ardiak eta ardi latxak.

Ondo pasa San Migelak!!

gora Atxabalta

EGUZKIGRAF zure zerbitzura
inprimategia

Arretxabaletako Industrialdea F-0-4
Araba ibilbidea
20550 Aretxabaleta
Ifnoa: 943 791 844
E-mail: info@eguzkigraf.com



Kaparrak musika taldeko kideak. GOIENA

Kaparrak musika taldea estreinakoz jaietan

Estreinako kontzertua eskainiko du Kaparrak musika talde aretxabaletarrak 2023ko San Migel jaietan gazte mugimenduak antolatuta. Hilaren 29an, egubakoitzean, izango du tokia kontzertuak udaletxe zaharrean, arratsaldeko 20:00etan hasita

J. Murua Mesonero ARETXABALETAKO Taldea sortzeko ideia duela lau bat urtetik zeramaten buruan Kaparrak taldeko kideek, baina aurtengo udara arte ez dute eman taldeari forma emateko aurreparausoa.

Kuadrillako bederatzi lagun elkartuta sortu zuten taldea. Beharrezko instrumentuak lortu ostean, ekin zioten entseguari. Gitarra dute erdigunean, baina kaxa, baxua, turutak eta marakak ere jotzen dituzte.

Runba "abstraktua"

Runba aldarrikatzen dute, nahiz eta taldekideek "runba abstraktua" deitzen dioten haiek egiten dutenari. Erreferente gisa hainbat talde dutela ere aitortu dute: "Los Delinquentes taldea da gure erreferentziako taldeetako bat, baina, gurera etorrita, Euskal Herrian asko entzuten hasi den Lizarrako Raimundo el Canastero edo herri mailako Jotabe taldeak ere gustatzen zaizkigu".

Abesti gehienak Los Delinquentes taldearenak dira, baina badituzte euskarazko lau bat abesti ere. Guztiak beste talde batzuen bertsioak badira ere, guztiei

beste "ukituren bat edo beste" sartzen saiatzen dira "letra zatiren bat aldatu eta gure gauzak sartuz".

Sanmigeletan "debuta"

Datorren asteko egubakoitzean izango dira estreinakoz oholtza gainean, eta taldekideek diote ez zutela espero "horrenbeste jenderi iristea mezua". Agertokian asko gozatuko dutela zailentzarik ez daukate eta, beraz, haien helburua da "ikuskitzen ona ematea eta bertaratuko den jendeak ere guk gozatuko dugun bezain beste gozatzeko aukera izatea".

Sorpresak egongo dira

Taldekideek iragarri dute bai kontzertuaren hasieran, baita amaieran ere, "sorpresa bat baino gehiago" izango dutela prestatuta. Haietaz gain beste inor oholtzara igoko den ez dute argitu nahi izan: "Kolaboraziorik egongo den edo ez, ikusiko da. Bertara joan beharko da jakiteko ea gutaz gain beste inor igoko den eszenatokira, ez den inor gehiago igoko, edo zer gertatuko den".

Jota
Harategia
Ondo ibili sanmigeletan!

Durana 15 • Aretxabaleta • 943 79 71 69

**GARAJE
NORTE**

40

URTE ZUREKIN

Konfiantzari eusten diegu!



MULTIMARKA

Mekanika, txapa eta pintura
Marka guztiak konpontzen ditugu
Autoaren zerbitzu osoa

BASABE POL. A 1-3. pab. - 20550 ARETXABALETA - 943 71 20 03

Hotzak
**ez zaitzala
bazterrean
laga!**



Bateria
berrikustea
DOAN



*Gora
salmigelak!*

A R E D E R
ARRANDEGIA

MITARTE 1 • ARETXABALETA • 943 77 13 79 • 636 02 39 96

la 30 urte dituen dantzari heltzeko gertu

Beinke elkartearen eta Loramendi ikastolaren batze prozesua eta Loramendi euskara elkartearen sorrera irudikatzen duen Beinke-Loramendi dantzak ez du hutsik egingo zapatuan; hori gogorarazteko entseguak astelehenean eta eguenean izango dira

Mirari Altube ARETXABALETA

Aurtengo abenduan 30 urte beteiko ditu Loramendi elkarteak. Euskararen bueltan lanean diharduen elkarteak, baina, ez zen hutsetik sortu. Haren guraso izan ziren batetik, Beinke –zazpi urte lehenago eratutako kultur elkarteak– eta bestetik, Loramendi ikastola –25 urteko ibilbidearekin 500 bazkide inguru zituena–. Euskararen erabilera sustatzea eta Aretxabale-tako euskalgintza indartzea izan ziren batze horren helburuak. Eta elkarte berri horren sorrera Beinke-Loramendi dantzarekin irudikatu zuten, urtebete beranduago.

Bi ilara, bateratu

Dantza bi ilaratan banatuta hasten da: batek Beinke irudikatzen du eta besteak, Loramendi. Eta gero, batu egiten dira, uztartzen diren bi bide irudikatuz, Loramendirekin gertatu zen bezala. Musika Jose Ramon Vitoria musikari arrasatearrak konposatu zuen eta dantza Aretxabale-tako dantza taldeak prestatu; fandangoa, arin-arina eta baltsa batu zituzten, besteak beste. Kantuaren letraren egileak, oster, Jon eta Aitor Sarasua, eta Jon Iñaki Izarzelaiak bertsolariak izan ziren. Lehenengoz, 1994ko sanmigeletan aurkeztu eta dantzatu zuten, Herriko Plazan.

Plazan ezin kabitu

Azken urteotan gora egin du parte-hartzeak, eta iaz, txiki geratu zen plaza. Jone Meabek eta Maialen Elorzak hamar urte inguru daramatzate dantzatzeko eta aurtengorako gogotsu daude: "Herriar mordoak elkartzen gara, adin tarte ezberdinetakoak, eta mutilak ere gero eta gehiago dira".

Zapatura begirako azken entseguak astelehenean –Kurtzebarri eskolako pistan– eta eguenean –Herriko Plazan– egingo dituzte (19:00), eta derrigorrez agertu beharko da horietara, bikoteak osatzeko eta lekua zehazteko.



Sortu berri zen dantza lehenengoz dantzatzeko, 1994an. ARETXAGAZETA



Herriko Plaza dantzariz beteta, iaz. IMANOL SORIANO



BEROA OKINDEGIA
Basabe poligonoa 2 / Loramendi 6
Aretxabaleta

hazi

EUSKAL OGIA
GURE GARIA, GURE OGIA
NUESTRO TRIGO, NUESTRO PAN

EUSKO LABEL
EUSKO LABEL GARIAZ EGINDAKO OBIAN
ESPEZIALIZATUTAKO TOKIA
ESTABLECIMIENTO ESPECIALIZADO EN
PAN ELABORADO CON TRIGO EUSKO LABEL

Ondo ibili sanmigelotan!

Herrikidek, ARLO GUZTIAK landuz, jabeen komunitateen kudeaketa lan egiten du; jabeen lasaitasuna bermatuz eta, betiere, zerbitzuan PRESTUTASUN osoa bilatuz.

Hurbil egoteak ematen duen erosotasunaz baliatuz -Aretxabaletan gaude- zure komunitatea zentzuz eta arduratsu kudeatzen dugu. Horretaz aparte, beste balio bat dugu: eraikuntzan eta lan arloen zuzenketa urte askotako esperientzia (ezbeharrak, dokumentazioa, laguntzak...)

Ondo ibili jaietan!

HerriKide
Komunitateen kudeaketa

Basabe,4 - EO-11 20550 Aretxabaleta
Tel./Faxa: 943089875 / Tel.: 679455764
herrikide@outlook.com
www.herrikide.net

"Txapela berrestea oso konplikatua izango da"

HODEI EZPELETA 'BIHURRI' AIZKOLARIA

Euskadiko eta Bizkaiko txapelduna da aizkolari eibartarra, eta domekako herri kirolen erakustaldian parte hartuko du, bestea beste, harri-jasotzaileekin

Mireia Bikuña Madrid ARETXABALETAKO Urte bukaeran jokatu da Euskadiko aizkora txapelketa. Hor lehiatu da Hodei Ezpeleta (Eibar, 1999).

Euskadiko eta Bizkaiko txapeldun zaitugu. Txapelak berresteko asmotan?

Oso zaila izango da. Iazko garaipena oso polita izan zen, baina egoera berezi baten lortutakoa. Aizkolari onenak ez ziren lehiatu, besteak beste, Iker Vicente eta Aitzol Atutxa, eta horrek erraztu egin zuen txapela lortzea. Bada, aurtan Vicente egongo da, eta bera da aizkolari onena. Hortaz, konplikatua izango da.



Ezpeleta, Euskadiko txapelarekin. H.E.

Maila bat gorago dago?

Bai. Nik egun biribila izan beharko nuke eta lan bikaina egin, eta Iker Vicentek egun txarra izan. Eta, hala ere, zortea beharko nuke txapeldun izateko.

Zein izango zure helburua orduan?

Iazko txapelketan egindako denbora eginda ere, ez da nahikoa izango Vicente mendean hartzeko. Baina, iazko txapelketako denbora hobetzen badut, helburua beteko nuke.

Baina egungo txapelduna izateak ez dizu nolabaiteko presiorik eragiten?

Txapela defendatzea tokatzen zait, baina garbi daukat aizko-

lari onena beste bat dela. Ez daukat presiorik, egia esan.

Ze ezaugarri behar ditu aizkolari on batek?

Ordu asko eta sakrifizio handia eskatzen dituen diziplina da. Etengabeko ikaskuntza bat. Arlo fisikoa, psikologikoa, aizkora ondo zaindu, norbere neurri eta ezaugarrietara egokitu... Lehiatzeko egunaren aurretik eta ostean lan handia eskatzen duen kirola da: egurra prestatu aurretik eta su-egurrak egin ostean.

Ernesto Ezpeleta Bihurri-ren semea zara. Aita eta entrenatzailea. Nola kudeatzen da hori?

Aita erreferente bat da niretzat. Bide ezberdinak jarraitu ditugu: nik txapelketen bidea hartu dut eta aitak erakustaldiena. Baina nire entrenatzailea da, eta txapelketatan, nire laguntzailea ere bai.

Nolako entrenatzailea da?

Oso zorrotza. Daukadan guztia ateratzen saiatzen da. Nik baino esperientzia handiagoa du, eta hori ona da niretzat. Azkenaldian, hobetu ditzakegun xehetasun txikiei erreparatzen die. Oso zorrotza da, baina niri gustatzen zait.

Herri kirolen erakustaldia urriaren 1ean

Domekan, 13:00etan, Herriko Plazan egingo den erakustaldian aizkolariak, harri-jasotzaileak eta Iparraldeko jokoak egingo dituzten kideak egongo dira. Hodei Ezpeleta, Alex Txikon, Goizeder Beltza eta Ernesto Ezpeleta aizkolariak, Gari Garmendia eta Olaia Esnaola harri-jasotzaileak eta Karlos Aretxabaleta – Iparraldeko jokoetan– egongo dira.

Jaialdiaren lehen zatian, parte-hartzaile bakoitzak bere diziplinan erakustaldia egingo du, ariketa ezberdinak eginez: abiadura froga, lasto-fardoan altxatzea, lasto jaurtiketa..., besteak beste. Ostean, lehia egingo dute lau aizkolariek, bi taldetan banatuta.

Batzen gaituen eguna.

ondoko ospatu Sanmigelak!!

ejj-pnv.eus

Gemes

Irudi aholkulariak



Aizu, mutil!

Laserra zuretzat ere bada. Edozein kirol praktikatzeko. Baita gimnasioan erosoago sentitzeko ere.



Ile apaindegia



Laserra



Bekainen diseinua



Makillajea



Aurpegi eta gorputz tratamenduak

Ilargi plaza 2 • Aretxabaleta • 943 79 99 18

Hurbildu eta galdetu konpromisorik barik.

Disfruta! sanmigelak!



Aretxabaletako komertzioa bizirik!
Egin dezagun aurrera denok batera!
Gora sanmigelak!





Sanjelak Niguelak

2023



Jai
zerioentsuak
herritar
guztiei!



Aretxabaletako
Udala

Dozena bat postu izango dira biharko azokan

Azoka 10:30ean zabalduko dute. Umeendako tirolina, Intxortako igoera, patata tortilla lehiaketa, Oiharteko upela eta txaranga izango ditu Udazken jaiak. Udalak, gazte asanbladak eta Goibeko Euskaltzaleen Topaguneak bat egin dute antolaketan

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Azken konfirmazioen zain Sebastian Arantzabal, Pili Arin eta kontsumo taldeko Iñigo Gabilondo plazan izango dira bihar. Herriko baratze parkeko ordezkariak osatuko dute barazkien eta fruten eskaintza.

Bestelako produktuak ere izango dira. Marokoar gozoekin jarriko dute postu bana Mahomed el Houmanik eta Omar Bitibik. Seigarren mailako ikasleek ere salmenta mahaia jarriko dute eta Baobeer garagardoa eskuratzeko aukera ere izango da.

Artisauen atalean, berriz, Pili Arin, Camila Andrea Diaz, Mohamed el Houmani eta Maita Barainkua izango dira azokan.



Herriko baserritarren eta artisauen azoka, iaz. IMANOL SORIANO

Urte zaila orturako

Iaz barazki ederrak izan zituzten azokan herriko baserritarrek. "Eguraldia tarteko, aurten konplikatua izan da; sikutea, uholdeak, bero handia... Produktu gehienei eragin die. Tomaterako

urte eskasa izan da. Sagarra da gehien dagoena", azaldu du Sebastian Arantzabalek.

Askotariko eskaintza

Azokara adin guztietako publikoak gerturatzeko aurten ere

INTXORTAKO IGOERA 11:00ETAN JOKATUKO DA; ORDU ERDI LEHENAGO IREKIKO DA IZEN-EMATEA

Errekreazio tailerra

Gaur, barikua, egingo dute lehen saioa, 18:00etan, Espaloian. Hurrengo astean egingo dute bigarrena. Memoria Eguneko antzeztutako bisita gidatua prestatzeko bina orduko saioak izango dira. Intxorta 1937 kultur elkarteak, Lubakikoak elkarteak eta Udala dira antolatzaileak. Boluntarioak behar dira.

Bi lan berri

Beste alde. Gizona ez den hori ikus-entzunezkoa eta Angiozar 1936. Gerrateko kontuak liburua aurkeztuko dituzte egileek hilaren 30ean kafe antzokian. Mondragon Unibertsitateko ikasle Itziar Juaristik, Lorea Elorriagak eta Irati Alvarezek sinatzen dute dokumentala. Liburua, berriz, Iñaki Arenaza Agirrek ondu du.



Antzeztutako bisita gidatu bat. GOIENA

Memoria Eguna prestatzeko lanetan ari dira hainbat herritar

Martxan da errekreazio tailerra, eta ikus-entzunezko bat eta liburu bat aurkeztuko dituzte hilaren 30ean

L.Z.L. ELGETA

Urriaren 4an beteko dira 87 urte Intxortako frontea ezarri zela. Elgetan urtero gogoratzen dute urtemuga, eta Udalak eta Intxorta 1937 kultur elkarteak urriaren 8rako iragarri dute Memoria Eguna. Hala, aurten, urriko bigarren domekan egingo dituzte ekitaldi nagusiak. Aurretik, baina, izango dira gaiarekin lotutako ekintzak. Ohiko bisita gidatuz gainera, errekreazio tailerra eta 1936ko gertaerekin lotutako bi lan berriren aurkezpena izango dira.



Behoko Kale-90210 taldeko Gorkak eta Oxelek irabazi zuten iaz. L.Z.L.

Patata tortilla goxoenaren bila

Arratsaldean zartagin artean ibiliko dira elgetarrak. Patata tortilla lehiaketa 18:00etan hasiko da. Oiharte sagardotegiko upela ere egongo da plazan eta Mauxitxa txarangak girotu du festa.

Iaz berreskuratu zuen txapelketa Goibekok, eta 24 taldek eman zuten izena. Saria jasoko dute, aurten ere, tortilla goxoenak, originalenak eta baita azken sailkatuak ere. Iazko irabazleei beraien sekretuaren inguruan galdetuta, zera azaldu du Gorka Arizmendiari: "Ez dago sekreturik, benetan. Olioia, patata, tipula, arrautzak... Den-dena maitasunarekin erabili eta kito". Gomendioa ere eman du: "Zartaginaren ondoan egon adi-adi arreta galdu barik eta irabazle seguru".

Patata tortilla txapelketarako izen-ematea zabalik da Haizea eta Lola tabernetan zein udaletxean eta liburutegian.

tirolina eta Intxortako igoera ere izango dira. Eguerdian upela irekiko da eta trikitilariak ibiliko dira kalez kale azoka eguna girotzen.

Lasterketari dagokionean indarrean jarraitzen dute Eleder

Lozanoren (16.14) eta Argider Txurrukaren (23.47) markek. Iaz eta nor bere kategorian Martin Egizabal (17.18), Saioa Ugidos (24.45), Unax Agirre (18.08) eta Maddi Barrutia (25.15) izan ziren azkarrenak.

Berbalagunak dinamika bueltan da Elgetan ere

2015ean abiatu zen euskarazko mintzapraktikak bultzatzea helburu duen Elgetan Berbetan egitasmoa. Hamalau lagunek eman zuten izena eta hiru talde osatu ziren. Orduetik, urtero sortu dira hainbat talde astean ordubetez elkartu eta euskaraz egiteko. Ikasturte honetako izen-ematea ere zabalik da. Bidelariak zein bidelagunak behar dira. Interesatuek liburutegira jo dezakete.

Gogoratu, bestalde, zabalik dagoela euskara ikastaroetarako izena-ematea. AEKrekin elkarlanean egin du eskaintza Udalak. Eskaintzen diren mailak dira alfabetatze hasiera, A1, A2, mintzapraktika B1, B2 eta C1.

OHARRAK

Ipuinen Ordua

Gaur, 17:30ean, ikasturteko lehen kontularitza saioak liburutegian.

Mendi irteera

Kantsatzekek antolatuta, taldea 08:00etan abiatuko da, domekan. Enaitz eta Zabalaitz igoko dituzte.

Odol ateratzeak

Astelehen arratsaldean izango da osasun langile taldea antzokian. Txanda hartu behar da aurrez: 943 00 78 84.

Astrotopaketa

Eguaztenean, hilaren 27an, 18:30ean liburutegian. Gaia: teleskopioa; informazio orokorra eta erabilera.

Ikastaro eta erabiltzaile gehiago ikasturte berrian

Udako denboraldia "baikor" baloratu ostean, kirol ikasturte berria aurkeztu du Udalak; Agorrosin futbol zelaiko ureztatze sistemako matxura konpontzea da lehentasuna eta abonatuak ez diren federatuei kobratuko zaien tasa berria, aldaketa esanguratsuenetakoa

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Udako denboraldia "baikor" baloratu eta joan den astea Agorrosin kiroldegia garbitzeko eta hobekuntza lan batzuk egiteko baliatu ostean, irailaren 18an eman zion hasiera Udalak kirol ikasturte berriari. "Jende asko ibili da ikastaroetan eta igerilekuetan. Esan beharra dago uda osoan birritan itxi behar izan dela kanpoko igerilekua edukiera arazoengatik; gainera, uda erdialdean ireki ziren Labegaraietako ur txorrotek harrera oso ona izan dute", dio kirol zinegotzi Aitor Arantzabalek.

Ur txorroten "harrera oso ona"

Aurtengo udan 73.066 sarrera kontabilizatu dira Agorrosin kiroldegian, 2022an baino 7.640 gehiago. Edozein kasutan, ez da edukiera arazorik izan, eta kirol sailko arduradunek uste dute uztailaren 28an ireki ziren Labegaraietako ur txorroten harrera onak lagundu duela horretan; ez dute oraingoz itxiera datarik, martxan jarraituko dute eguraldi ona egin bitartean, 10:00etatik 21:00etara. Hurrengo udarako egokitzapen lan batzuk ere badaude aurreikusita. "Dutxa bat jarriko da eta baita bizikletak eta skate-ak garbitzeko eta konpontzeko gunea. Horrez

gain, itxitura birplanteatu egingo da eta berdegunea ere tratatu egingo da ahalik eta zerbitzu onena eskaintzeko", adierazi du Udaleko kirol teknikari-buru Iñaki Ugarteburuk.

Gune berria eta aspertsoreak

Bestalde, Udala pozik dago Agorrosin futbol zelaian berdegune artifiziala jarri izanak entrenamenduen eta partiduen antolaketa eta erabilera "nabarmen" hobetu delako. Horrez gain, zelai ondoko erabilera librerako gunean –sarreratik gertuen dagoen eremuan– behin-behineko lan batzuk egiten ari dira; oraingoz gune hori hesitu egin dute. Futbol zelaiko ureztatze-sistema da, baina, buruhauste nagusia zera da orain: "Harriak sartu dira ureztatze sisteman eta arazoak sortu dituzte. Udan zehar larritu egin da arazoa; espero dugu epe laburrean konpontzea. Bitartean, Udaleko langileek eskuz ureztatzen dihardute, horrek suposatzen duen esfortzua-ekin", zehaztu du Ugarteburuk.

Federatuendako tasa berria

Ikasturte berrirako aldaketa esanguratsuenetakoa bat da Agorrosingo abonatu ez diren herriko kirolari federatuek orain arte ordaintzen ez zuten tasa


bat ordaindu beharko dutela. Labegaraietako kiroldegia, Agorrosin futbol zelaia edota Udal pilotalekuko aldagelak berritze-ko "esfortzu berezia" egin izana eta mantenturako gastuak "nabarmen" hazi direla argudiatuta hartu dute erabakia. "Instalazio publikoak erabiltzen duten kirolari federatuei aplikatuko zaien tasa bat da, udalbatzak iaz onartu zuena osoko bilkura bidez. Agorrosinen sei hilabetez abonatuta daudenak ez lukete ordaindu beharko; abonatuak ez diren 16 urtetik beherakoek urtean 35 euro ordaindu beharko lukete eta 16 urtetik gorakoek, berriz, 50 euro". Klubek neurria nola hartu duten galdetuta, honako hau erantzun du Ugarteburuk: "Aspaldi ari gara eurekin berbetan. Ordaintzea ez zaio inori gustatzen, baina ulertu beharra dago; gastuak asko igo dira eta justuena da erabiltzen dutenek ordaintzea tasa hori".

Izena emateko aukera oraindik

Kirol ikasturte berrira begira jarduera berririk antolatu ez bada ere, 2022an baino sei ikastaro gehiago antolatu dira (63) eta iaz baino 25 erabiltzaile gehiagok (828) eman dute izena. Izena eman daiteke oraindik: 943 77 70 95 edo agorrosin@bergara.eus.



Iñaki Ugarteburu, Olatz Manuel eta Aitor Arantzabal Agorrosinen, asteon. J.B.L.



Ureztatze sistemako aspertsoreetako bat, zelaiko kornetretako baten. J.B.L.

Ureztatze arazoak uda hasieratik

Berdegune berriko ureztatze-sisteman matxura dago ia uda hasieratik, eta udal langileak eskuz ureztatzen aritu dira: "Udala, enpresa eraikitzailea eta instalatzaileak lanean ari gara lehenbailehen konpontzeko; datorren astean ez bada, ea hurrengoan den".



Jolasa Plazara ekimenaren antolatzaileak, asteon. EHUNDU

San Martin plaza "jolasleku" bihurtuko dute irailaren 28an

"Umeendako herria denondako herria" dela iritzita, "jolasaren aldarria" egingo dute 17:00etatik 20:00etara

J.B.L. BERGARA

Bergarako Herri Hezitzailea sustatzeko kideek Jolasa Plazara ekimena antolatu dute irailaren 28rako, San Martin plazan, 17:00etatik 20:00etara. Bergara "alai, koloretsu, anitz, zaintzai-

le, parekide eta euskaldun bat" sortzeko asmoaren barruan, plaza "jolasleku" bihurtuko dute hiru orduz: "Herri Hezitzailea modu formal baten aurkeztu nahi dugu, ekimenaren balioak eta asmoak plazaratu. Haurren

parte-hartzea eta jolasaren aldarria sustatu nahi dugu; horretarako, asmo eta eragin hezitzaileak dituzten eragileak izango ditugu gurekin". Plazan jarriko dituzten guneen koordinazioa Jardun elkartearen ardura izango da eta Txapa Irratiak zuzeneko saioa ere eskainiko du.

Horrez gain, antolatzaileek arratsalde osoan zehar bidelagun izango dute Porrotx. Ekimenarekin amaitzeko, kalejira bat egingo dute San Martin plazan hasi eta Errekalde parkeraino.

Matematiketan generoak ez du emaitzaz ulertzen

Emakume matematikari gehiago behar direla aldarrikatu du Mariaren Lagundiko ikasle ohi eta Ingalaterran doktoretza egiten ari den Erroxe Etxabarririk asteon; bere ikastetxea izan zena bisitatu du, bereziki DBHko neskak matematiketara erakartzeko

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Mariaren Lagundia ikastolako DBHko hirugarren eta laugarren mailako ikasleek bisita berezia izan dute asteon. Ikastetxeko ikasle ohi Erroxe Etxabarririk matematikaria etorri zaie bisitan; gradua eta masterra amaitu ondoren doktoretza amaitzen ari da Ingalaterrako Nottingham unibertsitatean eta bere ibilbidearen berri eman zien.

Astelehen goizean zehar bi saio eskaini zituen Etxabarririk eta lanean ere jarri zituen, ariketa praktiko batekin: 16 garbantzuz edo txitxirio banatu zizkien eta erronka izan zen, txandaka, txitxirio bat, bi edo hiru hartuta azkena izatea horietako bat hartzen. Ariketa praktiko horrekin matematikak gure egunerokoan oso presente daudela islatu nahi izan zuen, eta matematikak oso entretenigarriak izan daitezkeela erakutsi. Ikasleek, buruari buelta askotxo eman ostean, amaieran ulertu zuten erronka irabazteko estrategia hiruko multiploak egitean zetzala.

Ikastetxearentzat, "luxua"

Ikastetxeko irakasle Gotzon Iparragirrek dio "sekulako luxua" dela halako maila duen ikasle ohi baten bisita izatea:



Erroxe Etxabarririk Mariaren Lagundian emandako saioa, astelehen goizean. L.Z.L.

"Bere eskaintzaren berri izan eta ohartu ginen oso ondo zertorkigula martxan jarri nahi genuen ikasgai baterako. Ikasle ohi izanik, arlo afektiboa ere ukitzen du; plazera izan da". Ikasleek saioa interes handiz jarraitu dutela dio Iparragirrek: "Hurrengo klasean ikusiko dugu zein den zehazki geratu zaien mezua, baina ederra izan da adi-adi ikustea. Espero dut genero berdintasunari egin dizkion aipamenak arrastoa utziko zutela mutilengan ere, ea ideia garrantzitsua bihurtzen den

euren bizitzetan garatu dezaten. Hala izatea nahiko genuke".

Mariaren Lagundian ere mutilak dira nagusi matematiketan baina Iparragirrek azpimarratu du Etxabarririk bere saioan emandako datu batzuk "izutzeak" direla: "Oraindik ere zeregin

HITZALDIA EMATEAZ GAIN, ETXABARRIK ARIKETA PRAKTIKO BAT PROPOSATU ZIEN DBHKO IKASLEEI

"Emakume matematikariak ere bagaudela erakutsi nahi izan diet"

ERROXE ETXABARRI ALBERDI MATEMATIKARI DOKTOREGAIA

Ingalaterrako Nottingham unibertsitatean matematika doktoretzako laugarren mailarekin hastear dela egin du bisita bere ikastetxe ohira. **Zertarako egin duzu bisita?** DBHko 3. eta 4. mailako ikasleak animatu nahi izan ditut matematikak ikastera, batez ere emakumeak. Gradua hasi nuenean erdiak ginen emakumezkoak eta doktoretzan %20 eskas bat gara emakumezkoak. Joera hori apurtu behar dela adierazi diet, emakumezko matematikariak ere hemen gaudela erakutsi. **Matematiketan egoera parekidea izateko asko falta dela deritzozu?** Hobetu da egoera baina iraganaren arrastoa handiegia da oraindik; ezin dugu ahaztu, besteak beste, emakumeek debekatuta zutela matematikak



L.Z.L.

ikaslea. Horrez gain, ikasten ari naizela pasatu izan zait matematikari baten lorpen baten berri ematea eta haren abizena aipatzea bakarrik, nahigabe gizonezkoa dela pentsatuz. Txip hori aldatu beharra dago. **Bizi izan duzu goxoa izan ez den esperientziarik?** Gutxitan gertatu zait, baina tokatu zait entzun behar izatea emakumeek oso sentiberak garela matematiketarako edota izan dut sentsazioa emakumeon iritzia ez dela behar beste aintzat hartua izan.

handia dago eta zalantzak ditut ea ez gauden inboluzio baten aurrean; Erroxerekin ere komentatu dut eta kezka bera dauka. Inpresioak dira baina kezka hori badago; Erroxek gradua ikasi zuenean erdiak gizonetzkoak ziren eta beste erdiak emakumezkoak, eta ordutik aurrera emakumeen presentziak behera egin duelakoan dago".

Zuzendu bai, klaseak eman ez Matematiketan ere parekidetasunaren helmugarako oraindik ere bide luzea egiteko dagoena-

ren seinale, Ingalaterrako unibertsitateko adibide zehatza ere aipatu du Etxabarririk: "Irakasle lanetan nengoela zuzentzeko bideratzen zizkidaten beti, eta ez klaseak ematea. Galdetu nuen ea zergatik gertatzen zen hori eta jaso nuen erantzuna izan zen departamenduko arduradunak uste zuela emakumeak hobek zirela zuzentzen irakasten baino". Hori dela-eta, mezu argia helarazi nahi izan zien ikasleei: "Ez izan beldurrik, matematikez gozatzen baduzu saiatu zure bidea egiten".

Marokoko kaltetuei laguntzeko material bilketa antolatuta dute

Al Badr komunitateak eta Aranzadi ikastolak Marokoko lurrikarek kaltetutako herritarrei laguntzeko material bilketa antolatuta dute, hilaren 27ra arte. Mantak, kanpin-dendak, karpak eta ume zein helduendako arropak batuko dituzte. Aranzadiko sarrera nagusian jasoko dute materiala eta Al Badr arduratuko da materiala Marokora bidaltzeaz.

OHARRAK

Gorlako kantina: azoka eta zuzeneko musika

Bihar artisau eta sortzaileen azoka izango dute, 11:30etik 14:30era eta 16:00etatik 19:00etara; 18:00etan, zuzeneko kontzertua.

Txapa Irratian parte hartzeko bilera irekia

Irailaren 24an egingo dute bilera, Kartzela zaharrean (19:00).

'Euskal Herriak aurrera' manifestazioa

Gaur, hilak 22, egingo dute, San Martin plazatik abiatuta (20:00).

1943an jaiotako ospakizuna

Urriaren 7an Zumelagan bazkalduko dute. Izena eman irailaren 29rako: 645 72 27 10 (Carlos) edo 687 30 84 69 (Maria Antonia).

Proiektuak · Koltxoiak
 Horma-armairuak
 Altzariak neurrira
 Ateak · Eskailerak ·
 Leihoak · Tarimak ·
 Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROSZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

Enpresa Registrada N°90/025

Plaza berriro epizentro, eta jaiak "lasai, giro onean eta susto barik"

Sanmartinetako bigarren asteburuan helduen danborrada izan zen ekitaldi aipagarriena, guztira 800 bat herritar mugiarazita; gainerako ekitaldiak ere ondo baloratu ditu Udalak eta Xaxauk azpimarratu du aurten bereziki boluntario falta izan dutela ekintzak gauzatzeko

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA

Ez dira San Martin jairik jendetsuenak izan, baina Udala pozik dago jaiek eman dutenarekin: "Lasai joan dira, giro onean eta susto barik. Eragileen arteko elkarlanari balioa eman nahi diogu; horren adibide da danborradan bergarrek erakutsi duten implikazioa". Ezin da ahaztu aurten 800 bat lagun mugiarazi dituela helduen danborradak.

Amaieran, urteetako ohiturari jarraiki, San Martinen heriotza edo estampa antzeztu zuten; estamparen aurkako pankarta bat agertu zen plazan bertan, modu anonimoan, honako mezu honekin: *Tanborrada, bai. Estampa zertarako? Dekolonizatu Bergara.* Pankartako mezuaren gainean edo 2024ra begira ekitaldi hori birplanteatzeko asmorik duten galdetuta, Udaletik ez dute oraingoz adierazpenik eman.

Banda eta Simon Arrieta

Horrez gain, bereziki San Martin plazak berriro ere hartu duen presentzia azpimarratu du Udalak: "Dagokion garrantzia berreskuratu du plazak; bertan egin dira azoka, dantza txapelketa, bandaren kontzertua, sokamuturra, pintura lehiaketa eta iluntzeko kontzertuak". Bandaren kontzertua "berezia" izan zen aurten ere; Miguel Gonzalez Bastidaren *San Martin* piezak zirra berezia eragin ohi du. Gainera, udaletxeko arkupeetan banatu ziren Simon Arrieta Pintura Lehiaketako sariak; Jose Miguel

HERRIKO ERAGILEEN ARTEKO ELKARLANARI BALIOA EMAN DIO UDALAK, DANBORRADA ADIBIDE HARTUTA

Arranz erandioarrak irabazi zuen sari nagusia eta bergarar onenaren saria Maite Azkargortentzat izan zen. Beart elkarreko presidente Xabi Agirrek bereziki eskertu zuen goi mailako margolaria da Bergara, eta gozamina da horren maila altua duten margolariak etortzea; are gehiago, egun berean beste lehiaketa batzuk ere egonda".

Boluntarioak behar ditu Xaxauk Xaxau pozik dago, oro har, baina aitortu dute zapatuan askoz jende gehiago espero zutela. Eta, bereziki, arreta jarri dute aurten lanerako izan duten jende faltan: "Inoiz baino jende gutxiago egon gara lanerako, eta igarri da egitarauko ekintzetan; ekimen bat edo beste ezin izan dugu antolatu ez genuelako antolaketarako jenderik".



"Berezia" izan zen bandaren plazako kontzertua; herritar asko hurbildu ziren.



Jose Miguel Arranz, margolari onena.



Sokamuturrak ere ikusmina piztu zuten.



Zapatuko haurren danborradan 300 bat umek hartu zuten parte.



Erraldoiak, domekan. ARGAZKIAK: I. SORIANO, A. AGIRIANO, A. GONZALEZ ETA BERGARAKO ERRALDOI TALDEA



Danborrada jendetsuenaren ostean, San Martinen heriotza antzeztu zuten; estamparen aurkako pankarta bat jarri zuten plazan.



Manso optikako Cristina Revuelta optikaria haur bati ikusmena neurtzen.

Haur-miopiari irtenbidea ematen dio Manso optikak

Bergaran kokatzen den Manso optikan 'MiSight 1 day' ukipen-lenteen tratamendu berritzailea erabiltzen dute duela sei urtetatik, haur-miopiaren progresioa geldiarazteko eta zuzentzeko; zazpi urtetik aurrerako txikiek erabil ditzakete horiek

Haur-miopia mundu osoko haur askori eragiten dion begi-baldintza arrunta da. 2050erako munduko biztanleriaren erdia baino gehiago miopea izango dela uste dute adituek.

Miopia atzeman eta kontrolatu
Miopia errore errefraktibo bat da. Begia gai da bertan sartzen den argia enfokatzeko, baina

irudia erretinara iritsi aurretik enfokatzeko; hortaz, urruneko objektua irudi lauso bihurtzen da. Miopiak okerrera egin dezake denborarekin, eta haurtzaroen nahiz nerabezaroen hazkunde handiagoko izan dezake. Behar bezala kontrolatzen ez bada, ikusmenaren arazo larriak eragin ditzake; hala nola, makulako sorkuntza eta erretina-as-

katzea jasateko probabilitatea asko handitu daiteke –batez ere, miopia handia denean–.

Miopia ertaina edo handia duen begiak arrisku eta konplikazio gehiago ditu, eta horrek, ikusmenaren galera partziala edo erabatekoa eragin dezake. Beraz, garrantzitsua da haur-miopia zaintzea eta kontrolatzea, etorkizunean ikusmen-arazo

larriak saihesteko. Bergarako Manso optikan badituzte konponbideak haurren ikusmen arazo honi balazta jartzeko.

'MySight 1 day' irtenbide

Azken aldian, mundu osoko haurren artean miopia kasuen gorakada kezkarria behatu dute adituek. Joera horren ondorioz, ikusmen-osasuneko zientzialariek eta profesionalak irtenbide eraginkorrak bilatu dituzte miopiaren progresioa kontrolatzeko eta geldiarazteko. Horietako bat da *MiSight 1 day*, aukera berritzailea eta etorkizun handiko ukipen-lenteak.

MiSight 1 day miopia geldiarazteko tratamendua da: efektu konbinatua du ukipen-lente bakar batean. Gainera, zazpi-zortzi urtetik aurrera erabil daitezke. Alde batetik, haurren ikusmena zuzentzen du eta, horrela, argi eta garbi ikusi eta ikusmen-mugarik gabeko eguneroko bizitzaz gozatzeko aukera izango dute zure seme-alabek. Hala ere, miopiaren progresioa geldiarazteko duen gaitasuna da horien ezaugarriarik azpimarragarriena.

Eraginkortasuna bermatuta

Ikerketa kliniko zorrotzek *MiSight 1 day* ukipen-lenteen erabilera babesten dute. Aldizkari zientifikoetan egindako ikerketek erakutsi dute ukipen-lente horiek eraginkorrak direla etxeko txikien ikusmena zuzentzeko eta miopiaren progresioa geldiarazteko. Gainera, aipatu beharra dago *MiSight 1 day* programak Estatu Batuetako Elikagaien eta Sendagaien Administrazioaren (FDA) ziurtagiria duela; haurren miopiari aurre egiteko segurtasuna eta eraginkortasuna bermatzen dituena.

Duela 6 urtetatik Manso optikan
Zalantza barik, Bergarako Manso optikan badakite etxeko txikien ikusmen-osasuna lehentasunetako bat dela, eta horretarako, aditu konprometituek eta ondo informatuak izatea funtsezkoa da erabaki egokiak hartzeko. Horregatik, erabaki ona da Irizar Ibilbidea 2. zenbakiko optika honetan dauden ikusmen-adituek bisitatzea. Duela sei urte espezializatu ziren *MiSight 1 day* ukipen-lenteen egokitzapenean. Halaber, haur bakoitzaren beharrian indibidualak ulertzen dituzte eta euren ikusmena zuzentzeko nahiz miopiaren progresioa kontrolatzeko aukerarik onenak ematen ditu profesional taldeak.

1972an zabaldu zuten Bergarako Manso optika, Pilar Manso eta haren alaba Cristina Revuelta optikariak. 30 urte daramatza dagoeneko optikan lanean. Duela 12 urte jubilatuzen Pilar Manso eta orduz gozotik alaba arduratzen da negozioaz. Ez izan zalantzarik eta hurbildu Manso optikako aditu-taldearengana. Gustura lagunduko zaituzte zure seme-alaben ikusmenaren zaintzan.

'MISIGHT 1 DAY' UKIPEN-LENTEEN ERABILERA BABESTEN DUTE IKERKETA KLINIKO ZORROTZEK

HAUR-MIOPIA ZUZENTZEKO AUKERARIK ONENAK EMATEN DITUZTE MANSO OPTIKAN

Geldiarazi umearen miopia, ez haren etorkizuna.

MiSight lentillek (egun batekoak) miopia geldiarazten dute %59an.

ESKOLARA ITZULERA!

www.opticamanso.com • 943 76 27 86 • Irizar pasealekua 2 • Bergara

Hamabi artzain txakur lehiatuko dira domekan

San Migel eta Errosario jaietako lehen ekintzak asteburuan ospatuko dira, tartean, Nazioarteko Artzain Txakur Txapelketa, pintura eta bolo lehiaketak, Huntza, haurren danborrada, Atsolorra eta bertso saioa. Hastera doaz festa nagusiak

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Domeka goizean jokatu da aurtengo Nazioarteko Artzain Txakur txapelketa. Ohiko zelaian izango da lehia, Santa Lutzian, 10:30ean. Han egin beharko dute eskatzen zaien lana lehian ari-tuko diren hamabi txakurrek, bakoitzak bere jabearen, artzainaren, aginduei kasu eginda. Bi ariketa egin beharko dituzte.

Zeregin ezberdinak izango dituzte ariketa bakoitzean, denbora baten barruan egin beharrekoak batzuk, eta guztietan lortzen dituzten puntuak batuta gehien lortzen duen txakurra izango da irabazlea.

Santa Lutziko zelaian

Hamabi artzain txakurrek hartuko dute parte domekako txapelketan, Hego eta Ipar Euskal Herrikoak, Kataluniakoak, Castellokoak eta Mallorcakoak, txapeldunak denak. Tartean, Gipuzkoako txapelketa irabazi duen *Lagun*. Migel Arregi jabearekin joango da. Ez da lehen-dabiziko aldia izango, aurretik ere egondakoak dira biak. 2021ean, esaterako, elkarrekin hartu zuten parte; Arregi bera

pelketan, Hego eta Ipar Euskal Herrikoak, Kataluniakoak, Castellokoak eta Mallorcakoak, txapeldunak denak. Tartean, Gipuzkoako txapelketa irabazi duen *Lagun*. Migel Arregi jabearekin joango da. Ez da lehen-dabiziko aldia izango, aurretik ere egondakoak dira biak. 2021ean, esaterako, elkarrekin hartu zuten parte; Arregi bera

txapelketa gehiagotan ere ibili izan da.

Pintura eta bolo txapelketak

Herriko jai nagusietako ohiko hitzordua izaten da Nazioarteko Artzain Txakur Txapelketa -63. ena aurten-, normalean San Migel eguna baino lehenago egiten dena. Eta aurten ere horrela izango da, asteburu hone-tan, domekan, izango baita. 28tik urriaren 2era izango dute jarrera-bera.

Urteroko aire libreko pintura lehiaketa eta bola-joko txapelketa ere domekan egingo dira, goizean lehenengoa, herriko kaleetan barrena, eta arratsaldean bigarrena, San Martinen.

Jaiaren egitarauko lehen ekintza, baina, gaur gaueko bertso saioa izango da. Txinparta bertso eskola izango da gai jartzailea eta bertsolariak: Oihana Iguaran, Sustrai Colina, Aitor Bizkarra, Urko Arregi, Amaia Agirre eta Unai Iturriaga. Sarrerak Txokolatexian edo Udalaren webgunean sartuta eros daitezke hamar eurotan, hamabi urtetik beherakoek, doan.

Udazkenarekin batera

Bertso saioaren ostean etorriko da umeei eta gaztetxoei begira antolatutako biharko eguna. Bete bete izango da zapatua; jaio berriei ongiatorria emanez hasiko eta tartean Huntzak joko duen musika emanaldiekin bukatuko dena.

Maiatzetik hasita herriguneko zein landa eremuko auzoetako jaiak ospatu dira herrian eta udazkenarekin batera datozen herriko jai nagusiak ospatzeko unea heldu da. Egitaraua prest dago, muntaketa lanak ere zehaztua eta denei etortzeko gonbidapena eginda.



M.A.

"Edozer gauza gerta daiteke domekan"

MIGEL ARREGI
EROSTARBE ARTZAINA

Migel Arregi Erostarberen (Oñati, 1947) *Lagun* txakurra lehiatuko da etzi Nazioarteko Artzain Txakur Txapelketan, Gipuzkoako txapeldun izanik. Euskal Herrikoan "ondo" ibilita doaz nazioartekora.

Zer moduz zaudete?
Lagun baino urduriago ni, horrek ez daki-eta domekan zer dagoen. Hara joandakoa, baina, azkar antzemango du egoera.

Zer gertatuko da?
Edozer gauza. Egia esan beste batzuk gu baino ohituagoak daude lan hori distantzia luzean egitera, baina ikusiko dugu.

Ardiek ere badute euren ardura?

Bai, baina artaldea ona da. Aldaiko ardiak dira, ohituta daude txakurrarekin ibiltzen, eta hori abantaila da denondako.

Zorte on, bada, bioi.
Eskerrik asko.



Artzaina, txakurrari aginduak ematen, joan den urteko txapelketan. GOIENA

Landa eremuan dauden lursailak erosi gura ditu Udalak

Urriaren 9a baino lehen egin ditzakete herritarrek euren eskaintzak HAZ bulegora joanda edo Internet bitartez

O.E.G. OÑATI

Ingurumen balioak galtzeko arriskua izan dezaketen eremuak identifikatu eta kontserbaziorako ekintzak sustatzeaz gain, bestelako egurgintza eredu baten aldeko praktikak martxan jarri

gura ditu Udalak eta deialdia zabaldu dut landa lurak erosteko. Aldakiño-Olapoto hiri basoarekin muga egiten dutenak, Legazpi-Antzuola-Bergara udalerrien arteko muga egiten duen mendilerroan kokatutakoak,

erreken zaintza eremuan daudenak edota hegazti nekrofagoen interes bereziko eremu eta elikadurarako babes eremuan kokatzen direnak erosi lituzke. Inguru horietan dauden lursailak, edo azaleraren erdia, gutxienez, eremu horietan duen lursailen bat. Ordainduko lukeen gehienezko prezioa mugatu du, 2.000 euro hektareako.

Urriaren 9a bitartean aurkez ditzakete herritarrek proposamenak Udaleko webgunean edo HAZ bulegoan.

Santa Marina plazan egingo da bihar arropen azoka

Barrakak iritsi dira eta ohiko tokian daude, arropen eta ehunkien azoka egoten den espazioan, plazaren ondoan. Horregatik, bihar, zapatua, tokiz aldatuko dute azoka eta Santa Marina plazan egongo da. Datorren astean, berriz, hilaren 30ean, Herri Eguna da eta ez da azokarik egingo, ez jakiena, merkatu plazan, ezta arropena ere.

Emakumion Kontseiluak bilera du martitzenean

Emakumion Kontseiluak asanblada edo bilera irekia egingo du datorren astean. Herritar orok har dezake parte eta interesa izanez gero, edo informazio gehiago behar izanez gero, berdintasun teknikariarekin jar daiteke harremanetan: *berdintasuna@onati.eus* edo 943 78 04 11. Martitzenean da bilera, 18:00etan, osoko bilkuren aretoan.



Eguazten iluntzean udaletxeako osoko bilkuran egindako aurkezpena. IÑIGO BARRENA

Tailerrak eta bulegoa, dementzia moteltzeko

Dementziaren batek izan dezakeen garapena ahalik eta txikiena izateko estimulazio kognitiboko tailerrak egingo dituzte Oñatin Euskaldun Berria gelan. 80 saio izango dira eta bakoitzak duen dementzia mailaren arabera ariketak egingo dituzte

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Alzheimerren egunaren bezperan, eguaztenean, aurkeztu zituzten Afagi elkarteak eta Oñatiko Udalak datozen hiru urteetarako sinatu duten hitzarmenean jasotakoaren xehetasunak, udaletxeako osoko bilkuren aretoa herritarrez bete zen ekitaldian. Urrian hasi eta ekaina bitartean saioak eskainiko dituzte eta gaixotasun horri buruzko informazioa emango duten bulegoa ere egongo da, urritik, zabalik herritarrendako.

Bulegoa, Bidebarrietan

Gipuzkoako senitartekoen, lagunen eta Alzheimer edo beste dementziaren bat duten pertsonen elkarteak eta Udalaren arteko lankidetzak egitasmo honen, estimulazio kognitiboko tailerra eskainiko zaie Alzheimer gaixotasunaren hastapenak pairatzen dituzten herritarrei. 80 saio izango dira, urritik ekainera bitartean. "Dementzia arina duten pertsonengan gaixota-

sunaren garapena ahalik eta gehien moteltzea da tailer hauekin lortu nahi dena. Ariketak egiten ditugu horretarako eta ariketak maila ezberdinetan daude sailkatuta, saioak eskainiko dituenak berak egokitzeko ariketa bakoitza gaixotasuna duen pertsonari, bere mailara egokituta. Kurtso bakoitzaren amaieran parte-hartzaile bakoitzaren balorazioa egingo da", azaldu du tailerraren koordinatzailea den Irati Sagarzazuk.

Tailer horiek Bidebarrieta kaleko Euskaldun Berria gelan egingo dituzte, hantxe egongo baita bulegoa; urriaren 3tik, 10:30etik 12:00etara. Saiotuan parte hartzeko, medikuak gaixoari emandako diagnostikoa

**MEDIKUAK
GAIXOTASUNARI
BURUZ EGINDAKO
DIAGNOSIA BEHAR DA
ARIKETAK EGOKITZEKO**

eraman beharko dute senideek bulegora, egoera zein den ikusteko. Bulego horretan, behar duten bestelako informazioa ere emango diete senideei.

Hiru urterako elkarlana

Eguaztenean azaldu zuten zerbitzuaren eskaintza eta jende askok erakutsi zuen interesa. Izaro Elorza alkateak aurkezpenean adierazi zuen "herritarren osasuna, eta kasu honetan adinekoena erdigunean jarrita, Udalak izan ditzakeen hutsuneak betetzeko modua" dela Afagirekin itzartutako egitasmoa: "Herritar askok jotzen zuen aurretik elkarte honetara, eta ikusten genuen Udalak laguntzeko modua izan zezakeela bulegoa Oñatin zabaldua". Afagi elkarteak kideak ere positiboki baloratu dute zerbitzu hau Oñatira ekartzea, elkarteak presidente Iñaki Olalde oñatiarrak adierazi zuenez: "Gipuzkoako beste hainbat eskualdetan dituzten zerbitzuak puntuei batuko zaie Oñati".



NIRE USTEZ

AINHOA SEMPER GENUA

Euskaraz kongresuan

Ikasturte parlamentarioa berrikuntzekin hasi da: Espainiako kongresuan gaztelaniarekin batera ofizialak diren beste hizkuntzak erabili ahaliko dira, lehenengo aldiz. Beti bezala, aldaketek eztabaida sortu dute. Artxiboetan, agirietan, bost mendeetan zehar hizkuntza bat, gaztelania, nola ezarri den oso erraz antzematen da. Arauek argi eta garbi hizkuntza baten erabilera baldintzatzen dute, erakunde batean zilegi den bakarra gaztelera bada beste hizkuntzak ez dira existitzen ere, ez dute ia inolako arrasto dokumentalik uzten. Hori horrela, arauak aldatzea ezinbestekoa da hizkuntza gutxituen existentzia ikustarazteko. Gehiago esango nuke, kongresuko politikariek beraien diskurtsoak euskaraz, katalanez edo galegoz egiteak, ziurki, soilik gaztelerez dakitenek hizkuntza horiek entzuteko duten aukera bakarretakoa izan daiteke. Beraz, espero dut politikari euskaldunek erronkari eustea eta kongresuan euskaraz hitz egitea, euskaldunoi gure hizkuntzaren praktikotasuna bermatzeko eta beste hizkuntzetako hiztunei ere atea zabaltzeko (guri beste hizkuntzetara ere).



GOIENA

Neskak bakarrik arku-dantzan

Joan den domekan gertatu zen, Oñatz dantza taldeak antolatutako Haurren Egunaren 51. ospakizun festan. Goizari bukaera eman zion Oñatiko Korpusetako arku-dantza neskek bakarrik egin zuten, lehenengoz. Parekidetasuna naturaltasunez txertatu dute Oñatz dantza taldeko gaztetxoaren artean ere.

Aldarria soinean eramatea proposatu du Sarek

Goiena komunitatea

Sare / OÑATI

Joseba eta Gotzon etxera! irakur daitekeen esaldia duten niki zein alkandora zuriak atera ditu Sarek eta Herri Egunean horiek soinean eramateko gonbidapena luzatu gura die herritarrei. Kaleran egongo dira saltzen, jaietako egun eta gune ezberdinetan, 28an bertan hasita.

PATXI CASTRO

Era guztietako aukien konponketa

• Tapizatu lanak

• Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta

• Besuak, mahai, saskiak e.a

943 78 71 65
639 01 69 69

"Ez nuen espero, oso amaiera polita izan da"

UNAI CUEVA TXIRRINDULARI OHIA

Zapatuan eman zituen azken pedalkadak txirrindulari moduan, hain zuzen etxeko lasterketan, bere familia eta lagunak alboan zituela. Erraz ahaztuko ez duen eguna

Iñigo Barrena Kortabarria OÑATI

Unai Cueva (Oñati, 2002), zapatuan jarri zen azkenekoz bizikleta gainean. Egun gogoangarria igarota, harekin izan da GOIENA. **Nola doaz txirrindularitza utzi eta lehen egunak?**

Denboraldiko erritmo altutik gatoz eta ez da ona kolpera dena uztea, eta, poliki-poliki erritmo hori jaisten aritu naiz egun hauetan, baina orain askoz lasaia nago.

Larunbatean bizitakoa ez duzu erraz ahaztuko ezta?

Noski ezetz. Lagunek sekulako sorpresa prestatu zidaten eta oso polita izan zen herrian horrela agur esatea.

Horrelako amaiera izatea espero zenuen?

Ez nuen espero inondik inora ere. Norbait lasterketa ikusten egongo zela banekien, baina hainbeste lagun egotea, pankartarekin, bozgorailuarekin, lurrean pintaketak eginda... Ez nuen espero eta oso polita izan zen.

Lagunak gainera kalean dituzu itxoiten eta jaiak datoz orain...

Bai (Barrez), denboraldian zehar ezin izan dut lagunekin askorik egon eta festa gutxi egiteko aukera izan dut. Orain, bizikleta utzita, gehiago gozatzeko aukera iritsi da. Jaiena ere aspaldi begiratu nuen, ea libre egongo nintzen edo ez, eta libre nagoenez, sekulako gogoia dut jaietarako.

Zergatik hartu duzu txirrindularitza uzteko erabakia?

Bi denboraldi egin ditut, kostatu egin zaizkidanak. Iaz gustura aritu nintzen, baina amaiera gogorra egin zitzaidan. Dena dela, beste urte bat jarraitzea erabaki nuen, baina aurten, denboraldi-aurrean gaixorik aritu naiz, eta, ondoren, erritmoa hartzea ere oso zaila egin zitzaidan. Honen ondorioz, lasterketara joateko motibazioa ere jaitsi egin zen, eta, gainera,



Unai Cueva Arregiko maldan gora, bere azken lasterketan. GOIENA

"TXIRRINDULARITZAK EMAN DIZKIDAN BALOREAK ETA EGINDAKO LAGUNAK ERAMATEN DITUT"

entrenamenduetan zein lehiaketan motibazio falta izaten nuen. Horregatik erabaki nuen uztea. **Zer eman dizu txirrindularitzak?** Gauza asko ikasi ditut. Txirrindularitzan talde lana oso garrantzitsua da eta hemen nola aritu ikasi dut. Bakarrik sufritzen ere ikasi dut, eta, horrekin batera, nire gorputza eta burua ezin hobeto ezagutzen lagundu dit, nire mugak non dauden jakiteko. Era berean, txirrindularitzaren estrategia ere nolakoa den ondo ikasi dut.

Zer da zure ibilbidetik eramango duzuna?

Batez ere ezagutu dudana jende guztiarekin gelditzen naiz, oso harreman onak egin ditut. Tropelean aurkariak izan gara, baina hortik kanpo lagunak. Era berean, txirrindularitzak ematen dizkizun baloreak eramaten ditut.

Pentsatu duzu ze harreman izango duzun aurrerantzean txirrindularitzarekin?

Gozatzen jarraituko dut, baina, beste modu batera. Orain arte buruan izan dut lau orduko entrenamendua egin behar nuela, agian gogorik ere ez nuenean. Orain nahi dudana ordu kopurua eta itzulia egingo ditut lagunekin batera. Nola ez, lasterketara ere joango naiz animatzen eta beharra baldin badago laguntzera ere.

Gazteei zuk ikasitakoa erakusten saiatuko zara?

Gazteagoa nintzanean oso gustura egon nintzen niri laguntzen aritu zirenekin eta orain guri dagokigu errelebo hori hartzea eta txikienei laguntzea.

Txirrindularitza oso sakrifkatua da. Zer esango zenioke zalantzak dituzten gazteei?

Beti daudela une gozoak eta gogorrak eta bai batean zein bestean buruz gogorrak izaten saiatu behar dutela.

Azken mezurik?

Eskerrak eman nahi dizkiet txirrindulari moduan aritzeko aukera eman didaten bi taldeei, bertako langileei eta nirekin tropelean egon diren guztieei.



Igor Leturia izango da Tertulixan talde berriko dinamizatzailea. LINKEDIN

Euskarazko Komikia Tertulixan talde berria sortu dute

Tertulixan taldeen barruan berritasuna izango da aurtengoan Igor Leturiak dinamizatuko duena

I.B.K. OÑATI

Igor Leturia arrasatearrak dinamizatuko ditu saioak. Guztira hiru saio egingo dituzte, urriaren 17an, azaroaren 7an edo 14an, eta abenduaren 12an, denak, arratsaldeko 18:30ean hasita. Momentuz taldea osatzen ari dira eta aukera hobezina da horrelako batean parte hartzeko. Bailaran, esaterako, aukera bakarra da Oñatin eskaintzen dena. Izena emateko, 943 71 61 11 telefonora deitu, Whataspp bidez mezua bidali 688 73 28 26 zenbakira edota mezu bat bidali liburutegia@onati.eus helbidera.

Beste hiru talde

Euskarazkoaz gain, Gaztelaniazko Komikien Tertulixan taldea ere izango da aurtentzen, Kike Infamek dinamizatuta. Horretaz gain, Euskarazko eta Gaztelaniazko literaturaren Tertulixan taldeak ere osatu dituzte.


Lehenengo taldean, Itziar Ugarte oñatiarra arituko da dinamizatzaile lanetan, eta, gaztelaniazkoan, berriz, Monica Leiva. Ekintza hauez guztiez gain, Idazketa Lantegia ere martxan jarriko dute, Joxemari Iturralde idazle tolosarraren eskutik.

Herriko Futbol Txapelketan izena emateko deialdia

2023-2024 denboraldiko Herriko Futbol Txapelketa ate-joka dator eta parte hartu nahi duten taldeek, datorren hilaren 27an, eguaztenean, izango dute izena emateko aukera, arratsaldeko 19:00etatik 19:30ak arte. Izena ematen duten taldeek, gutxienez, 15 fitxa izan beharko dituzte; gehienez, ordea, 30 jokalarik eduki ahaliko dute fitxa talde bakoitzeko. Horretarako, bileraren egunean, jokalarik bakoitzaren NANaren kopia eraman beharko dute. Horrez gain, talde bakoitzak 250 euro ordaindu beharko ditu parte hartu ahal izateko, eta, ordaindutako kantidaden horren barruan egongo da, baita ere, 100 euroko fidantza.

Ate irekiak datozen egunetan, Fitness Gazte Ekintzetan

Gaur hasi eta hilaren 28ra bitartean, 12 eta 16 urte bitarteko gazteek, Fitness gazte ekintzak probatzeko aukera izango dute kiroldegian egingo dituzten ate irekietan. Gaur, esaterako, bi ekintza egongo dira probatzeko. Arratsaldeko 16:15ean hasita, krossfitteko saioa, eta, ordubete beranduago, 17:15etan hasita, zumbako saioa izango dira. Datorren eguaztenterako ere, hilaren 27rako, beste bi saio daude aurreikusita. Bodypump eta yoga saioetan parte hartzeko aukera egongo da, biak arratsaldeko 16:15ean hasita. Azken egunean, hilaren 28an, fitbikeko saioa egingo dute, arratsaldeko 17:15etik aurrera.



19. UDAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA *egin klik!*

528 argazki jaso ditugu.
Eskerrik asko
parte hartzeagatik!

Irailaren 22tik 27ra arte, zure argazki gustukoena aukeratu ahalko duzu (**PUBLIKOAREN SARIA**). Sar zaitetz Goiena.eus webgunean eta eman zure botoa

Eta adi egon! Irailaren 29an, 19. Udako Argazkien Goiena Lehiaketaren irabazleak aditzera emango ditugu! Zorte on!



Ceuse, Frantzia | Argazkia: Antton Galarza (Arrasate)



Ilunabarra Tamar Indon, Costa Rica | Argazkia: Maddi Parra (Aretxabaleta)




Valparaiso, Txile | Argazkia: Aratz Oñederra (Leintz Gatzaga)



Malagako portua | Argazkia: Jaione Zulueta (Oñati)



Izarretara begira (Granadan) | Argazkia: Jon Alza (Arrasate)



Amama bihotzean, Villabragima | Argazkia: Maitane Ayala (Eskoriatza)



Itsaslamia, Sant Pere Pescadore (Girona) | Argazkia: Arnaitz Eraso (Bergara)



Hegalpean (Errioxa) | Argazkia: Ibone Arejolaleibar (Eskoriatza)



Shibuya, Japonia | Argazkia: Ion Lizarazu (Antzuola)



Kantabria | Argazkia: Iratxe Arrese (Eskoriatza)



Argazki guztiak kanal berezi honetan:
<https://labur.eus/udakoargazkiak-2023>

ANTOLATZAILEA

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK

EROSKI
ARRASATE

GURE AMETSA
Restaurante • Jatexea

BERGARA
**EREIN
DA
JAN**

Halcon BIDAIAK
ARRASATE BERGARA

Derbi goiztiarra, ligan lehen pausoa emateko

ARETO FUTBOLA Mondratek eta Eskoriatzak maila nazionalako lehenengo jardunaldian jokatu dute elkarren kontra. Bi taldeetako kapitainendako goizegi dator partidua, zapatukoak (17:30, Musakola) ez duelako erakutsiko talde bakoitzaren potentziala

Xabier Urtelai Atxa ARRASATE

Iaz Mondraterendako izan zen Musakolan jokatu zuten derbia, eta Manuel Muñoz kiroldegian, berriz, eskoriatzarrak nabarmendu ziren. Derbiei dagokienez, parra geratu ziren horrenbestez. Eta ikusteko dago bihar hasiko duten ligako lehen jardunaldiak zer erakutsiko duen. Eskoriatzako kapitain Aratz Kortazarrek uste du taldeak aurrerago erakutsiko duela benetako maila. "Ez da aitzakia, baina fitxaketa ilusionagarriak genituen, UDA-ko jokalaririk ohi Txino-rena, esaterako, eta min hartu berri du belaunean. Hala ere, taldea motibatuta ikusten dut derbirako, eta horrekin batera, ilusionatuta gaude ligara begira. Aurrean egon gura dugu aurten, gero denboraldian zehar ikusiko dugu non egon gaitezkeen, baina helburua izan behar da igoera faserara sailkatzeko borrokan ibiltzea", dio beste urtebetez partiduak kantxan jarraitzeko erabakia hartu zuen Aratz Kortazar kapitain eskoriatzarrak.

Lehenengoa etxean

Xabi Gorroñoigoitia ere Mondrateko beteranoetako bat da, baina ilusioz dago bihar hasiko duten ligara begira, eta baita derbirako ere, noski. "Gure




Mondratekoak eta Eskoriatzakoak, Musakolako azken derbian. GOIENA

proiektu honetan sinisten dugu eta jokalaririk gazteak igo dira taldera. Horrek eskatzen du apur bat egokitzea, baina talde polita daukagula esango nuke. Egia da, baita ere, denboraldira begira ez garela helburuak orain jartzearen aldekoak. Kategoria honetan urtetik urtera asko aldatzen da taldeen joko-maila eta orain ezer aurreratzeak ez luke zentzu handirik izango. Nahiago dugu liga erdia jokatu, lehenengo itzulian non gauden ikusi, eta orduan erabaki taldearen helburua".

Abuztutik lanean


Areto futboleko bi taldeak abuztuko azken astean hasi ziren denboraldi-aurrea prestatzen. "Normaltasun osoz ibili gara aste hauetan lanean, eta ez dut uste ligako lehenengo partidua batean entrenatu garenik, edo goizago hasi garenik. Derbiak urteko partidu berezi horietakoak dira, baina ez dugu apartekorik egin. Ea zapatuan jendea batzen den harmailetan, eta liga behar den moduan hasten dugun", dio Gorroñoigoitiak.

Ligako derbia goizegi datorkizue?



XABI GORROÑOIGOTIA
MONDRATEKO JOKALARIA

"Lehenengo jardunaldian Eskoriatzaren kontra jokatzeko erronka da, eta polita izan daiteke ikusteko gutako bakoitza non dagoen. Baina aukeran, egia da goizegi dela halako partidu baterako. Dena dela, gogoz gaude zapaturako".



ARATZ KORTAZAR
ESKORIATZAKO JOKALARIA

"Ez dut uste lehenengo jardunaldian derbi bat jokatzeko egokiena denik, denboraldi-aurretik geroz eta oraindik erritmoa falta zaigu denoi. Lehenengo partiduak arraroak izaten dira zentzu horretan. Hala ere, puntuen bila goaz Musakolara".

Urrutia eta Osa nazioartean nabarmendu dira egunotan

TRAIL-A Aretxabaletakoa bigarren izan da Grigne Skymarathonen; Oñatikoa laugarren Pikes Peaken

X.U. ARRASATE

Ainara Urrutia eta Malen Osa nazioartean lehiatu dira asteburuan, eta biek egin dute nabarmentzeko moduko lana. Urrutiak sekulako bigarren postua lortu zuen Livignon, kontutan hartuta lehenengo mendi maratonia zuela. Hilly Gerardy estatubatuarren atzetik, aretxabaletarrak 6.12.05-ko denbora egin zuen. "Oso pozik amaitu nuen, astebete lehenago ikazkin Trailen ez nituen sentazio onak izan, baina kilometro asko nituen hanketan pilatuta eta normala ere bazen. Astebetez atsedean hartuta joan nintzen Italiara, eta oso-oso fresko sumatu nituen hankak, gozatu egin nuen lasterketan".

Osa AEBtan lehiatu dabil

Malen Osa, berriz, AEBtako Peaks Peak lasterketan laugarren izan zen (2.47.23), lasterketa irabazi zuen Sophia Laukli estatubatuarrengatik 13 minutura. "Ez zen nire egunik onena izan. Indar gabe eta hankak hustuta sentitu nituen hasieratik. Dena dela, gorputza bere onenean ez zegoela ikusita laugarren egin izanak pozik utzi nau, ezin da gehiago eskatu", adierazi du sare sozialetan.

ARETXABALETAKO SAN MIGEL JAIK

GOIENA TELEBISTA, 'JAIK' SAIOA

URRIAREN 3AN, MARTITZENEAN, 19:30/21:30 ETA 23:30



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.



Izen berrituaz baina izanari eutsita dato

FUTBOLA Bergarak maila galdu eta gero emakumezkoetan ohorezko erregional mailan Debagoiena Bailara da ibarreko ordezkari bakarra. Orain arteko Leintz Arizmendikoak dira, izena berrituta. Domekan Antiguoren kontra hasiko dute liga, Ibbarran (17:30)

Xabier Urtzelai Atxa ARRASATE

Emakumezkoen ohorezko erregional mailan asteburuan hasiko dute liga, eta Debagoiena Bailara da senior mailako kategoria horretan egongo den taldea. Proiektu horren barruan egoten jarraitzen dute Aloña Mendik, UDAk eta Arizmendik, eta Aitor Guridi izango da entrenatzailea. "Harrobian aldatu egin ditugu, alegia, kategoria txikitzen Aloña Mendik bere talde propioak izango ditu, eta UDAk eta Arizmendik elkarlanean jardungo dugu. Eta, senior mailako talde nagusirako denok indarrak batuko ditugu, ezinbestekoa delako", adierazi du Gorka Gabilondok. "Elkarte eta kirol talde guztiei zabalduko proiektua da hau, zabalik daude ateak, eta orain momentuan Debagoiena Bailaran jokalariek eskoriatzarrak, aretxabaletarrak, arrasatearrak eta oñatiarrak ditugu". Hala, talde nagusiaren izena egoera



Touringen kontra, apirillean. GOIENA

berrira egokitu dute, eta partiduak Ibbarran eta Azkoagainen jokatu dituzte, tartekatuta. "Denok eroso eta gustura egoteko formulak bilatu ditugu, eta ekipa berria estreinatuko dugu, orlegi kolorekoa".

Emakumezkoen futbolari dagokionean Bergarak senior mailako gorengo mailan jokatu du, eta horiek ere asteburuan hasiko dute liga. Zapatuan 16:30ean jokatu dute Agorrosinen, Orioren kontra. Eta Mondrak, berriz, harrobiarekin egingo du lan, kadete mailara arteko taldeak izango dituzte-eta.

Gizonezkoen kategorian

Ohorezko erregional mailan bi jardunaldi jokatu Bergarak eta Aretxabaletak launa puntu dituzte. Asteburuan kanpoan jokatu dute biek. Aretxabaletakoek Lesakan (domeka, 17:00) eta Bergarakoek Azpeitian (zapatua 17:00).

Erregional preferentean, berriz, Mondrak Soraluze hartuko du Mojategin (domeka, 16:30), Aloña Mendik Azkoitian jokatu du domekan Anaitasunaren kontra (16:30), eta Antzuolak Danena taldea hartuko du domekan Ez-talan (16:30).

Gizonezkoen LEB mailako Euskal Kopa Bergaran

SASKIBALOA Guuk Gipuzkoa Basket, Juaristi ISB eta Teknikiei Bizkaia Zornotza taldeek jokatu dute

X.U. ARRASATE

Bergarako taldeak puntako saskibaloia ekarriko du asteburuan Labegarietara, Euskal Kopako finalak jokatu dituzte-eta zilarrezko eta urrezko LEB mailako hiru talderen artean. Hala, Juaristi ISBren, Teknikiei Bizkaia Zornotzaren eta Guuk Gipuzkoa Basketen artean egongo da ikusizuna.

Lehenengo bi taldeak zilarrezko LEB mailakoak dira, eta Azpeitikoek eta Zornotzakoek arteko lehiarekin hasiko da gaur, egubakoitza, Euskal Kopako

saskibaloia festa. Partidua 20:00etan jokatu dute, eta irabazlea zapatuko finalera sailkatuko da zuzenean.

Odriozolaren mutilak, zain

Zapatuan, urrezko LEB mailako Guuk Gipuzkoa Basket egongo da finala jokatzeko zain. Ikusteko dago liga hasteko aste gutxiaren faltan GBCko entrenatzaile berri Mikel Odriozolaren taldeak ze itxura erakusten duen. Finalak egubakoitzeko ordutegi berbera izango du, 20:00etan hasiko dute partidua.

TXIRRINDULARITZA

Uzarragako igoera egingo dute domekan

Gazte mailako ziklistek hitzordu bikoitza izango dute asteburuan, zapatuan Azpeitian eta domekan Antzuolan. Zapatuan San Inazio saria jokatu dute, eta domekako lasterketa, Uzarragako, martxoan atzeratutako lasterketa da. Orduan, lasterketarako moto-laguntzaileen aferak bete-betean eragin zuen Antzuolako proban, eta Peña Ayastuyko lagunak orain helduko diote hitzorduari.

Hala, lasterkariak 10:00etan hasiko dute proba herriko plazan, eta helmuga, urtero moduan, Uzarragako gainean izango da, 12:00ak aldera. Tartean ziklistek 81 kilometrotako ibilbideari egingo diote aurre.

Goienakideen txokoa

IRAILEKO SARIAK

Liburu-irakurgailua

Kobo Nia e-booka

Parte hartzeko sariaren izena: ebook



Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz



Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea



PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE

"sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

*goiena app'-a / zozketa atalean. Parte-hartzearen artean egingo da zozketa.

Indarrez dagoen (DPS 15/1997) legearen arabera, jirakortze dugu, zure datu pertsonalari Goiena Foruakako Zerbitzuaren bitartez automatikoki bideratuko ditugu. Datu biltze horien helburu bakarra da zure datuen erabilera zuzenaren gestioa. Erabaki orokor gisa dituzten artetako, leku zuzentzeak ezarritako helburuak dituzte. goienakide@goiena.eus

Realaren eta Athleticen arteko derbirako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Athletic norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskursu zuek eta zuek aukeraturako beste lagun batek.

Reala Arena futbol zelaiko premium gunetik. Partida irailaren 30ean, zapatua, 21:00etan izango da.



Irabazi bi lagunendako sarrerak

Goibeko Euskaltzaleen Topagunea elkarteari esker

Geriren kontzertutako sarrerak ditugu.

Elgeta | Emakume Erresistenten plaza | Irailak 29 | 20:00

PARTE HARTZEKO:

E-postaz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE "Gai" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

*goiena app'-a / zozketa atalean. Parte-hartzearen artean egingo da zozketa.

Indarrez dagoen (DPS 15/1997) legearen arabera, jirakortze dugu, zure datu pertsonalari Goiena Foruakako Zerbitzuaren bitartez automatikoki bideratuko ditugu. Datu biltze horien helburu bakarra da zure datuen erabilera zuzenaren gestioa. Erabaki orokor gisa dituzten artetako, leku zuzentzeak ezarritako helburuak dituzte. goienakide@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

HILARION JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu pertse!

Parte hartzeko azken eguna: irailak 26.



943 25 05 05



goienakide@goiena.eus



*Goiena app'-a / zozketa atalean.



GOIENAKIDE Jatetxea

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 45 €
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia.

Aitziber Aranburuzabala Juldain

BERGARA

Gaur, egubakoitza, abiatuko dute irailaren 30era bitartean egingo duten 71. Donostia Zinemaldia. Kursaal Auditoriumean egingo dute Inaugurazio-ekitaldia, 20:30ean. Aktore eta zuzendari Mireia Gabilondok (Bergara, 1965) izan du, aurten, ekitaldi hori eta jaialdiaren baitan antolatutako gehiago zuzentzeko ardura. Zinemaldian GOIENAKo berriemaile Imanol Gallego izan da Gabilondorekin.

Zer da zuretzako Zinemaldia?

Hamazortzi urte nituela, Donostiara ikastera etorri nintzenez, bizi nuen estreinakoz Zinemaldia. Hasierako urteetan, bereziki, oso inportantea zen guretzako, pelikula asko ikusteko aukera bakarra zen-eta; aste osoa pasatzen genuen, goizetik gauera filmak ikusten. Zinema berri bat ikusteko aukera bat zen niretzako Zinemaldia. Azkeneko urteetan jaialdiaren bueltan lan asko izan dudalako edo kanpoan lanean izan naizelako ez dut horrenbeste film ikusteko aukerarik, baina aurten, adibidez, gutxienez, lau film ikusteko asmoa dut. Gaur egun Zinemaldiaren baitan jai gutxi egiten dira eta oso gogoan ditut garai batekoak; Canal + telebista katearenak, esaterako, ikaragarriak ziren. Hori guztia desagertzen edo gutxitzen joan da, baina festa horiek garrantzitsuak zirela uste dut.

Baduzu Zinemaldiarekin lotzen duzun filmaren bat?

Orain dela urte asko ikusi nuen Kaurismäki zuzendariaren batek aztarna utzi zidan eta gogoan dut Parisen kokatutako etorkinei buruzko film oso indartsu bat ere bai.

Gertuko jaialdia izanda, baloratzen dela uste duzu?

Jaialdi garrantzitsua dela esango nuke. Zinemaldiak zerbait lortu badu hori da; jaialdi ona da eta eskaintzari dagokionez, badu bere nortasuna.

Ikusiko dituzun filmak aukeratuta dituzu?

Ez dut astirik izan kartelera ondo begiratzeko. Gaurko gala pasatuta, libre samar ibiliko naizen lau eguntxo izango ditut eta zinemara joateko aprobetxatu gura nuke.

Zinemaldiko hainbat galatan aurkezle lanak egin dituzu, baina, aurten, estreinakoz, zuzendari moduan jardungo duzu. Zer moduz?

"Askatasun osoa izan dut ekitaldi ofizialak antolatzeke"

MIREIA GABILONDO DONOSTIA ZINEMALDIKO EKITALDI OFIZIALEN ZUZENDARIA

Irekiera eta bestelako galetako zuzendari lanetan jardungo du Bergarakoak eta, horrez gainera, Sail Ofizialean lehiatuko den 'El sueño de la sultana' filmean ere parte hartu du



Mireia Gabilondok zuzenduko ditu Donostia Zinemaldiko galak. HEIDI OTADUY

Orain dela urte batzuk deitu zidan Jose Luis Rebordinosek orduko ekitaldia aurkezteko, baina ezin nuen eta ezezkoa eman nien, eta aurtengo maiatza edo ekaina inguruan deitu zidan berriz proposamen bera egiteko. Dei horretan eskaini zidan nik nahi nuen moduko gala bat prestatzeko eta hala egin dut, oso libre sentitu naiz galaren egitura sortzerakoan eta lantaldea osatzerakoan ere bai.

Gaurko Irekiera-ekitaldia zelakoa izango den aurreratu diguzu?

Bob Pop umoristarekin batera osatu dut ekitaldiko gidoia, eta Eva Hache, Gorra Otxoa eta Loreto Mauleon izango dira aurkezleak; beraz, hortik aurreikusi daiteke ekitaldiak umoretik izango duela. Oinarritzko egiturari dagokionez, nahiko klasikoa izango dela esango nuke. Eszenatokian sartu-irten asko izango dira.

Zuzeneko musika ere izango da.

Hala da, bai; Gernikako Audience taldea ekitaldi osoan zehar taularen gainean izango da; gortinak eta atalak banatzeko bestelako musika-tarte denak zuzenean egingo dituzte, eta

"IKARAGARRIA DA LAGUN DUDAN HERGUERAREN FILMA SAIL OFIZIALEAN IZATEA"

niretzako oso inportantea da hori. Kantari batzuk ere izango dira, baina ezin dut gehiagorik aurreratu...

Aldez aurretik ezagutzen zenituen lantaldeko kideak?

Otxoarekin, Audience taldearekin eta abeslariarekin aurrez lan batzuk egin izan ditut. Eva Hache laguna dut, lagun komun batzuk ditugu Donostian eta hona etortzen denean elkartu izan gara eta aproposa iruditu zitzaizkidan duen nortasunagatik eta egin dituen gauzengatik aurkezle rola eskaintzeko eta pozik nago, proposatutako guztiari baietz esaten diit-eta. Bob Pop Bartzelonan ezagutu nuen behin, lagun komun batzuk ditugu eta egun pasa polita egin genuen. Gidoia osatzen laguntzeko proposatzeko deitu nion eta poz-ozik eman zidan baita baiezkoa.

Fronte ezberdinak dituzu aurtengo jaialdian, Sail Ofizialean lehiatuko den 'El sueño de la sultana' filmean ere parte hartu duzu-eta. Pozik?

Ikaragarri pozten nau Donostiako zine jaialdiko Sail Ofizialean estreinakoz lehiatuko duela animaziozko film batek eta bertako parte izatea plazera da. Isabel Herguera da zuzendaria eta garai bateko Gianmarco Serraren *Begun Rokeya* liburuan dago istorioa oinarrituta. Emakume jatorria, interesgarria eta artez beterikoa da Herguera eta harekin lana egiteko zortea izan dut. 2016an ezagutu nuen Fernando Bernues nire senarrarekin lan egin zuelako, eta orduko proiektu hau lantzen hasita zegoen. Gerora, harremanari eutsi diogu, iazko Gabonak Italian elkarrekin pasatu genituen, esaterako; hortaz, oso gertutik jarraitu dut filmaren prozesu osoa.

Zure ahotsa entzungo duzu beste batzuen artean. Grabaketako zein oroitzapen dituzu?

Marrazki asko aurretik eginda zituen, baina pertsonaiak lantzeko orduan aktoreekin lan egitea gustatzen zaio Herguerari eta halako baten senarrari galdetu zion zein aktoreekin lan egitea proposatzen zion. Garai hartan Madrilen geunden *Sisiforen paperak* antzezlanarekin eta hori aprobetxatuta, goiz baten taldekide batzuk estudio-ra joan ginen pertsonaien ahotsak grabatzera. Goiz pasa polita izan zen eta pelikula ederra egin du gero Hergueraren lantaldeak. Zortetik onena opa diot!

Lantoki eta, aldi berean, aisiaidirako gune mina

Aste "intentsua" izango du Iban del Campok: Kimuak ekimenarekin, 'Sorbeltza' film laburra aurkeztuko du bihar, zapatua, eta, datorren astean, Ibaia elkartearen 'Lau haizetara' ekimenarekin 'Calle de los Angeles' film dokumental luzea garatuko du

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Derrigorrezko hitzordua da, urtero, Donostiako Zinemaldia Arrasateko zinegile Iban Del Camporendako. "Luxua da. Aurten ez dut gura beste film ikusteko aukerarik izango, baina dagoeneko baditut lau sarrera. Ikaragarri miresten dudana Aki Kaurismaki Finlandiako zuzendariaren *Fallen Leaves* ikusiko dut gaur arratsaldean, Perlak sailean, eta sekulako gogoia dut animaziozko *El sueño de la sultana* ikusteko ere. Lehenengo aldia da Sail Ofizialean genero horretako film bat dagoela eta etxekoa da, gainera. Ezagutzen dut Isabel Herguera zuzendaria; kolaborazio batzuk egin ditugu elkarrekin, eta istorioa ere gustuko dut. Ikusiko ditudan beste bi filmak japoniarrak dira eta horrek badu bere azalpena; izan ere, lantzen ari garen proiektuko protagonista japoniarra da eta, uste dut, film horiek ikustek lagunduko didala pertsonaia



Iban Del Campo, Donostiako Kursaal eraikinaren kanpoan. HEIDI OTADUY

hobeto landu ahal izateko pista interesgarri batzuk jasotzeko".

Belaontzian grabatutakoa

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak, Etxepare Euskal Institutuaren bitartez, eta Euskadi-

ko Filmategia Fundazioak lagunduta, osatzen dute, urtero, euskal film laburrak batzen dituen Kimuak katalogoa, mundu mailako zabalkundea egiteko asmoz. Urte ezberdinetako bildumetan daude Arrasateko zi-

negileak egindako lanak; bihar, zapatua, aurkeztuko duten horretan, esaterako, *Sorbeltza* izenekoa du. "Jaialdi askotara heltzeko ikaragarriko laguntza da katalogo horretan sartzea; zine jaialdi askotarako ateak zabaltzen ditu. Biharko aurkezpenerako gogotsu gaude; oso polita izango da lantalde guztiak batera filma pantaila handian ikustea. Belaontzi baten grabatu genuen, eta Erika Olaizola, Joseba Apaolaza eta Miren Gaztañaga dira protagonista nagusiak. Emanaldi itxia da biharkoa, baina aurrerago, Arrasateko Udalak lagundu digunez, Arrasaten eskaintzeko asmoa dugu".

'Lau haizetara' ekimena

Zinema aretoez harago, Donostiako Zinemaldiaren erpinak, beste gune batzuetara ere hedatzen dira. "Kursaaleko sotoa, esaterako, nazioarteko zinemagintza-industriaren topagune da egunotan, bertan biltzen dira herrialde askotatik etorritako ordezkariak. Proiektu eta ekimen asko bideratzen eta egiten dira bertan, horien artean, aurten estreinakoz nire Limbus ekoiztetxeak parte hartuko duen *Lau haizetara* izeneko ekimena. Ibaia -Euskal zinema ekoizleen elkarteak- bultzatutakoa da eta film dokumental luzeak sortzen laguntzea du helburu. Ibilbide luzea du ekimenak; urtero deialdi bat egiten dute garapenean dauden proiektuak aurkezteko

eta aukeratutakoekin Zinemaldian finantziario iturriak aurkitzeko eta proiektuak behar dituen beste arlo batzuk lantzeko aukera izaten dute. Limbus ekoiztetxearen *Calle de los Angeles* dokumentalaren proiektua lantzeko aukera izango dugu hiru egunetan. Bilerak eta bestelako saioak egingo ditugu eta azkeneko egunean, bost minututako aurkezpena. Silvia Reyk zuzenduko du film-dokumentala eta ekoizlearen rolean izango naiz ni. Aukera ederra da gure proiektu berria saltzeko, nazioarteko telebista, plataforma eta zine industriako ordezkari asko etorriko direlako".

210 film luze ikusgai

Kimitachi wa Do ikiruka/The boy and the Heron film japoniarrak zabaldu du gaur, 09:00etan, Kursaal 1 aretoan 71. Donostiako Zinemaldiko Sail Ofiziala eta, *Dance First* ingeles-frantsesa izango da -lehiaketaz kanpo- sail nagusia itxiko duena irailaren 30ean, zapatua, 21:00ean. Guztira, 210 film luze eskainiko dituzte, zortzi sailtan banatuta. Sarrerak *Sansebastianfestival.com* atarian eskura daitezke.

KIMUAK-EN BILDUMA BERRIAREN BAITAN AURKEZTUKO DU IBAN DEL CAMPOK 'SORBELTZA' LANA

Filmen soinu bandak, bihar, Ganbara Abesbatzaren eskutik

Euskadiko Orkestrarekin eskainiko dute kontzertua; dohainik da, baina gonbidapenak eskuratu behar dira

A. A. J. OÑATI

Orain dela bederatzire urte egin zuen Euskadiko Orkestrak, estreinakoz, soinu bandekin osatutako kontzertua, Belodromoan. Harrezkero, zinemazale eta musikazale askoren "gustuko hitzordua" bihurtu da jaialdiaren bigarren egunean egiten duten emanaldi hori. Aurten ere, hala eskainiko dute, bihar, zapatua, 12:00etan hasita, eta Oñatiko Ganbara Abesbatza izango dute taularen gainean lagun.

Kontzertua dohainik da, baina gonbidapenak eskuratu behar

dira Donostia Zinemaldiaren Kursaleko informazio-puntuan, Donostia Turismoaren bulegoan edo Belodromoko leihatilan. 3.000 lagunendako edukiera izango du.

Sei pieza eskainiko dituzte

Las niñas de cristal (Jota Linares), *Love gets a Room* (Rodrigo Cortés), *Modelo 77* (Alberto Rodríguez), *Irati* (Paul Urkijo), *Nora* (Lara Izagirre) eta *Momiak* (Juan Jesus Garcia Galocha) filmen soinu bandekin osatu dute errepertorioa. "Juan Jose Oconek zuzenduko



Ganbara Abesbatza Donostia Zinemaldirako kontzertua prestatzen. MIREN ARREGI

du emanaldia; martitzenean Oñatin egin genuen entseguan izan zen eta txalotu egin zuen egindako lana. *Nora* filmekoan izan ezik, instrumentala da-eta, beste guztietan abestuko dugu formatu ezberdinetan, esaterako, zortzi

ahotsetara batzuetan eta hamabi ahotsetara besteetan. Maria Iza izango da bakarlaria. Estilo oso ezberdineko piezak dira, adibidez, musika frantsesetik gertu dago horietako bat, Fernando Velazquezek sortutakoak

garaikideagoak dira eta *Irati* filmekoan, berriz, abesteaz gainera, bestelako ahots-jokoak egiten ditugu", azaldu du Ganbara Abesbatzako zuzendari Aitor Biainek.

Filmen irudiak, pantailan

Morgancrea taldeak espresuki kontzerturako prestatu duen filmen pasarte ezberdinekin osatutako muntaia 400 m2-ko pantailan erakutsiko dute, eta hari doinua jarriko diete, zuzenean, musikariek. "Ikusten eta entzuten dena bat joan behar dira eta horretan datza zailtasuna, baina astean egindako entseguetan emaitza polita izango dela ikusi dugu. Oso pozik eta eskertuta gaude, ekimen polit honetan parte hartzeko eman diguten aukeragatik", gaineratu du Biainek.

IRAGARKI SAILKATUAK

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Errentan hartzeko pisu bila dabilen bikote bat gara. Erdigunetik gertu bada hobeto. Ez dugu umerik ezta etxeko animaliarik ere. Deitu telefono zenbaki honetara: 680 87 38 66

2. GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN

Garajea alokairuan. Antzuola. Ate automatikodun garaje itxia alokairuan Antzuolako Zurrategi auzoan. Deitu telefono honetara: 600 71 89 91

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Bergara. Adineko senar-emazteak zaintzeko pertsona baten bila nago. 4 orduko lanaldia izango litzateke, astelehenerik larunbatera bitartean. Marokoko pertsona izatea nahiko genuke hizkuntza dela eta. Deitu telefono zenbaki honetara: 631 46 56 98

402. ESKAERAK

Arrasate eta inguruak. Multia astelehenerik ostiralera goizez lan egiteko prest. Soziosanitario eta garbiketarik ikasketak ditut. 643 76 80 49 (Hernan)

Arrasate eta inguruak. Pertsona nagusiak zaintzeko prest. Legezko agiriarekin eta soziosanitario ikasketekin, etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. Deitu 631 12 51 27 telefono zenbakira.

Arrasate. Orduka, nagusiak zaindu edo garbiketarik egiten lan egingo nuke. Soziosanitario ziurtagiria dut. Deitu telefono zenbaki honetara: 651 02 03 14

Arrasate. Soziosanitario ikasketak dituen neska aste bukaeretan lan egiteko prest. Nagusik zein umeak zainduko nituzke. Deitu telefono zenbaki honetara: 654 59 15 55

Bergara. Neska eskalduna goizetan umei prestatzen lagundu eta eskolara eramateko prest. Deitu telefono zenbaki honetara: 688 66 21 27

Debagoiena. Astelehenerik igandera, orduka, lan egiteko gertu. Soziosanitario ikasketak ditut. 747 40 53 01

Debagoiena. Bikotea nagusiak edo menpekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeko prest. Deitu 613 586 593 edo 613 586 468 zenbakietara.

Debagoiena. Emakumea soziosanitario ikasketekin eta legezko agiriarekin, etxean bertan bizi izaten edo bestela, zaintzan edo garbiketarik lan egiteko prest. Deitu zenbaki honetara: 632 37 65 40

Debagoiena. Emakumeak prest pertsona nagusiak zaindu eta garbiketarik lan egiteko astelehenerik ostiralera bitartean. Deitu telefono honetara: 631 04 33 05

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. Pertsona nagusiak zaintzeko prest dagoen emakumea. Soziosanitario titulua dut. Telefonoa: 642 49 94 09

Arrasate. Neska arrasatearra, arduratsua eta atsegina, umeak zaintzeko eta nagusiei paseatzera lagundu edota konpinia egiteko gertu. Telefonoa: 695 73 87 95

Debagoiena. Etxean bertan bizitzen edo bestela lan egingo nuke. Soziosanitario ikasketak ditut eta nagusiei zaindu edo garbiketarik lan egiteko prest nago. Deitu 641 42 12 46 telefono zenbakira.

Debagoiena. Garbitasun lanetan edo pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Legezko agiriarekin ditut. Soziosanitario ikasketak ditut. Goizez lan egiteko aukera. Deitu 631 07 99 53 telefono zenbakira.

Debagoiena. Garbiketarik egingo nituzke orduka. 678 81 94 01

Debagoiena. Gizona etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egiteko prest. Garbiketarik, nagusien zaintzan edo bestelako lanak egingo nituzke. Soziosanitario titulua dut. 602 08 14 92

Debagoiena. Lanean hasteko gertu nago; garbiketarik lanetan, pertsona nagusiak zaintzen, sukaldari edo margolari laguntzaile bezala. Deitu telefono zenbaki honetara: 631 60 13 62

Debagoiena. Nagusiak zaindu edo garbiketarik lan egiteko nituzke. Astelehenerik ostiralera bitartean, orduka. 664 19 13 10

Debagoiena. Nagusiak zaintzen edo garbiketarik lan egiten lan egingo nuke. 663 63 92 41

Debagoiena. Nagusiak zaintzen lan egingo nuke etxean bertan bizi izaten edo bestela. Legezko agiriarekin eta soziosanitario ikasketak ditut. Telefonoa: 666 49 37 17

Debagoiena. Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Orduka nagusiak zaindu edo garbiketarik lan egiteko nituzke. Telefonoa: 662 02 45 80

Debagoiena. Orduka garbiketarik lanetan aritzeko prest dagoen neska. Astelehenetik ostiralera, orduka, pertsona nagusiak zainduko nituzke. Deitu telefono zenbaki honetara: 611 43 84 86

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Deitu telefono zenbaki honetara: 613 58 64 68

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Deitu telefono zenbaki honetara: 613 58 65 93

Debagoiena. Soziosanitario ikasketak eta legezko agiriarekin dituen neska lan bila. Nagusien zaintzan edo garbiketarik lan egingo nuke orduka astelehenerik ostiralera edota asteburuetan. Deitu telefono zenbaki honetara: 678 12 28 56

Debagoiena. Soziosanitario ikasketekin eta legezko agiriarekin lan egiteko prest dagoen emakumea. Orduka nagusiak zaindu edo garbiketarik lan egiteko nituzke. Telefonoa: 662 02 45 80

Debagoiena. Soziosanitario ziurtagiria duen neska lan bila. Astelehenerik ostiralera, orduka, pertsona nagusiak zainduko nituzke. Deitu telefono zenbaki honetara: 696 84 19 51

Eskoriatza eta inguruak. Eskoriatzatik gertu bizi diren umeak arratsaldetan zaindu edota hauei klase partikularrak emango nituzkie. Deitu telefono honetara: 611 43 84 86

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Katakumeak opari. Katakumeak ematen dira opari. Deitu 620 13 83 86 telefono zenbakira.

Txakurkumeak. Arratoi txakurkumeak ematen dira opari Oñatin. Deitu 655 83 61 83 edo 943 78 17 92 telefono zenbakietara. (Ander)

8. DENETARIK

801. SALDU

Koltxoia eta kanapea salgai. Koltxoi flex ia berria eta kanape txuria salgai Bergaran. Tamaina: 1,50 X 1,90. Deitu telefono zenbaki honetara: 605 72 38 97

ZORION AGURRAK



BERGARA Maddi Lopez Usaola
28an, 8 urte. Zorionak, maitxia, Aner, Malen, aitaixo eta amaxoren partetik. Patxo haundi bat!



BERGARA June Maiztegi Arruti
27an, 8 urte. Zorionak eta urte askotarako, potxola, familixakuen partetik! Muxu pilo bat!



ARETXABALETA Inar Isasmendi Zabala
27an, 8 urte. Segi alai eta ona izaten. Muxu batez ere Oinatz, Xanet, Agate eta Kerminen partetik!



BERGARA Maia Ugalde Iruin
27an, 5 urte. Zorionak eta urte askotarako! Asko maitte zaitugu! Familixa eta laguntxoaren partetik.



ARRASATE Lier Lizaur Sagasta
25an, 8 urte. Zorionak, txapeldu! Egun eder bat pasa familia eta lagun giroan. Besarkada bat!



ARAMAIO Irune Arrizabalaga Gonzalez
25an, 10 urte. Zorionak! Ederto ospatu eguna. Etxekoan, Markelen eta nere partetik.



OÑATI Enara Zumalde Andueza
Irailaren 24an, 7 urte. Zorionak! Asko maitte zaitugu! Muxu haundi bat familixa danan partetik!



OÑATI Maddi Lopez Inza
24an, 8 urte. Zorionak eta urte askotarako, bihotza! Topera disfrutatu zeure eguna! Asko maitte zau!



ARETXABALETA Oinatz Garro Larrañaga
23an, 11 urte. Zorionak! Denok elkarrekin ospatuko dogu. Guztion partetik muxu bat.



OÑATI Peru Guzmán Nieto
23an, 3 urte. Zorionak! Ondo pasau zure egunian. Muxu eta besarkada bat familixan partetik.



OÑATI Eider eta Izaro Arrizabalaga Madinagoitia
Izarok Irailak 11n 6 urte eta Eiderrek irailak 23an 10 urte. Zorionak familia danan partetik!



BERGARA Anje Uria Garitano
23an, 2 urte. Zorionak! Egund zoragarri bat pasa! Ondo ondo ospatu Bergarako eta Aiako familixakin!



BERGARA Aner Sánchez Iturbe
22an, 2 urte. Zorionak Aner! Besarkada haundi bat etxekoan partetik eta patxo bat Maddin partetik.



ARRASATE Ibai Ezkurra Zabaleta
22an, 9 urte. Zorionak! Zorionez eta barrez betetako momentuak ditugu zain. Disfrutatu!



OÑATI Aimar eta Iker Zabaleta
Irailak 16an Ikerrek 47 urte eta irailak 20an Aimarrek 11 urte. Zorionak, bikote! Ondo pasatu zuen egunian.



ARETXABALETA Aner De La Torre
Irailaren 20an, 9 urte. Zorionak, Aner! Familiaren eta lagunaren partetik! Besarkada bat.



BERGARA June Lagoma Casas
Irailaren 20an, urtebete. Zorionak, printzesa! Patxo handi bat familia guztian partetik.



BERGARA Alaitz Azula Padilla
19an, 6 urte. Zorionak eta ondo pasau zure egunian, maittia. Patxo haundi bat familixan partetik!



BERGARA Hodei
17an, 8 urte. Zorionak, Hodei! Ondo pasatu zure eguna! Asko maitte zaitugu! Patxo handi bat familia guztian partetik!



OÑATI Xabat Samaniego Gonzalez
17an, 9 urte. Zorionak, Xabat! Ondo pasau zure egunian. Muxu handi bat danon partetik.



BERGARA Hodei Gallastegi Lete
17an, 7 urte. Zorionak! 7 muxu potolo familia osoaren partetik. Jarraitu horren alai eta jator izaten!



OÑATI Izar Aramburu Gende
Irailaren 16an, 7 urte. Zorionak, Izar! Ondo pasau zure egunian! Patxo bat familixa danaren partetik.



ARETXABALETA Nikole Atxa Urrutia
14an, 7 urte. Zorionak! Disfrutatu eta segi beti bezain alai! Besarkada bat etxekoan partetik!



OÑATI Paul Bernal Aramburu
20an, 2 urte. Zorionak, txiki! Egund polita pasa familia eta lagun artian, zuri gustaitzen xatzun moduan.



ARRASATE Ibon Domingo Elorza
Irailaren 21ean, 6 urte. Zorionak bihotza! Ondo ondo pasau zure urtebetetze eguna.

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.
- ORDAINTZEKO ATALETAN, PARTIKULARREN KASUAN, PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO.**

Bergara: Zubiaurre, 63m², 3 logela, balkoiak, trastelekua, bizitzera sartzeko 110.000€ PREZIO JEITSIERA

Bergara: Masterreka, 75m², 3 logela, bizitzera sartzeko. 95.000€ PREZIO JEITSIERA

Bergara: Fraiskozuri, 4 logela, igogailua, eguzkitsua 175.000€

Ibargarai 3 BERGARA
Tel.: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

Informazio gehiago:

BERRI-ZAKUA



Irati eta Iñigo
"Behin hari gorri hori aurkituz gero, zaindu, inoiz hautsi ez dadin. Bihotz-bihotzez opa dizuegu oso zoriontsuak izan zaitezten. Gozatu Indonesian. Disfrutatu".

Maitane eta Andres


Irailaren 16an ezkondu ziren. "Egun handiaren ostean, segi zoriontsu izaten elkarrekin. Muxu erraldoi bana. Zorionik beroenak".



Mireia eta Jakue
Bihar ezkonduko dira Bergarako udaletxean. "Zorionak, bikote! Lagun guztien partetik egun ederra pasa, eta gozatu bidaiaz".

Nerea eta Carlos

"Zorionak, bikote! Zapatu honetan, denok elkartuko gara zuen maitasuna ospatzera!! Onena opa dizuegu! Zuen lagunaren partez".



50 urte ezkondua

Uztailaren 25ean bete zituzten urrezko ezteiak Ana Mari Garcia eta Diego Horrillo arrasatearrek. "Zorionak eta besarkada handi bana familia osoaren partetik!".

URTEURRENA

Josefina Garrastazu Garrastazu



2022ko irailaren 21ean hil zen, 92 urte zituela.

*Zuk erakutsi zenigun zer den ama baten maitasuna.
Zuk emandako goxotasuna gure artean izango da beti.*

Urteurreneko meza domekan izango da, irailaren 24an, 11:00etan, Antzuolako Errukizko Amaren parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Antzuolan, 2023ko irailaren 22an.

ESKER ONA



Eugenio Elkorobarrutia Guridi



2023ko irailaren 17an hil zen, Gasteizen, 84 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana.

Etxekuak maitasunez. Arrasaten, 2023ko irailaren 22an.

OROIGARRIA



Ixabel Aranguren Lizarralde



2023ko irailaren 18an hil zen, 69 urte zituela.

Beti egongo zara gure bihotzetan.

Arraga baserrian elkartzen garen lagunaren partetik Arrasaten, 2023ko irailaren 22an.

ESKER ONA



Ixabel Aranguren Lizarralde



Irailaren 18an hil zen, 69 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, bere aldeko ekitaldi zibileratu eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2023ko irailaren 22an.

OROIGARRIA



Jose Mari Atorrasagasti Etxabe



2023ko irailaren 12an hil zen Santanderren, 71 urte zituela.

Zorionekoak izan gara zu bezalako sukaldari, artista eta familiakide aparta ondoan izateagatik. Eskerrik asko Jose Mari.

Bere emaztea, Txaro Urizar, alaba Ainara eta Jon Etxeberria, bilobak Mattin eta Luka. Anai- arrebak, Beatriz, Alberto, Nerea, Agurtzane eta gainerako ahaideak.

Bergaran, 2023ko irailaren 22an.

ESKER ONA



Andres Bengoa Ezkibel



2023ko irailaren 18an hil zen, 90 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2023ko irailaren 22an.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskelak@goiena.eus

- ▶ Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarría edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 200 € / Goiena Klubeko bazkideendako 175 €
- ▶ Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 175 € / Goiena Klubeko bazkideendako 155 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.

Oroilore

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

Guri deitu zuzenean edo, nahiago baduzue, jakinarazi zuen ategoruko konpainiari gurekin nahi duzuela agurtu nahi duzuenak.

Marioren, Ibanen eta Maribiren partetik, besarkada magikoak zuzentzeko, bihotza sendatzeko balio duten horietakoak. Guk baditugu gordetu zuzentzeko, gure beharra duzuenentzako.

Mario, Iban eta Maribi



Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua ONATI • Tel.: 943 71 66 37

ASTE A GOIENA TELEBISTAN

**ASTE-JANARI BURUZKOAK**

Aretxabaletan zapatuan egingo den asto janaren prestaketa lanak gertutik ikusteko aukera, *Uda giroan* saioan.

'*Uda giroan*' Egubakoitza, 18:00, 20:00 eta 22:00

**ARAMAIOKO DOLAREA EZAGUTZEN**

Aramaioko dolarearen ezaugarriak ezagutzeko bisita berezia egingo du Txomin Madina kazetariak.

'*Landara*' Astelehena, 18:00, 20:00 eta 22:00

**MONDRATE-ESKORIATZA DERBIA**

Areto futbol derbiaren laburpena egingo du Xabi Urzelaik. Saskibaloi kontuek ere izango dute lekua asteleheneko saioan.

'*Harmailatik*' Astelehena, 19:30, 21:30 eta 23:30

**MAITE ARRILLAGAREKIN**

Herbehereetako Eindhoven hirian bizi den bergararrarekin egingo du berba Eneko Azurmendik, denboraldia hasteko.

'*Debagoiendarrak mundutik*' Martitzena, 18:00, 20:00 eta 22:00

**ICIARRI ETA AMONARRIZI ELKARRIZKETA**

Irati Iciar Euskaltzaleen Topaguneko presidente berria da, Amonarrizek lekukoa eman ostean. Biak elkarrizketatuko dituzte.

'*Elkarrizkettap*' Eguaztena, 19:30, 21:30 eta 23:30



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

goiena.eus/telebista

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 22**ELGETA Ipuinen ordua**

17:30ean, HH-2ko, HH-3ko eta HH4ko umeak; 18:00ean, HH-5ekoak eta LH-1ekoak eta LH-2koak; eta 18:30ean, LH-3tik LH-5era artekoak.
Liburutegian.

ELGETA Errekreazio tailerra

Memoria Egunaren baitan antzetzutako bisita gidatua prestatzeko lehen saioa.
Espaloian, 18:00etan.

BERGARA Kontzertuak

Sanprubusean
Garazi eta Sala musikari arrasatearren eta Hiru Handiak talde oñatiarraren emanaldiak.
Elorregin, 18:00etan.

ARETXABALETA Greba feminista prestatzeko asanblada

Bigarrena.
Udaletxe zaharrea, 18:00etan.

ARAMAIO 'Hernani burujabe' herri proiektuaren aurkezpena

Asteklima ekimenaren baitan.
Sastiñan, 18:00etan.

BERGARA Zabalotegiko jaiak

19:00etan, jaien hasiera; 19:15ean, buruhandiak; 19:30ean, pintxo poteoa; 20:00etan, bokatak salgai; 21:00etan, mus txapelketarako izen-ematea eta 21:30ean, mus txapelketa.
Zabalotegin.

OÑATI Bertso saioa

Jaietako bertso saioan parte hartuko dute Sustrai Colinak, Oihana Iguaranek, Urko Arregik, Unai Iturriagak, Amaia Agirrek eta Aitor Bizkarrak. Sarrerak, ohiko lekuetan.
Zubikoan, 22:30ean.

ZAPATUA 23**ARAMAIO Aitor Aranaren omenezko mendi martxa**

Bi ibilbide: luzea 26 kilometrokoa eta motza, hamabostekoa. Hasiera eta bukaera Aramaion.
Frontoian, 07:30ean.

ESKORIATZA Elorretako jaiak

09:00etan, diana txistulariekin; 10:00etan, errotara bisita gidatua; 11:00etan, umeendako ekintzak; 13:00etan, ardo dastatzea; 14:30ean, bazkaria; 16:30ean, bertso saioa; 18:00etan, Kaittin Allenderen bakarriketa; 19:00etan, Keu Agirretxe; 20:00etan, afaria; eta 22:00etan, Dj Txillardegi.
Elorreta auzoan.

ELGETA Udazken jaiak

10:30ean, azoka; 11:00etan, Intxortako Igoera; eta, 18:00etan patata tortilla lehiaketa.
Mendizaleen plazan.

OÑATI San Migel eta Errosaixo jaiak

Gaur, Haur eta Gaztetxoan Eguna. Egitaraua osorik, 20. orrialdean.
Oñatin.

BERGARA Zabalotegiko jaiak

11:00etan, umeendako jolasak eta taila erakustaldia; 13:00etan, pintxo poteoa; 14:30ean, bazkaria; 19:00etan, Karena eta Larru Beltzak taldeen emanaldiak; eta umeen barru-txapelketa; 20:00etan, bokatak salgai; 21:30ean, helduen barru-txapelketa; eta 22:30ean, Dj Javi Sound.
Zabalotegin.

BERGARA Artisanu eta sortzaileen azoka

Ordutegia: 11:30-14:30 eta 16:00-19:00. Gainera, 18:00etan, musika zuzenean.
Gorlako kantuan.

ARAMAIO Eguzki taldearen erromeria

Gainera, Nikolas Gardoki soinujolea omenduko dute ekitaldian.
Barajuena, 12:00etan.

ARETXABALETA Asto-jana

13:00etan, txikiteoa; 14:30ean, gisatu lehiaketaren sari banaketa; 15:00etan, bazkaria; 19:00etan, Izenbarekuak txarangarekin kalejira; eta 22:30ean, bola-txapelketa.
Herriko Plazan.

ARRASATE Bingo musikatua

Gaztetxoendako.
Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

DOMEKA 24**ELGETA Mendi irteera**

Ikasturteko lehena, Enaitz eta Zabalaitez inguruetara.
Autoetan Mendizaleen plazatik, 08:00etan.

ELGETA Intxortako frontera bisita

Izena emateko: 943-79 64 63 edo turismo@debagoiena.eus.
Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan, 10:00etan.

OÑATI San Migel eta Errosaixo jaiak

Egitaraua osorik, 20. orrialdean.
Oñatin.

OÑATI Orientazio jolasa

Ibilbide irisgarrian altxorrak topatzeko jolasa, familiendako. Izena emateko: arantzazu@gipuzkoanatura.eus edo 943-78 28 94.
Arantzazuko Parketxea, 11:00etan.

ESKORIATZA Erretiratuen Eguna

11:00etan, meza; 12:30ean, salda erretiratuen egoitzan; 14:00etan, bazkaria pilotalekuan; eta ostean, dantzaldia eta oparien banaketa.
Eskoriatzan.

BERGARA Zabalotegiko jaiak

12:00etan, taloak; 12:30ean, harri jasotzaileak eta pentatloia; 17:00etan, Kiki eta Flax pailazoan emanaldia; 17:30ean, bingo jolasa; eta 19:00etan, jaien amaiera.
Zabalotegin.

BERGARA Kantu-jira herrikoia

Jardunen eskurik. Bukaeran, mokadutxo egongo da.
San Martin plazan, 12:30ean.

ARRASATE Ur jolasak

Gaztetxoendako.
Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

ASTELEHENA 25**OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea**

Pentsio duinak eskatzeko.
Foruen plazan, 12:00etan.



KIKIKOKOMOKO.COM

BERGARA Kiki eta Flax pailazoaren emanaldia

Katapun Txispun Festa delako ikuskizuna egingo dute umeekin. Zuzeneko musika, abestiak, dantzak, festa-diskoa, rapa eta joko parte-hartzaileak izango dira eduki nagusiak.
Etzi, domeka, Zabalotegin, 17:00etan.

ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.
San Martin Plazan, 12:00etan.

ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

ELGETA Odol-ateratzea ematea Elgetan

Aurrez hartu behar da txanda, 943-00 78 84 telefonora deituta.
Espaloian, 16:30ean.

OÑATI Suizidioari buruzko hitzaldia

Dolu-prozesua bizi duten pertsonen laguntza emango die Izaskun Andonegi erizainak.
Santa Ana antzokian, 18:30ean.

ARETXABALETA Beinke-Loramendi dantza entsegua

San Migel jaietara begira ipintzeko.
Kurtzebarri eskolako kantxan, 19:00etan.

MARTITZENA 26**ARETXABALETA 'Tomatearen bidaiak' erakusketa**

Marta Barba Gassoren lanak ikusteko aukera, hilaren 29ra arte.
Arkupen, 11:00etan.

OÑATI Musika goiztiarrari buruzko saioa

Musika eskolako irakasle Arantzazu Bikuñaren eta Arantzazu Iturriotzen eskutik, 2-3 urteko umeendako eta horien gurasoendako.
Santa Anan, 18:00etan.

ANTZUOLA Ate irekiak gimnasioan

60 urtetik gorakoentzat gimnasia, pilates, hipopresiboak, spinning, body tonu eta zumba daude aukeran. Orduategia: 18:00-20:00.
Gimnasioan.

OÑATI Nagusien danborradako entsegua

Azkena. Konpainia guztiek parte hartuko dute.
Eltzian, 20:00etan.

EGUAZTENA 27**ELGETA Astrotropaketak: teleskopioa**

Ilartegi elkarteak Elgetako liburutegiarekin elkarlanean antolatuta.
Liburutegian, 18:30ean.

BERGARA Eguaztenetako azoka

Herriko baseritarren garaiko produktuak erosteko aukera.
Oxirondon, 19:00etan.

BERGARA 'Aisha' pelikula

Zineklubean, jatorrizko bertsoian eta azpitituluekin. Sarrerak, hiru euro.
Seminarixoan, 20:00etan.

EGUENA 28**BERGARA 'Jolasak plazara' ekimena**

Kale animazioa, sormen gunea, aldarri gunea, espermentazioa gunea, kalejira eta Porrotxen emankizuna.
San Martin plazan, 17:00etan.

OÑATI San Migel eta Errosoixo jaiak

Egitaraua osorik 20. orrialdean.
Oñatin.

ARRASATE Emakume Txokoaren ikasturte hasiera

Nik sinisten dizut irakurraldi feministako bigarren edizioaren bideoa partekatuko dute, eta osten Yaima Orozco kantautore kubatarrek emanaldia egingo du.
Emakume Txokoan, 18:30ean.

ESKORIATZA Ostegun Bidaiariak

Roman Ezeizak etxetik bertatik hasi zuen bidaiaria bizikletaz, Eskoriatzako Txalaparta jatetxetik. Sei egunetan Euskal Herriko txoko ugaritan egon zen, haren adiskide Manu Lagarekin batera. Ibilbideko bitxikeriak kontatuko ditu.
Zaldibar antzokian, 19:00etan.

ARETXABALETA Beinke-Loramendi dantza entsegua
San Migel jaietara begira. Azkena.
Herriko Plazan, 19:00etan.

BERGARA Hainbat aurkezpen
Beste aldea. Gizona ez den hori dokumentalaren (20 min.) eta *Angiozar 1936. gerrateko kontuak* liburuaren aurkezpenak.
Angiozarko elizan, 19:00etan.

ARRASATE Paula Guerreroren kontzertua

Guacamayo erakusketaren baitan Paula Guerrero (Almendralejo, 1996) musikariaren emanaldia izango da.
Kulturateko klaustroan, 19:30ean.

EGUBAKOITZA 29**OÑATI San Migel eta Errosoixo jaiak**

Gaur, San Migel Eguna. Egitaraua osorik 20. orrialdean
Oñatin.

ELGETA Errekreazio tailerra

Memoria Egunaren baitan antzetzutako bisita gidatua prestatzeko bigarren saioa.
Espaloian, 18:00etan.

ZINEMA**BERGARA****SEMINARIXOA**

Pequeñas casualidades
Domeka eta astelehena: 19:30.
Alan giza antena
Domeka: 17:00.

OÑATI**KULTURA ETXEA**

Campeonex
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua eta domeka: 19:30 eta 22:00.
Astelehena: 19:30.
Elemental
Zapatua eta domeka: 17:00.

GASTEIZ**FLORIDA**

Barbie
Egubakoitza, eta astelehenetik eguenera: 17:15.
Zapatua eta domeka: 11:30, 17:15.

Campeonex
Egubakoitza eta astelehenetik eguenera: 17:30.
Zapatua eta domeka: 11:30, 17:30.

El sol del futuro
Egunbakoitza: 17:00, 19:00.
Zapatua eta domeka: 11:30, 17:00, 19:00.
Astelehenetik eguenera: 17:15.

La voz del sol
Egubakoitza: 19:45, 22:00.

Zapatua eta domeka: 11:30, 19:45, 22:00.
Astelehenetik eguenera: 19:45.

Me he tragado un extraterrestre
Zapatua eta domeka: 12:00.

Misterio en Venecia
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 19:30, 21:45.
Astelehenetik eguenera: 17:15.

Operacion Napoleon
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 19:30, 21:45.
Astelehenetik eguenera: 17:15.

Oppenheimer
Egubakoitzetik domekara: 21:00.
Astelehenetik eguenera: 19:15.

Richard la cigüeña y la joya perdida
Zapatua eta domeka: 12:00.

Todos los nombres de Dios
Egubakoitzetik domekara: 19:30, 21:45.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

Vida perra
Egubakoitza: 17:15, 20:00, 22:00.

Zapatua eta domeka: 12:00, 17:15, 20:00, 22:00.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:15.

Tregua(s)
Egunero: 19:45.

ANTZUOLA Ate irekiak gimnasioan: azken eguna
60 urtetik gorakoentzako gimnasia, pilates, hipopresiboak, spinning, body tonu eta zumba daude aukeran. Orduategia: 18:00-20:00.
Gimnasioan.

ARRASATE Garagartzako jaiak

19:00etan, ikurrinaren igoera eta etxafuegoak; 19:30ean, buzkantza jana; 20:00etan, Arrasateko gaitariak; 22:00etan, Kontralde, Oihu!, Assata eta No Somo Cicatriz taldeak; eta 02:00etan, berakatz zopa.
Garagartzan.

ARRASATE 'Guacamayo' erakusketa

Harriak arte garaikideko programaren baitan, Miel Oyarzabalaren, Ibai Madariagaren, Victor Ortuñoren eta Silvia Copolaren lanak ikusgai, urriaren 31ra arte,
Kulturaten, 19:00etan.

ELGETA Gariren kontzertua

Sarrerak, zortzi euro.
Emakume Erresistenteen plazan, 20:00etan.

ZAPATUA 30**OÑATI San Migel eta Errosoixo jaiak**

Gaur, Herri Eguna. Egitaraua osorik 20. orrialdean
Oñatin.

ARRASATE Txalaparta Festa

11:00etan, diana; 12:00etan, tailer herrikoia; 13:00etan, irrintzilarien erakustaldia; 14:30ean, bazkaria; 17:30ean, *30 urtez enbor beretik* kalejira; eta 20:00etan, Kimu taldearen emanaldia.
Arrasaten.

ARRASATE Garagartzako jaiak

11:00etan, diana eta puzgarriak; 12:30ean, artile mozketa erakustaldia; 15:00etan, paella jana; 16:30ean, jolasak zaldi eta poniekin; 17:30ean, Aramaioko bertsolarien saioa; 20:30ean, Dj Goiko; 22:00etan, lamiaren etorrera; eta 23:00etan, Dj Goiko.
Garagartzan.



AZKEN BERBA

ANDER ETXEBERRIA

Irudiaren bila

Oso goiz jaiki nintzen abuztuko egun hartan. New Yorkeko etxe orratzei eguzkia irten aurretik atera nahi nizkien argazkiak. Metroan sartu eta denboratxo batera konturatu nintzen pertsona zuri bakarra zegoela bagoian: ni. Hogeia lagun inguru izango ginen. Beste denak beltzak edo beltzaranak ziren. Guztiok genuen motxila alboan (nire kasuan, argazki kamera barruan zegoela). Batzuk, gainera, kaskoa zeramatzen, eta baten batek erremintakaxa ere. Bertakoa dudan lagunak ondoren azaldu zidan seguruenik guztiak langileak zirela: gizonezkoak obratar joango ei ziren eta emakumezkoak zerbitzu lanetara.

Geltoki batean nahastu eta egun-argiz iritsi nintzen aukeratu nuen kokalekura. Nire atzean zegoen parkean jendea footing egiten zebilen. Argazki batzuk aterata nituela, zerbaitek atentzioa eman zidan: kirolari guztiak zuriak ziren. Aipatutako lagunak esan zidan ziurrenik bulegoetako langileak izango zirela beharrera joan aurretik osasuna zaintzen.

Ez dago hain urrun joan beharrik horrelakoak nabaritzeko, baina egin nituen argazkia baino dezente interesgarriagoa izan zen egun hartan ikusitako estanpa.

BUKATZEKO



The Clayton taldea Zestoako Gaztain estudioan, Idoia Tapiarekin (Skabidean) eta Eñaut Gaztañagarekin (Gaztain estudioak). THE CLAYTON

"Oso motibatuta" daude disko berriko abestiekin

Danbaka musika lehiaketa irabazi zuen Aramaioko The Clayton taldeak labera bidaltzeaz dauka disko berria, azaroan aurkeztea nahi dutena. Zortzi abesti izango ditu, sei euskaraz eta bi ingelesez; rock-and-rolla du oinarri, baina barietate handiagoa izango du lan berriak

Jokin Bereziartua Lizarazu ARAMAIO Danbaka musika lehiaketa irabazi zuen Aramaioko The Clayton taldeak labera bidaltzeaz dauka disko berria. Irailaren 4an sartu ziren Zestoako Gaztain estudioan eta hamar egunetan grabatu, nahastu eta masterizatu dituzte disko berriko zortzi abestiak; Danbakako sari nagusia %100ean erabiliko dute es-

tudioko lanak ordaintzeko. "Gaur [astelehena] jaso dugu lehen masterra eta, behin betiko emaitza ez bada ere, flipatu egin dugu. Oso motibatuta gaude material berriarekin", dio taldeko abeslari Jokin Larrañagak.

Disko berriko abesti guztiak urtebetean egin dituzte aramaiorrek, eta aipatzekoa da, besteak beste, lehen diskoarekin alde-



Jokin Larrañaga, ahotsa grabatzen.

ratuta euskaraz presentzia handiagoa izango duela; zortzi abestietatik sei euskaraz dira, eta bi ingelesez. Izenburuz galdetuta, honako hau dio Larrañagak: "Diskoaren izenari dagokionez, oraingoz aukera gehien dituen proposamena *Over the red light* da [Argi gorriaren gainean]. Gizarte mailan argi gorriek hainbat esanahi dituzte: arriskua, debekua, abisua, zerbait gaizki egin izana... Disko berriko abestien gaiek badute loturaren bat argi gorriek adierazi nahi dutenarekin, eta horregatik izen aproposa iruditzen zaigu. Hala ere, ez dago guztiz erabakita".

Kolaborazioei dagokienez, Skabidean taldeko Idoia Tapiak ahotsa sartu du disko berriko baladan; izan ere, barietate handiagoa du lan berriak, eta badi-tu abesti lasaia ere.

Bideoklipak bi abestirekin

Baina noiz entzun ahalko dira *claytondarren* abesti berriak? Badute gutxi gorabeherako egutegi bat: "Irailaren 30ean eta urriaren 1ean bideoklip bat grabatuko dugu, Pletina Films zigitupean, eta bi astetara argitaratzea espero dugu. Gero, urriaren 21eko asteburuan, beste bideoklip bat grabatuko dugu; oraindik ez dugu zehaztu norekin grabatu. Hortik bi astetara-edo argitaratuko genuke ikus-entzunezko hori ere. Zuzeneko aurkezpen ofiziala ez dakigu izango den, baina azaroaren 11n kontzertu bat bai emango dugula Arrasateko gaztetxean. Abenduan Bermeoko Kafe Antzokian ere jotzekoak gara; Oñatiko Letagin disko berria grabatzen ari da, eta eurekin ere joko dugu. Hori da aurreratu dezakeguna".



Realaren eta Athleticen arteko derbirako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Athletic norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuk eta zuk aukeraturako beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko *premium* gunetik. Partida irailaren 30ean, zapatua, 21:00etan izango da.

Parte hartzeko azken eguna: irailaren 25a.

Egin Goienakide eta Reala ikusteko aukera izango duzu!

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!



1. Aplikazioa deskargatu.

2. Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

Gertu. Zorte on!

goiena
kide

Okm:
batzen gaituen distantzia